EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

HEZKUNTZA PLANA

2019-2020 IKASTURTEAREN AMAIERA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN JARRAIBIDEAK 2019-2020 IKASTURTEKO AZKEN HIRUHILEKORAKO ETA 2020-2021 IKASTURTEAREN HASIERARAKO

DOKUMENTUAREN EGITURA

1.- FUNTSEZKO ESKUBIDEEN BERMEA
2.- HEZKUNTZA-JARDUERAREN GARAPENA
3.- METODOLOGIA
4.- IRAKASLE TALDEAREN KOORDINAZIOA
5.- HEZKUNTZA-INDARGARRIA. BANAKO PLANAK. CURRICULUM-EGOKITZAPENAK. ETA ERREKUPERAZIO-PROZEDURAK.
6.- EBALUAZIOA
7.- FAMILIEI ZUZENDUTAKO KOMUNIKAZIOA
8.- HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK DITUZTEN IKASLEEI ZUZENDUTAKO ERANTZUNA
9.- IKASTURTE AMAIERAKO FUNTSEZKO ERREFERENTZIAK, ETAPEN ETA IRAKASKUNTZEN ARABERA
- LEHEN HEZKUNTZA
- DBH
- BATXILERGOA
- ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK

10.- IKASLEEN EBALUAZIOA IKASTURTE AMAIERAN

ERANSKINAK

1.- MAILETARAKO ERREFERENTZIAZKO GUTXIENEKO EDUKIAK
2.- DOKUMENTAZIO AKADEMIKOA

Hezkuntzako sailburuaren jarraibideak 2019-2020 ikasturteko azken hiruhilekorako eta 2020-2021 ikasturtearen hasierarako

Ezinezkoa da COVID-19aren epidemiak eragindako egoeraren bilakaera ziurtasunez zenbatestea eta osasun-alarmaren egoeraren iraupena zehaztea, hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatu behar da. Hori guztia kontuan izanik, bere osotasunean planifikatu beharko da irakaskuntzako esku-hartzea, bai hasten den hiruhilekoan irakaskuntza-jarduera garatzeari begira, bai 2020-21 ikasturtearen hasierari begira.

Aldez aurretik, adierazi behar da ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzari, konfinamendu-denboran, emandako datu eguneratuak eskura ditugula eta datu horiek beharrezkoak direla egoeraren diagnostikoa egiteko eta erabakiak hartzeko.

Hiruhileko honetan, nahitaezkoa da ikasturte amaierara arte **aurrez aurreko edo urrutiko irakaskuntza-jarduera** ahalik eta gehien **aprobetxatzeko** aukera emango duten estrategiak planifikatzea eta **ebaluazio-prozedurak** ezartzea, ikasleen oinarrizko gaitasunen garapen-maila zehazteko eta, hartara, maila horiek ziurtatzeko. Horregatik guztiagatik, jarraibide hauek ondoren garatuko diren ataletan egituratuta daude.

1.- FUNTSEZKO ESKUBIDEEN BERMEA

Osasunerako eta hezkuntzarako eskubideak zaintzea erreferentzia izan da, une oro, hezkuntza-administrazio honetan hartu diren erabakietarako. Osasun Sailaren gomendioak kontuan hartu dira, eta kontuan hartzen dira, besteak beste, COVID 19 birusaren hedapena saihesteko. Hori dela eta, martxoaren erdialdetik aurrera, ikasleak beren etxeetatik jarraitzen ari dira haien ikasketak.

Jarraibide hauek, beraz, ikasleak ikastetxeetara itzuli ez diren une batean planteatzen dira, eta, itzulera hori gertatuko balitz ere, seguru da mailaz maila egingo litzatekeela, eta, jakina, pertsona guztien ongizatea zaintzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuta.

Nolanahi ere, hezkuntzarako eskubidea baliatzeko bermeak indarrean jarraitzen du, eta administrazio honek hezkuntza-elkartea arlo horretan erakusten ari den konpromisoa eta inplikazioa aitortzen ditu; ildo horretatik, administrazio honek, ikasturteko azken hiruhileko honetan, eskola-elkarteko pertsona oro ahal den neurrian laguntzen jarraitzera animatzen du, egoera berezi honetan hezkuntzarako eskubidea balia dadin.

2.- HEZKUNTZA-JARDUERAREN GARAPENA

2.1.- ESKOLA-EGUTEGIA

Irizpide orokor gisa, ikasturtearen iraupenari eutsiko zaio, eta horrek onartutako 2019-20 ikasturteko egutegia errespetatzea dakar. Haatik, salbuespen batzuk aurreikusi dira eta horien artean dago Batxilergoko 2. urteko ikasleentzako egutegia uztailaren 3ra arte luzatzea, hau da, unibertsitatera sartzeko batxilergoko ebaluazioa egitea aurreikusten den egunetara arte (uztailaren 6a, 7a eta 8a).

Bestalde, onarpen-prozesuari eta tramitatu eta/edo ebatzi gabe dauden beste administrazio-prozedura batzuei dagokienez, alarma-egoeraren ondoriozko etenaldia kentzeko ahaleginak egiten ari dira. Horren inguruko albisteak izan bezain laster jakinaraziko dira.

2.2.- IRAKASKUNTZA-JARDUERA

Ikastetxeen autonomia pedagogikoa errespetatuz —hala behar duenez—, honako gomendio hauek egin behar dira, hiruhileko honetan ikasleekin egingo den esku-hartzean gutxieneko koherentzia bermatze aldera.

- Irakasle taldeak 2019-20 ikasturterako planifikatutako curriculumaren **funtsezko alderdiak** berrikusi eta egokitu beharko ditu; horretarako, dagozkion ebaluazio-irizpideak eta adierazleak erreferentziatzat hartuko ditu, eta uko egin beharko dio hasierako helburuak zehatz-mehatz betetzeari, lan-planak malgutuz eta ikasleen ongizatea zigortu edo kaltetu gabe eta gehiegizko zereginen gainzamarik gabe.
- Funtsezko alderdi horiek ebaluazio- eta kalifikazio-prozesuko erreferentzia izango dira, une horretan zein hasierako ebaluazioan —2020-21 ikasturteko irailean egin beharko da hasierako ebaluazio hori—.
- Egin beharreko **jarduerak planifikatu** beharko dira, eta bereziki kontuan hartu beharko dira euskarri digitalik ez duten ikasleak; ikasle horiei zuzendutako indartze-plan bat diseinatu beharko da, espero den gaitasun-maila lor dezaten laguntzeko. Lehen Hezkuntzako 1. eta 4. mailen artean eskolatutako ikasleen kasuan, ETB 3ko *Bitartean, etxetik ikasten* programaren jarraipena egitea gomendatuko da. Programa horren bidez, irakasleak saiatuko dira lantzen diren curriculum-elementuetan aurrera egiteko beharrezko loturari eusten.
- Hezkuntza-etapa guztietako jarduerak antolatzean, komeni da oinarrizkotzat jotzen diren jarduerak eta hedapeneko jarduerak identifikatzea. Jarduera horien formatuan barnean har daitezke bideoak, tutorialak, podcast-ak, irakurketak, eztabaidak (posible bada), eta abar. Era berean, gomendatzen da horietarako bakoitzerako aurreikusten den iraupena adieraztea, baita egoki jotzen diren autoebaluazioko zereginak ere.Irakasle taldeak hilabete horietarako proposamena egokitu eta adostu ostean, ahalik eta argien jakinarazi beharko zaie proposamen hori ikasleei eta haien familiei. Une

horretan, tutoretza- eta orientazio-ekintzak garrantzi handia du eta ikaslearen motibazioan eragina izan beharko du, bai ikasiko duenari dagokionez, bai egin behar dituen jarduerei dagokienez, baita ikaskuntza ebaluatzeko moduari dagokienez ere.

- 2019-20 ikasturterako planifikatutako curriculumeko helburu zehatzekin lotzen diren zereginak bidaliko dira eta egindako zereginen jarraipena egingo da.
- Lortutako ebidentzien araberako oharrak idatziko dira, eta ikasi diren alderdiak eta ikasleek zailtasun gehien izan dituzten alderdiak identifikatuko dira.
- Interes berezia jarriko zaio berrikusteko eta indartzeko jarduerak egiteari.
- Era berean, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleekin esku hartuko da, haien banako planak edo curriculum-egokitzapenak kontuan hartuta, halakorik balego.
- Berritzeguneetako aholkularien eta ikastetxeetako erreferentziazko ikuskatzaileen arteko harremanak areagotuko dira, irakasleei eta zuzendaritza taldeari lehentasuneko gaietan laguntzeko.

3.- METODOLOGIA

Irakaskuntza ez-presentzialeko egoera horretan, ikaslea informazioa bilatzeko prozesuan inplikatu behar da, baita gogoeta egiteko, aplikatzeko eta ezagutza komunikatzeko prozesuetan ere. Ziurgabetasun-egoeretan eta aldaketa-prozesuetan ikastea, berez, oinarrizko gaitasunak garatzeko baldintza da, eta, kasu honetan, aukera paregabea da ikasten ikasteko gaitasuna garatzeko.

Motibazioa oinarritzen da egoera errealekin lotura estua duten ikaskuntza-egoeren edo -erronken proposamenean eta eguneroko bizitzako eta gizarte-inguruneko arazo garrantzitsuen ezagupenean. Bizitzen ari garen ezohiko egoera, kasu honetan, ikasleen ikaskuntzarako jakin-mina eta motibazioa sustatzeko interes-ardatzetako bat izan daiteke.

Aukera baliatuko da harreman-testuinguru malguagoak eta proposamen sortzaileagoak sortzeko eta gaitasun komunikatiboen eta digitalen sarea hobetzeko.

Ildo horretan, euskarri eta baliabide digitalen beharrezko erabilera oso lagungarria izaten ari da ikasleen, irakasleen eta familien arteko bitartekaritza-tresna gisa.

Horrez gain, tresna bereziki baliagarria suertatzen ari da arreta pertsonalizaturako eta aniztasunerako. Hala ere, ikaskuntzaren banakako esperientziaz harantzago, ikasleek elkarlanean ikastea ere sustatuko da, estrategia didaktiko gisa; elkarrizketa, eztabaida eta desadostasuna sustatuko dira, baita desberdintasunekiko errespetua eta norberarenak ez diren ekarpenen balioa ere. Saiatuko da ikasleek konfiantza izan dezaten probatzeko, huts egiteko eta asmatzeko.

Testuinguru horretan, curriculumeko ikasgaiak jakintza-arloetan barnean hartu ahal izango dira, eta jakintza-arlo horietan errespetatuko dira multzokatzen diren ikasgaien edukiak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak. Multzokatze horrek eragina izango du diziplinartekotasunean eta ikasleek aldi horretan presta ditzaketen lanen eta

proiektuen balizko garapenean.

4.- IRAKASLE TALDEAREN KOORDINAZIOA

Talde/ikasgela bakoitzeko irakasle taldeek koordinazio bilerak egingo dituzte, eta orain arte alderdi hauei dagokienez egin dena areagotuko dute:

- Haien ikasleei buruzko informazioa partekatuko dute eta taldeko zein banako beharrak eta lorpenak baloratuko dituzte.
- Ikasturte amaierara arte planifikatu diren zereginak partekatuko dituzte, horien koherentzia eta osagarritasuna gordetzeko eta oinarrizko alderdiak eremu/arlo/ikasgai/... guztietatik indartzen direla bermatzeko.
- Ikastetxeetan ezarritako koordinazio taldeen bidez (batzorde pedagogikoen, zikloko taldeen, mintegien bidez) ezarriko dira konprometitutako edo beharrezko zereginak edo proiektuak garatzeko beharrezko jarraibideak.
- Ebaluazio-saioa egin bitartean, planifikatutako eta adostutako alderdiak landuko dira, eta aldian behin egingo dira irakasle taldearen bileran hartutako erabakien jarraipena egiteko bilerak.
- Bereziki berrikusiko dira hezkuntza-indargarrien proposamenak, banako planak eta curriculum-egokitzapenak.
- Oporren osteko lehen astean, oporren aurreko aldian landutako minimoak berrikusiko dira.
- Gogorarazi behar da bereziki nabarmendu behar direla etapa-amaierako helburuak eta aintzat hartu behar direla mailaz igotzeko berezitasunak Lehen Hezkuntzako 6. mailan, DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 2. mailan.
- Era berean, ebaluazio-prozesuak prestatu eta planifikatu beharko dira.

5.- HEZKUNTZA-INDARGARRIA. BANAKO PLANAK. CURRICULUM-EGOKITZAPENAK. ETA ERREKUPERAZIO-PROZEDURAK.

Ikasleen ikaskuntza-prozesuan zailtasunak antzematen diren egoeretan, **hezkuntza-indargarria** bermatu behar da.

Pentsatzekoa da egungo egoerak indargarria aintzat hartzea eskatzen duela, **laguntza espezifikoak** gaituz eta arlo edo ikasgai instrumentalak lehenetsiz, **ikasturte honen amaieran zein hurrengo ikasturtearen hasieran**. Hurrengo ikasturtean, irailak indartze-izaera argia izango du, alde batera utzi gabe gaitasun handiko ikasleentzako ikaskuntzak eta gaitasunak sakontzeko eta zabaltzeko zereginak.

Komeni da, oro har, udako oporretarako indartze-zereginak edo errekuperazio-zereginak agintzea.

2. puntuan aipatu denez, arreta berezia eskainiko zaie **on-line prestakuntzarako aukerarik izan ez duten ikasleei**, desabantailan egon ez daitezen.

Zentroak gizarte-erakundeekin dituen harremanak areagotu beharko ditu —zehazki familiekin harremanetan jartzeko zailtasun-egoerak daudenean berarekin koordinatzen diren gizarte-erakundeekin dituenak—. Ildo horretan, Hezkuntza Ikuskaritza ikasleen absentismoa kontrolatzeko ohiko prozedurak berrikusten ari da, egungo inguruabarretara egokitze aldera.

Ikasturte honen hasieratik planifikatutako hezkuntza-indargarrietarako banako planak ere berrikusi beharko dira, horietan ustez egin beharreko egokitzapenak kontuan hartuta.

Curriculum Egokitzapen Garrantzitsuak (CEG) dituzten ikasleek ahalik eta arretarik pertsonalizatuena jaso beharko dute, baina, aldi berean, jarduera telematiko kolektiboetan parte hartzea erraztuko da.

Informazio osagarria erantsi da 8. atalean, hau da, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei zuzendutako erantzunari buruzko atalean.

6.- EBALUAZIOA

Ebaluazioaren garrantzia.

Aurrerapenak identifikatu beharko dira eta prestakuntza-prozesurako **abiapuntu gisa erabili** beharko dira; horrez gain, ikasleek beren ahaleginak eta lorpenak aitortzeko eta egiaztatzeko duten eskubideari erantzun beharko zaio. Horren ondorioz, **ebidentziak bilduko** dira eta, hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren probak edo jarduerak egingo dira, ikastetxeek egindako programazio didaktiko egokituen arabera.

Kontuan izan behar da, eskolak emateko metodologia on-line ingurunera egokitu behar izan den bezala, ebaluazioa ere egokitu beharko dela ingurune horretara, eta on-line edo beste bitarteko batzuen bidez proposatutako zereginen jarraipen-erregistroez baliatuko dela.

Hezkuntza Ikuskaritzak funtsezko zeregina beteko du ebaluazio-prozesuen balidazioan, hau da, ikastetxe bakoitzak egiten duen proposamena balioestean eta legitimatzean. Ildo horretan, eta ikastetxe bakoitzaren autonomia pedagogikoa kontuan hartuta, zuzendaritza-taldeak eta erreferentziazko ikuskatzaileak bilerak egingo dituzte maiatzeko lehen hamabostaldian, ebaluazioa nola egingo den adosteko.

Ildo horretan, ISEI-IVEIren eta Berritzeguneen laguntzarekin, premia duten ikastetxeen esku jarriko dira prozesu horretan lagun dezaketen proposamenak.

ISEI-IVEIk kanpo-ebaluazioa egiten den mailetan gutxieneko edukiak identifikatzeko esperientzia du. Bi maila kritiko (Lehen Hezkuntzako 6. maila eta DBHko 4. maila) eta tarteko bi maila (Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila) daude; beraz, garrantzi handiko laguntza eskainiko dute ikasleek aurreikusitako gaitasunak lortzeko erabili behar dituzten edukiak identifikatze aldera.

Berritzeguneek gomendioak ezarri ahal izango dituzte erabil daitezkeen jarduera motei edo material didaktikoei buruz, betiere beren mintegietan parte hartzen duten irakasleak kontuan hartuta.

Azkenik, nabarmendu behar da familiarekiko komunikazioa bereziki garrantzizkoa izango dela. Ikasturte amaierako ebaluazioa nola egin den azalduko zaie eta erreferentziak emango zaizkie; bestalde, lankidetza eskatuko da udarako laguntza-lanak egin daitezen, eta ohartaraziko zaie zeregin horiek berrikusiko direla irail hasierako ebaluazioa egiteko —ebaluazio horrek behin betiko eragina izango du ikasle bakoitzak ikasturte berriari ekiteko moduan—.

10. atalean, ikasturtearen amaierako ikasleen ebaluazioari buruzko informazio osagarria erantsi da

7.- FAMILIEI ZUZENDUTAKO KOMUNIKAZIOA

Konfinamendu-aldian, ikastetxeen eta familien arteko komunikazioak egiten ari dira, batez ere bide telematikoz (posta elektroniko bidez, telefonoz...).

Komunikazio hori indartu behar da, bai haien seme-alaben bilakaera akademikoari buruzko orientabideak emateko, bai bilakaera horretan laguntzen jarraitzeko, baita ebaluazio- eta kalifikazio-prozesuan kontuan izango diren alderdien berri emateko ere —egindako berregokitzapenekin lotzen diren alderdiak dira—. Ebaluazio- eta kalifikazio-prozesuan kontuan izango diren alderdien berri emateko ere indartuko da komunikazioa.

COVID-19 Familientzako orientabideak izeneko dokumentua egin da eta **Ikasgunean** eta Sailaren web-gunean txertatu da (COVID-19 atala). Dokumentu horretan, modu errazean lantzen dira zenbait gairi buruzko aholkuak: familiaren osasun fisikoa eta emozionala zaintzeko modua, jardunaldiak eta etxeko errutinak planifikatzeko modua, harreman jakin batzuk izateko modua, informazio negatiboa mugatzeko modua, eta abar.

8.- HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK DITUZTEN IKASLEEI ZUZENDUTAKO ERANTZUNA

Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleek, oro har, baliabide espezifiko bat izaten dute: curriculumaren egokitzapena edo banako lan-plan bat. Baliabide espezifiko horiek aldizka berrikusi behar dira, normalean hiruhileko ebaluazioak egiten direnean. Bi kasuetan, ikasle horien ikaskuntza eta eskola-partaidetza errazteko baliabideak dira, eta beharrezkoak diren laguntza pertsonalak eta teknikoak izango dituzte, beren gaitasunak ahalik eta gehien gara ditzaten. Baliabide horiei esker, ikasle horien berariazko premiak kontuan hartu ahal izango dira eta hezkuntzako esku-hartzea orientatu ahal izango da, egokitzapen horren esparruan ezarritako gaitasunak garatzen laguntzeko.

Tutoreak bere ikasleen hezkuntza-jardun guztiak antolatzen, zuzentzen eta koordinatzen ditu eta, beraz, berak gidatu behar du hezkuntzako esku-hartzea. Hala ere, ikasle bakoitzaren premiei erreparatuta, laguntza pertsonalaren barruan sar daitezke pedagogia terapeutikoko, entzumeneko eta hizkuntzako irakasleak eta

ikusteko desgaitasuna edo gorreria duten ikasleentzako laguntza-irakasleak, betiere oinarrizko gaitasunen garapena errazteko helburuarekin.

Gaitasun funtzionalak garatzeko eta curriculumera sartzeko fisioterapiako edo terapia okupazionaleko langileak ere izan daitezke, edo hezkuntza-laguntzako espezialistak, zeinu-hizkuntzako interpreteak edo gor-itsutasunaren bitartekariak, baldin eta laguntza autonomia eta irisgarritasuna garatzera bideratuta badago.

Testuinguru horretan, garrantzitsua da, halaber, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan irakasle aholkulariek egiten duten lana nabarmentzea, baita Bigarren Hezkuntzan irakasle orientatzaileek egiten duten lana ere.

Gaur egungo inguruabarretan, profesional horien lanak ezinbestekoa izaten jarraitzen du, irakasle tutoreen eta profesional espezifikoen koordinazioa bermatzeko. Lortu nahi da jarduerak koherenteak izatea hezkuntza-premia berezietako aholkularitzen orientabideekin eta ikasturte honetarako planteatutako proposamen espezifikoekin.

Aholkulariek aholkularitza eta laguntza emango diete irakasle tutoreei eta irakasle taldeei, eta horretarako curriculum-egokitzapenak berrikusi eta egokituko dituzte eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin banaka esku hartuko dute, ahal dela bitarteko telematikoen bidez. Era berean, zuzendaritza-taldearen eta irakasleen ekintzak koordinatuko ditu erreferentziazko aholkularitzarekin eta dagokion Berritzeguneko Hezkuntza Premia Berezien aholkularitzarekin.

Orientatzaileek, irakasle tutoreekin eta irakasle taldeekin batera, berrikusiko dituzte ikasleen zailtasun bereziko egoerak, eta, horretarako, antolakuntzako, metodologiako eta hezkuntza-indargarriko neurriei buruzko aholkuak emango dituzte, eta, hala badagokio, curriculum-egokitzapenen jarraipena edo egokitzapena egingo dute. Halaber, irakasleekin batera, plan eta programen garapena eta ebaluazioa berrikusiko dute, hala nola curriculum-aniztasuneko gelak, zereginen ikaskuntzarako gelak, berariazko hezkuntza-indargarriko programak edo gaitasun handiko ikasleen arreta.

Irakaskuntzako eta hezkuntzako profesionalek beren jarduerak koordinatu behar dituzte, curriculumerako sarbidea erraztuz eta familiekin esku hartzeko formulak bilatuz.

Pedagogia terapeutikoko irakasleak eta entzumeneko eta hizkuntzako irakasleak, berez, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzeko profesionalak dira. Bigarren kasuan, hizkuntzaren eta komunikazioaren esparruarekin lotura handiagoa duten profesionalak dira. Bi kasuetan, curriculuma egokitzeko edo jarduteko plan baten jarraipenaren barruan esku hartu beharko dute.

Hizkuntza indartzeko irakasleen esku-hartzeak intentsitate handiagokoa izan behar du, betiere beharrezkoak diren baliabide teknikoak eskuragarri badaude eta irakasle tutoreekin lankidetzan egiten bada —programazioaren egokitzapenaren arloan, banako esku-hartzeko planaren garapenaren eta jarraipenaren arloan eta curriculumari lotutako materialaren eta edukien egokitzapenaren arloan—.

Ikasleak etxean dauden inguruabar honetan, hezkuntza-laguntzako espezialistek lankidetzan jardun beharko dute bitarteko digitalen bidez curriculumera erraz sartu ahal izan dadin irakasleen gidarekin eta laguntzarekin eta laguntza-zerbitzuen

aholkularitzarekin. Irakasle tutoreekin elkarlanean jarraitu beharko dute, ikasleen gaitasunen garapena errazten jarraitzeko bidean. Eskura dauden bitarteko digitalen bidez egin behar denez gero, lankidetza horrek estuagoa eta sortzaileagoa izan beharko du, baina, beti, profesional bakoitzak legez esleituta dituen eskumenen barruan.

Terapia okupazionaleko eta fisioterapiako profesionalen zereginaren helburua izango da hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleek zenbait arlo garatzeko izan ditzaketen oztopoak ezabatzea (mugitzeko gaitasuna, gorputz-jarrera kontrolatzea, autonomiarako trebetasunak garatzea eta curriculumera sartzeko trebetasunak garatzea). Ikasleak etxean egonik, beren lana birbideratu behar dute eta irakasle tutoreekin eta hezkuntza-premia berezietako aholkularitzekin lan egin behar dute, hezkuntza-jarduerak ikasle guztiengana irits daitezen, haien baldintza pertsonalak edozein izanik ere.

Ikasleen aniztasunari eman beharreko hezkuntza-erantzunak egokia izan behar du, eta egungo egoera ez da printzipio horretarako salbuespena —hezkuntzaren ikuspegi inklusiboarekiko koherentziaz—. Aitzitik, are premiazkoagoa da, espazioak partekatzen ez diren heinean eta eskola-ordutegi arruntaren mende ez dagoen heinean. Gainera, egin beharreko ikuskapena distantziaren baldintzapean dago. Horrenbestez, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituen ikasle bakoitzari zuzenduko zaion plana bideragarria izango da eta egungo premietara egokituko da.

Hartara, berariazko laguntza-premiak dituen ikasle bakoitzarentzako azterketa egin beharko da, irakasle tutoreekin, inplikatutako irakasleekin eta hezkuntza-langileekin koordinatuta. Azterketa horrek edukien eta jardueren arloko lehentasunak ezarriko ditu eta horiek gauzatzeko eta gainbegiratzeko orientabideak eskainiko ditu. Ikaslearekin zerikusia duten profesional guztiek parte hartu behar dute, eta zereginak banatu behar dituzte (profesional bakoitzaren gaitasunak kontuan hartuta). Ziurtatu beharko da inplikatutako ikasleek adostutako lan-ordutegi bat dutela, ordutegi hori antolatzeko jarraibideak dituztela, etenaldi aktibo antolatuak dituztela eta harremanari eusten zaiola —telefono bidez, bideo-deien bidez, posta elektroniko bidez, eta abar—. Hori guztia, beharrezkoa den ikuskapen-intentsitatearekin egingo da. Pentsa daiteke zenbat eta zailtasun handiagoak izan, orduan eta handiagoak izango direla laguntza-premiak eta handiagoa izango dela gainbegiratze jarraituaren premia.

Une honetan, eta inguruabarrak kontuan hartuta, are beharrezkoagoa da berariazko laguntza-premiak dituen ikasle bakoitzaren lan-planak berregokitzea, eta, zalantzarik gabe, etxetik ere laguntzea.

Arloko curriculuma egokitu zaien ikasleen kasuan edo curriculuma oro har egokitu zaien ikasleen kasuan, berriro pentsatu beharko dira aurreikusitako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak. Era berean, proposatutako jarduerak doitu beharko dira eta, ikaskuntzari dagokionez, eragin handiena izan dezaketen jarduerak, arrakasta ahalbidetzen duten jarduerak eta urrutitik errazago gainbegiratzea ahalbidetzen duten jarduerak proposatuko dira.

Doikuntza hori banako lan-plan bat duten ikasleen kasuan ere egin beharko da. Egungo ikaskuntza-ingurunean, helburuei eusten bazaie ere, jarduerak egokitu beharko dira, eta, horretarako, kontuan hartuko da kasu horietan familiek inplikazio handiagoa izan

beharko dutela jardueren garapenean eta jarduerak inplementatzeko laguntza jarraitua beharko dutela. Kasu horretan, beraz, orientabideak familiei zuzentzen zaizkie, gela egonkorretan eskolatutako ikasleen autonomia-maila oso mugatua izaten baita.

Irakasleek jada badituzte egokitze honi ekiteko behar dituzten baliabide didaktiko tekniko, analogiko eta digitalak. Horretarako, Berritzeguneen babesa jasoko dute eta aholkularitza bakoitzak Amarauna web semantikoan kokatu dituen material didaktikoak erabili ahal izango dituzte. Irakasle taldeak material horiek kasu bakoitzean aukeratu eta ezarri ahal izango ditu, ahalik eta gainbegiratze hurbilena eta sarriena ziurtatuz.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleentzako ordutegia egituratzean, eskola-laneko 20 minutu inguruko saioak eta, ondoren, ikasleengana gehien egokitzen diren eta haiei gehien gustatzen zaien jarduera fisikoko 10 minutuko saioak egitea gomendatzen da.

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6.era bitarteko ikasleek eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek denbora gehiago beharko dute eginkizunetan kontzentratzeko. Hortaz, arloz edo gaiz aldatzen dutenean atsedenaldi bat egitea gomendatzen da. Ordutegian, eskola-jardueraren hasiera-orduaz eta atsedenerako uneez gain, amaiera-ordua ere adierazi beharko litzateke. Etb3 katean 9:00etatik 12:00etara egunero ematen den “Bitartean etxetik ikasten” programa didaktikoa lagungarria izan daiteke gogoratu nahi dugu.

Ikasleen ohiko zailtasunak kontuan hartuko dituen eta, aldi berean, ikasten jarraitzeko arrakasta eta motibazioa emango dien ebaluazio-jardueraren batekin amaitu daiteke eskola-eguna.

Azkenik, kontsultak egiteko modu azkarrak eskaintzea komeni da, ikasleen konpetentzia pertsonalak eta familiak eskura dituen bitarteko teknikoak kontuan hartuz.

Eguneroko lanerako ohiturak ezartzen saiatu behar gara, alde batetik, ikasteko jarduerak eta ariketa fisikoko bloke txikiak gauzatzen laguntzeko, eta bestetik, ordutegiei, etenaldiei, ariketa fisikoari eta abar dagokienez familiek gainbegira dezaten laguntzeko.

Familiak irakaskuntzako eta hezkuntzako profesionalen funtsezko solaskideak dira. Telefonoz edo bitarteko digitalen bidez haiekin harremana beti beharrezkoa bada ere, une honetan ezinbestekoa da informazio- eta komunikazio-bide bat zabalik edukitzea, irakaskuntza-erlazio ez-pesentzialean lehentasunezkoak diren gaiak azpimarratzeko.

Familiek euren seme-alaben zailtasunen berri eman behar diete irakasle tutoreei, curriculumeko alderdi soiletatik haratago. Ikasleek hautematen dutenaz gain, familien ikuspegia ezagutzeak urrutitik ikasteko prozesuan etengabe egokitzeko prozesu horren barruan egon behar du.

Irakasleei aholkatzeko eta babesa emateko testuinguru horretan, Berritzeguneetako zuzendaritzek, etapako aholkularitzen edo beste aholkularitza batzuen eta hezkuntza-

premia berezien artean lantalde mistoak antolatuko dituzte, planteatutako gaiei erantzuteko jarduketa-esparru honetan. Halaber, IKT aholkularitzak funtsezkoak dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin harremana modu digitalean gauzatzen ari bada. Online bidezko hainbat baliabide erabiliz, erlazio hori ahalik eta eraginkorrena izateko aholkatu eta ideiak eman ahal izango ditu.

Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokionez, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak jasotzen ari diren arretari lotutako formularioak igorriko dira ikastetxe guztietara, ikastetxeen antolakuntzan eta barne-komunikazioko eta Berritzeguneekin koordinatzeko sistemetan azpimarratuz, ikasleei eta euren familiei arreta bermatzeko.

Horrenbestez, ikuskatzaile bakoitza, telefono bidez, astean behin gutxienez, bere erreferentziako ikastetxe guztiekin jarriko da harremanetan alderdi horien eta, bereziki, aurkitzen ari diren kezka, arazo edo gorabehera garrantzitsuen inguruko informazioa trukatzeko.

Azpimarratu behar da ikastetxe askok Bidelaguna indartze-programa badutela. Programa hori ezohiko egoera honetara egokitu beharko da bertan parte hartzen duten ikasleen mesederako.

9. IKASTURTE AMAIERAKO FUNTSEZKO ERREFERENTZIAK, ETAPEN ARABERA

HAUR HEZKUNTZA

Etapa hau arautzen duen Dekretuak etapa bera boluntarioa dela adierazten du. Hala ere, gure ikastetxeetan maila hauetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa handia dela kontuan hartuz, Haur Hezkuntzako helburuak lortzeko familiekin elkarlana sustatu behar dela gogoratzen da.

Une honetan lotura hori funtsezkoa da ikasturte honetako programazioetan aurreikusitako lanak eskolatutako haurren konpetentzien garapenean eragin dezan.

Familiei materiala etxean erabiltzeko banatzen dietenean, garrantzitsua izango da materialak zein esperientzia-esparrutan eragiten duen azpimarratzea. Norberaren identitatearen eraikuntzaren eta ingurumen fisiko eta sozialaren ezagutzaren esparrua (norberak bere burua ezagutzea, autoirudiaren eraketa eta autonomiaren garapena), edo norberaren nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta irudikapenaren esparrua (adierazpen linguistikoa, matematikoa, artistikoa eta mugimendu-adierazpena) izan daiteke.

Esku-hartze goiztiarrari eta haurren konpetentzien garapenean egon daitezkeen zailtasunak hautemateari dagokienez, arreta berezia ipini beharko da familiak helarazitako alderdi horien inguruko informazioaren bilketan.

LEHEN HEZKUNTZA

1. **Konpetentziei lotutako funtsezko elementuak**

Etapako helburuen erreferentzia kontuan hartu beharko da maila bakoitzean konpetentzien aurrerapenerako funtsezko edo ezinbesteko ikaskuntza mota definitzeko. Ikaskuntza horiek egiaztatzeko, ikastetxeari egokiak iruditzen zaizkion ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak, eta ebaluazio-prozedurak eta -tresnak hartu beharko ditu kontuan.

Hizkuntza-gaitasunei dagokienez, hizkuntza bakoitzeko ahozko testuak eta testu idatziak erabiliko dira. Etapa honetan, irakurketaren eta idazketaren ikaskuntzan eta garapenean ahalegin berezia egin behar da, baita irakurketa-prozesua pixkanaka sendotzeko ere; hortaz, irakurtzeko ohitura eta egindako irakurketen jarraipena bereziki landuko dira.

Dilemen edo zalantzen aurrean sortutako galderek eta arrazoitzeak ikasleen jarrera kritikoa lantzeko eta baloratzeko balioko dute.

Sortutako ahozko testuek eta testu idatziek hizkuntza bakoitzeko arauak zuzen erabiltzen ote dituzten egiaztatzeko balioko dute.

Laburpen idatziak, proposatutako gaiei buruzko idazlanak, ahozko azalpenak egitea edo telematikoki egindako galderei hitzez erantzutea gomendatzen da.

Matematikarako konpetentzia arlo honen berezko tresnen eta pentsamenduaren erabileratik landuko eta baloratuko da.

Problemen ebazpena oso lan-esparru egokia da. Bertan, problema ebazteko jarraituko den prozeduraren formulazioa zein egindako operazioen eta kalkuluen emaitza landu ahal izango dira.

Grafiko eta irudi soilen irudikapena eta interpretazioa ere funtsezko erreferentzia izango dira.

Zientziarako eta teknologiarako konpetentzian sistema eta fenomeno naturalak ezagutu eta interpretatu beharko dira, baita aplikazio zientifiko eta teknologiko azpimarragarrienak ere.

Ikasleek lan egin ahal izango duten ahozko testuen zein testu idatzien bidez, egoerak proposatuz giza jarduerak eragiten dituen aldaketak kontuan hartuz erabakiak modu arduratsuan hartzea baloratuko da.

Ikerketa txiki batzuk egingo dira eta zientzia-jardueraren eragina aztertu eta garatuko dira.

Azkenik, eta egungo egoera kontuan hartuz, ikasleek beraiek emandako edo proposatutako baliabide digitalak baloratu eta erabiliko dira.

Konpetentzia sozial eta zibikoa garatzeko eta baloratzeko, bizi garen gizartearen eta bere antolakuntzaren ezagutzaren adierazpena ingurune hurbilenetik hartuko da kontuan, giza ekintzak planteatzen dituen arazoekin loturik positiboki jarduteko ahalmenaz jabetuz. Atal honetan bizitzen ari garen ezohiko egoera testuinguruan jar

dezakegu eta horri lotutako proiektu motaren bat egin dezakegu.

Giza Eskubideak erreferente unibertsal gisa erabiliz, zailtasunak modu positiboan konpontzeko behar den konpromisoa eta jarrera solidarioa azpimarratu ahal izango ditugu.

Konpetentzia artistikoak eta mugimenduari lotuak funtsezko erreferenteak izan behar dute konfinamendu-garai honetan ekintza ludikoak, sormenezkoak eta fisikoak egiteko.

Mota askotako adierazpen artistikoak sortzea eta baloratzea, eta elikadurari eta ariketa fisikoari lotutako ekintza osasuntsuen jarraipena hiruhileko honetan lan egiteko funtsezko erreferentziak izango dira.

2.- Ebaluazioari lotutako funtsezko elementuak:

Zuzendaritza-taldeak irakasle taldeen lana koordinatuko du, behean zerrendatzen diren gaiei buruz erabakitzeko; erabaki horiek erreferentziazko ikuskatzaileak berrikusiko ditu:

- Ea hirugarren ebaluazioa egingo den edo, trukean, azken ebaluazio bat egingo den
- Ebaluaziorako eta maila igotzeko irizpideak eta adierazleak
- Proba motak, ikasleentzako lanak eta kontuan hartuko dituzten askotariko erregistroak
- Mailaka, espero zen sakoneraz landu ezin izan diren oinarrizko elementuak
- Egungo eta hurrengo mailako irakasle-taldeen arteko koordinazio-saioak, udako oporretarako eta irailerako errepaso- eta indargarri-proposamenak diseinatzeko, lan hori koordinatuta egin beharko baita. Arreta berezia jarri beharko da 6. mailako eta DBH 1eko irakasle-taldeetan, ikasleek ikastetxea aldatzen badute.
- Familiekin komunikatzeko moduak eta datak
- Zailtasun gehien dituzten ikasleentzako udako oporretarako indargarri-proposamen orokorrak eta zehatzak

Ebaluazioa egiteko aurreikusitako muga-egunak: ekainaren 22tik 26ra

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Etapako helburuen erreferentzia kontuan hartu beharko da maila bakoitzari dagozkion gaitasunetan aurrera egiteko funtsezkoa edo ezinbestekoa den ikaskuntza mota zehazteko. Ikaskuntza horiek irizpide eta adierazleen bitartez egiaztatu beharko dira, baita ikastetxeak egokitzat jotzen dituen ebaluatzeko prozedura eta tresnen bidez ere.

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentziari dagokionez, hizkuntza bakoitzean (euskara, gaztelania, atzerriko hizkuntza, latina) ahozko testuak, testu idatziak eta ikus-entzunezkoak erabiliko dira, ikaskuntza-prozesuei buruz gogoeta egiteko, eta eskuratutako ikaskuntzak autoerregulatzeko gaitasun propioan konfiantza adieraziz eskuratutako komunikazio-estrategiez baliatuz ezagutzak transferitzeko.

Planteatuko diren gaien inguruko galderek eta arrazoitzeak ikasleen jarrera kritikoa lantzeko eta baloratzeko balioko dute, baita irakaskuntza-erlazio ez-presentzialean errespetuzko eta lankidetzarako jarrera erakusteko ere.

Sortutako ahozko testuek eta testu idatziek hizkuntza bakoitzeko arauak zuzen, koherentziaz eta egoki erabiltzen ote dituzten egiaztatzeko balioko dute.

Laburpen idatziak egitea, proposatutako gaien inguruko idazlanak egitea, ahozko azalpenak ematea edo proposatutako gaiei ahozko erantzunak ematea proposatzen da, literatura-generoen oinarrizko konbentzioen ezagutza erabiliz.

Literatura-testuen ulermen partekatua egitea, testu horiekin disfrutatzea eta euren ondare- eta kultura-balioa ere gomendatzen dira.

Matematikarako konpetentzia arlo honetako tresna propioak eta pentsamendua erabiliz landuko eta baloratuko da, eguneroko bizitzatik eta beste zientzia batzuetatik ateratako problemak planteatzeko eta ebazteko kalkuluak eta balioespenak eginez.

Problemak ebaztea oso lan-esparru egokia da. Bertan, prozedura formulatzea eta ebazpen-prozesuaren justifikazioa landu ahal izango dira egoera berriei aplikatuz.

Baliabide grafikoak eta irudiak sortzea eta interpretatzea funtsezko erreferentzia izango da, eguneroko bizitzako egoerei buruzko informazioa ulertzeko, baloratzeko eta produzitzeko, eta emaitzak eta ondorioak modu koherentean aurkezteko.

Halaber garrantzitsua da inguratzen gaituen mundu fisikoa analizatzea eta ulertzea forma geometrikoen ezagutzaren bitartez (elementuak, erlazioak eta propietateak).

Jarduera profesionalari aplikatutako zientzietan, kultura zientifikoan, kimikan eta fisikan, eta geologian eta biologian garatzen den **zientziarako konpetentzian** ekosistemen eta giza organismoaren ezagutza zientifikoaren erabileran sakondu beharko da. Horretarako, fenomeno natural nagusiak interpretatzeko zein gure gizartean garapen eta aplikazio zientifiko azpimarragarrienak kritikoki analizatzeko kontzeptuak, printzipioak eta estrategiak erabiliko dira.

Ikasleek lan egin ahal izango duten ikus-entzunezko testuen, ahozko testuen zein testu idatzien bidez, egoerak proposatuta giza jarduerak eragiten dituen aldaketak kontuan hartuz erabaki arduratsuak hartzea baloratuko da. COVID 19aren pandemiak eragindako testuinguruan, sortzen ari den egoeraren ezagutza zientifikoari lotutako lanak egin ahal izango dira.

Hipotesiak egitean, datuak biltzean, emaitzak eta ondorioak ateratzean problema eta ikerketa koherenteak jorratuko dira, haiek baloratu eta komunikatu ahal izateko.

Mezu zientifikoak sortu beharko dira modu zehatzean komunikatzeko helburuarekin hizkuntza eta notazio- eta ordezkaritza-sistemak zuzen erabiliz.

Hainbat iturri erabiliz, jarrera aktiboa erakutsiz eta interpretazio kritikoa eginez, gai zientifikoei buruzko informazioa eskuratzea eskatu eta baloratuko da.

Teknologiaren, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez garatutako **teknologiarako konpetentzia**, hiruhileko honetan, inguruneko egoeren hobekuntzaren aurrean ekintzailetza lagunduko duten problema teknologikoak hautematean eta ebaztean oinarrituko da.

Esparru teknologikoko objektuen eta sistemen funtzionamendua ulertu beharko da eta haiek erabiltzeko eta kontrolatzeko modu egokiera erakutsi.

Mezuak sortu beharko dira, hizkuntza eta notazio- eta ordezkaritza-sistemak zuzen erabiliz, modu zehatzean komunikatzeko.

Segurtasuneko eta ergonomiako arauak hartuko dira kontuan.

Azkenik, eta egungo egoera kontuan hartuz, ikasleek beraiek emandako edo garatutako baliabide digitalak erabiltzea baloratu eta landuko da.

Historia eta Geografia, Ekonomia, ekintzailetza- eta enpresa-jardueran hastea, Balio etiko, Kultura klasiko eta Filosofiaren bidez garatutako **konpetentzia sozial eta zibikoaren** lana eta balorazioa finkatzeko, euskal gizarteko kideak bereizten dituzten ezaugarri kultural eta historikoen ezagutza hartuko da kontuan. Horretarako, euren ingurune fisikoa eta honen eragina bereizten duten oinarrizko elementuak identifikatuko dira, eta gertatzen diren gizarte eta ingurumeneko arazoekiko sentsibilitatea erakutsiko da.

Funtsezkotzat jotzen da ere hurbilen dagoen esparrutik hasi eta mundu zabaleraino gertakari historiko garrantzitsuak identifikatzea, denboran eta espazioan jarrera kritikoarekin kokatuz. Halaber, antolakuntza-egiturak eta gizartearen funtzionamendua ezagutzea ere funtsezkoa dela pentsatzen da.

Ekonomia-jardueraren oinarriak, terminologia eta oinarrizko magnitudeak eta hauek garrantzi txiki eta handiko eguneroko egoeratan duten eragina landuko dira, jarrera ekintzaile bat indartuz eta norberaren zein besteen konturako lan-jarduerari lotutako kasuak identifikatuz.

Egun dauden arazoen ezagutzan sakonduko da, gogoeta sustatuz, baita, hala badagokio, arazo horiek hobetzeko ekimenetan parte-hartzea ere.

Dimentsio morala landuko da banako diferentziak, pribatutasun-espazioa eta norberaren eta besteen ikuspegi doitua errespetatzeko.

Halaber, kultura klasikoaren dimentsioa landuko da, gertakari geografiko, historiko, sozial, politiko eta artistiko nagusiak ezagutuz eta haiek gure kulturan izan duten eragina balioetsiz.

Tresna intelektualak eta epistemiologikoak erabili eta balioetsiko dira filosofiaren baliabide espezifikoen bitartez, eguneroko egoerei ikuspegi kritiko-burutsutik ekiteko.

Datuak biltzeko eta komunikaziorako, Giza Eskubideak babesteko gaitasunak eta estrategiak erakutsi beharko dira, eta norberaren eta besteen ondarea baloratu eta errespetatu.

Arterako konpetentzia, hezkuntza plastikoaren, bisualaren eta ikus-entzunezkoaren bidez garatua; musika, arte eszenikoak eta dantza funtsezko erreferenteak izan beharko dute konfinamendu-garaian jarduera ludikoak eta sormenezkoak gauzatzeko, hizkuntza artistikoen teknika, baliabide eta konbentzio nagusien inguruan nahikoa ezagutza eta kontrola erakutsiz.

Ideien, sentimenduen eta bizipenen adierazpena eta komunikazioa landu eta baloratuko dira, arteak eta kultura ezagutzen, erabiltzen eta haietaz gozatzen laguntzeko arte-ondarearen adierazpenak errespetatuz eta baloratuz.

Arte-hizkuntzen eta ezagutzaren beste esparru batzuen arteko erlazioak ezagutuko dira, baita ikus-entzunezko eta komunikazioko hedabideekin ere.

Produktu artistiko propioak landu eta baloratu, baita proiektu artistiko bat gauzatzeko eta bertan parte hartzeko prozesuak ere.

Gorputz Hezkuntzaren bidez landutako **mugimenezko konpetentziak**, une berezi honetan, nutrizioaren eta ariketa fisikoaren inguruan ohitura osasuntsuak jarraitzeko balioko du. Ohitura horiek funtsezko erreferentziak izango dira hiruhileko honetan egingo den lanerako.

Jarduera fisikoak modu autonomoan planifikatzea, antolatzea eta praktikatzea landu eta baloratuko da.

2.- Ebaluazioari lotutako funtsezko elementuak:

Zuzendaritza-taldeak irakasle taldeen lana koordinatuko du, behean zerrendatzen diren gaiei buruz erabakitzeko; erabaki horiek erreferentziazko ikuskatzaileak berrikusiko ditu:

- Ea hirugarren ebaluazioa egingo den edo, trukean, azken ebaluazio bat egingo den
- Ebaluaziorako eta maila igotzeko irizpideak eta adierazleak
- Proba motak, ikasleentzako lanak eta kontuan hartuko dituzten askotariko erregistroak
- Mailaka, espero zen sakoneraz landu ezin izan diren oinarrizko elementuak
- Egungo eta hurrengo mailako irakasle-taldeen arteko koordinazio-saioak, udako oporretarako eta irailerako errepaso- eta indargarri-proposamenak diseinatzeko, lan hori koordinatuta egin beharko baita. Arreta berezia jarri beharko da 4. mailako eta Batxiler 1eko irakasle-taldeetan, ikasleek ikastetxea aldatzen badute.
- Familiekin komunikatzeko moduak eta datak
- Zailtasun gehien dituzten ikasleentzako udako oporretarako indargarri-proposamen orokorrak eta zehatzak.

Ebaluazioa egiteko aurreikusitako muga-egunak:

Amaierako ohiko ebaluazio: ekainaren 17tik 19ra

Amaierako ezohiko ebaluazioa: ekainaren 24tik 26ra

BATXILERGOA

Etapako helburuen erreferentzia kontuan hartu beharko da maila bakoitzari dagozkion gaitasunetan aurrera egiteko funtsezkoa edo ezinbestekoa den ikaskuntza mota zehazteko. Ikaskuntza horiek irizpide eta adierazleen bitartez egiaztatu beharko dira, baita ikastetxeak egokitzat jotzen dituen ebaluatzeko prozedura eta tresnen bidez ere.

Irakaskuntza hauen kasuan, jarraian, orientazio gisa, Unibertsitatean Sartzeko Batxilergoaren Ebaluazioan jasotzen diren gaiei lotutako konpetentziak proposatzen dira, besteak beste Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia, Konpetentzia Sozial eta Zibikoa, Matematikarako Konpetentzia, Zientziarako Konpetentzia, Teknologiarako Konpetentzia eta Arterako Konpetentzia.

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentziari loturik. Konpetentzia horren barne hartzen dira Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko lehen eta bigarren hizkuntzak, Latina, Grekoa eta Literatura unibertsala.

Konpetentzia hori garatzeko ahozko testuak, testu idatziak eta ikus-entzunezkoak erabili eta sortuko dira hainbat hizkuntzatan, bizitza sozialaren eta kulturalaren eta, bereziki, hezkuntza-esparruaren eta hedabideen testuingurutan haien ulermena baloratuz, bertako edukia modu kritikoan interpretatuz, komunikazio-egoera diferenteei zorroztasunez erantzuteko.

Ekoizpenen koherentzia eta hauek komunikazioko egoeratara eta helburutara nola egokitzen diren baloratuko da. Halaber, testuen analisirako eta iruzkinerako, eta beste hizkuntza eta gai batzuetan eskuratutako komunikazio-estrategiak eta ezagutzak erabiltzeko kontzeptu eta prozedura egokiak erabiltzen diren ere kontuan hartuko da, eskuratutako ikaskuntzak autoerregulatzeko norberaren gaitasunean konfiantza erakutsiz.

Testu-iruzkinak eta laburpen idatziak egitea, ahozko azalpenak ematea edo proposatutako gaiei ahozko erantzunak ematea proposatzen da, literatura-generoen oinarrizko konbentzioen ezagutza erabiliz.

Testu desberdinen irakurketa eta interpretazio eta balorazio kritikoa ere, euren izaera artistikoa osatzen duten elementuak identifikatuz eta kultur tradizioarekin lotuz.

Euskal Literaturaren eta Espainiar Literaturaren aldien, obren eta egile azpimarragarrienen ezaugarri orokorrak ezagutu beharko dira, baita erreferentziako literatura-testuenak ere, beste mundu eta kultura batzuk ezagutzeko eta sentsibilitate estetikoa garatzeko.

Hizkuntza bakoitzaren funtsezko gizarte- eta kultura-ezaugarriak ezagutu eta interpretatu beharko dira, estereotipoak eta judizio-balioak saihestuz, aberastasun eleaniztunarekiko eta kulturaniztunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa garatzeko.

Konpetentzia sozial eta zibikoari dagokionez, hainbat gairen bidez garatzen da Batxilergoko bi mailetan, adibidez, Espainiako historia, Filosofia, Mundu garaikidearen historia, Geografia, Filosofiaren Historia, Ekonomia, Enpresa-ekonomia, Administrazio eta kudeaketako oinarriak, Psikologia.

Konpetentzia hori emateko aukeretan gaiei lotutako funtsezko erreferentziek gertakari, prozesu eta protagonista garrantzitsuenen ezagutza eta adierazpen egokia eskatzen dute, esparru naturalen, politikoen, ekonomikoen, sozialen, teknologikoen eta kulturalen arteko erlazioak identifikatuz; era horretan, historiaren ikuspegi global, arrazoitu eta kritikoa lortzeko eta herritarrak hori azaltzeko oso faktore garrantzitsua direla ulertzeko.

Kontzeptuen adierazpena eta enpresa-ekonomian, geografian eta historian baliatutako terminoen eta tekniken erabilera, hizkuntza eta euskarri desberdinen bidez adierazitako informazioak analizatuz, alderatuz eta integratuz, eta ikerketa-lanak aitortuz eta eginez.

Gizartearen bizi-kalitatea eta ongizatea handitzea ahalbidetzen duten faktoreen erlazioa ikustea, euren disfuntzioen gainean zein garapen sozialean burutzen duten paper protagonistaren gainean judizio edo irizpide pertsonalak landuz, era horretan, ekintzailetzaren, enpresa-kulturaren eta enpresa publikoaren eta pribatuaren paperaren balioaren gainean irizpidea finkatu ahal izateko.

Gizarte garaikideen gaur egungo arazoak ezagutzea eta judizio pertsonal kritikoa eta arrazoitua lantzea, jarduketa eraginkorrak sustatuz. Hala, existitzen den pluralismoa errespetatuz, bizikidetza demokratikoa eta berdintasunezkoa ahalbidetuko dute, pertsonen —lurraldeen artean elkarri lotuta dagoen mundu batean— eta ingurumenaren arteko erlazioak hobetzeko.

Ikuspegi kritiko eta zuhurretik eguneroko egoerei aurre egiteko filosofiaren, tresna intelektualen eta epistemologikoen baliabide espezifikoak erabiltzea, eta gizarte-aldaketaren eragile potentzial gisa ulertzea.

Barne-koherentzian zein testuinguru historikoan, testu filosofikoak analizatuz, banako eta taldeko giza ekintza erregulatzeko arrazoiaren ahalmena hautematea, planteatzen dituzten arazoak identifikatuz, baita argudioak eta proposatutako soluzioak ere, tratatutako egileen pentsamendua zuzen azaltzeko eta euren ekarpen pertsonalak jasoko dituen iruzkin kritiko bat egiteko.

Jarrera kritiko arrazionala garatzea, teoria eta korronte filosofikoak alderatuz, euren koordenatu historikotan eta dagozkien kultur paradigmetan kokatuz, ikuspegi pertsonal batetik produktu eta fenomeno sozialak eta, bereziki, egungo mundukoak interpretatzeko eta baloratzeko.

Lan intelektual autonomorako oinarrizko prozedurak —adibidez, informazioa hainbat iturri eta euskarritan bilatzea eta aukeratzea, hura alderatzea, analizatzea, sintetizatzea eta bere gainean ebaluazio kritikoa egitea— zuzen erabiltzea, arazoak planteatzean zorroztasun intelektuala sustatuko duen taldean eztabaida arrazionala eginez, haietaz baliatzeko hainbat jarduera filosofikotan.

Matematikarako konpetentzia Matematiken eta gizarte-zientzietara aplikatutako Matematiken bidez garatzen da. Batxilergoan funtsezko erreferentziei dagokienez, matematikako problemak edo beste zientzia batzuei lotutakoak planteatzea eta ebaztea ere funtsezko praktika bat da. Horrek, gainera, IKT baliabideak ere erabili beharraz gain -fenomeno dinamikoak edo datu ugariren erabilera ulertzen erraztuz-, hauxe eskatzen du: hipotesiak egitea, estrategia bat baino gehiago erabiltzea,

ebazpen-prozesua arrazoituz, emaitzak interpretatuz eta justifikatuz, eta egoera berritara aplikatuz.

Arrazoibide arrazionala aplikatzea, egoera gatazkatsuen aurrean judizioak lantzeko eta erabakiak hartzeko metodo gisa, arrazoitze propioei zehaztasuna ematen eta besteen arrazoitzeak kritikoki analizatzen eta, era berean, jarrera malgua, irekia eta kritikoa erakusten.

Hizkuntza eta adierazpen matematikoaren berezko tresnak modu autonomoan eta sortzailean erabiltzea, matematikako terminoak, notazioak eta irudikapenak ulertuz eta erabiliz, norberaren pentsamendua argi eta modu koherentean esplizitatzeko.

Matematikak inguruneko egoera errealetan aplikatzen jakitea, eredu teorikoak (aljebrakoak, funtzionalak, estatistikoak eta probabilitatekoak) eta horiei lotutako edukiak erabiliz, gizarte-zientzien eremuko fenomenoak aztertu, interpretatu eta horiei buruzko aurreikuspenak egiteko, konpromiso pertsonaleko jarrerak aztertu, baloratu eta sustatzearren.

Matematiketako kontzeptuak, prozedurak eta estrategiak erabiltzea, adibidez, egiaztapena, datu-kontrastea, argudioen azterketa kritikoa, prozesuen zein emaitzen berrikuspen sistematikoa eta lanaren taldeko balorazioa, lan egiteko beharrezko eta ohiko era izan daitezen.

Konpetentzia zientifikoari dagokionez, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Anatomia aplikatua, Kultura zientifikoa eta Lur- eta ingurumen-zientzien bitartez lantzen da.

Oinarrizko eta zeharkako elementu gisa hauexek nabarmendu daitezke:

- Hartutako ezagutzak askotariko testuinguruetan erabiltzea, zientziek teknologia, gizarte eta ingurumenarekin dituzten harremanak eguneroko egoeretan aztertuz, gizateriak aurrean dituen tokiko zein munduko arazoetan oinarritutako erabakiak sustatuz eta, hartara, gizateriarentzat etorkizun jasangarria eta gogobetegarria eraikitzeko.
- Arazoak identifikatu, planteatu eta ebaztea eta ikerketa txikiak egitea, banaka zein lankidetzan arituz, zientzietako berezko estrategiak gero eta autonomia handiagoaz baliatuz, zientzia- eta gizarte-intereseko eguneroko egoerei kritikoki eta testuinguruan heltzeko, frogetan oinarritutako erabaki arduratsuak hartzearren.
- Terminologia egokia eta askotariko euskarri eta baliabideak (analogikoak zein digitalak) baliatuz, informazio zientifikoa bilatu, interpretatu eta adieraztea, zientzia, teknologia eta gizarteko gaiez zehaztasunez, arrazoibidez eta kritikoki komunikatzeko.
- Kontzeptuak, teoriak eta eredu garrantzitsu eta orokorrak ezagutzen gorputz koherenteetan harremanetan jartzeko azalpen-eskemak eraikitzea, sistema garrantzitsuenen interpretazioan autonomiaz erabiltzeko, dela testuinguru zientifikoetan, dela eguneroko bizitzaren testuinguruan, eta zientziako adar horien garapenaren ikuspegi global bat izateko.

- Hipotesi eta teoria kontrajarriak aztertu eta konparatzea, giza ezagutzaren bilakaeran eztabaida zientifikoek egindako ekarpenak baloratuz, pentsamendu kritikoa garatzeko, pertsonen prestakuntza integralean zientziaren kultura-dimentsioari erreparatzeko eta gizartean zein ingurumenean zientziak dituen eraginak baloratzeko.

Teknologiaren konpetentziari dagokionez, marrazketa teknikoaren, teknologia industrialaren eta IKTen bitartez garatzen da. Oinarrizko alderdiei dagokienez, berriz, terminologia, marrazketa teknikoaren berezko instrumentuen ezagutza eta erabilera egokia nabarmentzen da, askotariko irudikapen-arazoei emandako soluzioak helarazi eta argumentatzeko.

Ebazpen eta eraikuntza grafikoko prozesuak eraginkortasunez adierazten jakitea, kontuan hartuz soluzio grafikoen zehaztasuna, argitasuna eta objektibotasuna, ideia eta informazioak egoki komunikatu, helarazi eta interpretatzeko.

Espazioko problema geometrikoak ebaztean eta planoan hiru dimentsioko formak irudikatzean, askotariko adierazpide-sistemak ezagutu eta erabiltzea.

Krokis, zirriborro eta oharrak soluzioen diseinu- zein bilaketa-prozesuetan ezin besteko elementuak direla identifikatu eta baloratzea, irudikapenetan trebezia eta abiadura, eta adierazpen grafiko egokia lortzeko.

Banaka zein taldean, edozein konstrukzio geometriko planifikatzea eta hori egiteko prozesuaz gogoeta egitea.

Konpetentzia artistikoa, ikasgai hauexen bitartez landua: Artearen oinarriak, Ikus-entzunezko kultura, Marrazketa artistikoa, Marrazketa teknikoa, Diseinua, Artearen historia, Bolumena, Analisi musikala, Arte eszenikoak, Musika-hizkuntza eta -praktika, Musikaren eta dantzaren historia, Irudia eta soinua, eta Adierazpen grafiko eta plastikoko teknikak.

Mendebaldeko kulturako arte-estilo nagusiak eta artista nabarmenduen lan garrantzitsuak ezagutu, aztertu eta karakterizatzea, gizarte- eta historia-testuinguruarekin horiek duten harremana identifikatuz, artearen funtzioek historian izandako bilakaera ulertu eta baloratzeko.

Informazioa askotariko iturrietan oinarrituz arakatu eta lortzea, eta artelanak forma, funtzio eta esanahi mailetan aztertzeko analisi-metodoak erabiltzea, askotariko arte-adierazpenak aztertu eta interpretatzeko egiten duten ekarpena baloratuz.

Hala artista gisa nola irudikapeneko subjektu gisa emakumeei Artearen historiak emandako tratamendua begi kritikoz baloratzea, emakumeen arte-ekarpenaren garrantzia aitortuz.

Arte-sentsibilitatea, irudimena eta zentzu kritikoa garatzea, diseinuari eta arte-sorkuntzei begira nork bere sentimenduak eta ideiak adierazteko gizarteratze-ohiturak hartzea, sozialki inplikatuz eta arte-ondarea disfrutatuz eta baloratuz.

Diseinu-jardueraren oinarrien funtsa, haren jatorria eta bilakaera ulertzea, ingurunean eta kultura garaikidean eragiteko duen gaitasunaz jabetzeko, diseinuko objektuen eta horiek moldatzen dituen testuinguruaren arteko harremana agerian utziz eta, hartara, diziplina hau gizakiaren bizi-kalitatea hobetzeko erreferentziatzat hartuz.

Diseinuaren proiektu-dimentsioa behar bezala baloratzea, prozesuak eta haren aplikazio praktikoak duten garrantzia ulertuz; horrek balioko du eraketa formalerako prozesu ireki eta sistematiko bat egituratzeko eta diseinuko oinarrizko problemak behar bezala ebazteko, prozesu sistematiko eta malguak aplikatuz, diseinu-lanak asmatu, proiektatu eta aurkezteko eta, hartara, sormen-gaitasunak, jokabideak eta ezagutzak helburu jakin batera bideratzeko.

Baliabideak eta erremintak eraginkortasunez erabiltzea, euskarri, material, instrumentu eta teknologien sorta zabal bat eta horietatik atera daitezkeen ondorioak (pertzepzio, eraketa, sorkuntza edo bestelakoak) askatasunez baliatzearen bidez zuzeneko esperientzia aberastuz; era horretan, askotariko proiektuek dituzten adierazpen- eta komunikazio-baldintzekin bat datozen adierazpide-sistema eta -teknika desberdinak kontrolatu eta aplikatu ahal izango dira.

Arte eszenikoetako oinarrizko kontzeptuak askotariko adierazpen-prozesuak aztertuz eta praktikatuz ulertzea, bizipenean oinarritutako ezagutza sendo bat hartzeko eta adierazpide eszenikoko zein ikuskizuneko askotariko formen oinarrizko ezaugarriak identifikatzeko.

Banakako zein taldeko lanaren bitartez, arte eszenikoetako berezko askotariko lengoaiak eta kodeak esperimentatu eta ikertzea, adierazpen-, sormen- eta komunikazio-gaitasunak landu eta hobetzeko.

Ekintza eszenikoa sortu, birsortu eta interpretatzeko askotariko formak zorroztasun artistikoz eta koherentzia estetikoz identifikatu eta erabiltzea, era guztietako ikuskizun eszenikoak diseinatzen, ontzen eta jokatzen ekimenez parte hartzeko, askotariko rol, zeregin eta erantzukizunak hartuz.

2.- Ebaluazioari lotutako oinarrizko elementuak:

Zuzendaritza-taldeak irakasle taldeen lana koordinatuko du, behean zerrendatzen diren gaiei buruz erabakitzeko; erabaki horiek erreferentziazko ikuskatzaileak berrikusiko ditu:
Ea hirugarren ebaluazioa egingo den edo, trukean, azken ebaluazio bat egingo den

- Ebaluaziorako eta maila igotzeko irizpideak eta adierazleak
- Proba motak, ikasleentzako lanak eta kontuan hartuko dituzten askotariko erregistroak

- Mailaka, espero zen sakoneraz landu ezin izan diren oinarrizko elementuak
- Egungo eta hurrengo mailako irakasle-taldeen arteko koordinazio-saioak, udako oporretarako eta irailerako errepaso- eta indargarri-proposamenak diseinatzeko, lan hori koordinatuta egin beharko baita. Arreta berezia jarri beharko da 6. mailako eta DBH 1eko irakasle-taldeetan, ikasleek ikastetxea aldatzen badute
- Familiekin komunikatzeko moduak eta datak
- Zailtasun gehien dituzten ikasleentzako udako oporretarako indargarri-proposamen orokorrak eta zehatzak

Batxilergoko 1. eta 2. mailak ebaluatzeko aurreikusitako muga-egunak:

Ekainaren 1etik 16ra: aste ez-presentzialetako edukirako laguntza espezifikoa, egoera txarrena gertatuz gero (klase presentzialei ekainaren 1ean berrekitea).
Ohiko azterketak: ekainaren 17tik 19ra.
Ezohiko azterketak: ekainaren 24tik 26ra.

Batxilergoko 2. mailarako, EHUren aplikazioan batez besteko nota sartzeko muga-eguna: ekainaren 25a.
Ohiko Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa: uztailaren 6tik 8ra.
Ezohiko Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa: uztailaren 20tik 22ra.
Unibertsitaterako sarrera-probari dagokionez, ebaluazio-irizpideak eta probak berrikusi eta egokitzen ari dira une honetan, eta aste honetan bertan ikastetxeei bidaliko zaie informazioa.

ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK

Araubide Arrunteko Irakaskuntzetan gertatzen den bezala, irakaskuntza hauetarako, askotariko eszenategiak aurreikusi dira, eta oso askotarikoak diren irakaskuntza hauen berezitasunen arabera egin beharko dira egokitzapenak.

ID ARTE

Goi Mailako Arte Irakaskuntzen berezitasunak.

238/2012 Dekretuak Goi Mailako Arte Irakaskuntzen Diseinurako konpetentziak ezartzen ditu, hala zeharkakoak nola orokorrak. Zeharkako konpetentzietan, gaitasun hauexei jartzen zaie arreta: lana antolatu eta planifikatzea; problemak ebatzi eta erabakiak hartzea; diziplinarteko eta askotariko kultura-testuinguruetako lantaldeetan sartzea; lantaldeetako lider aritu eta horiek kudeatzea; era autonomoan lan egitea eta lanbidean jardutean ekimena eta ekintzaile-gogoaren garrantzia baloratzea.

Ikasketa horiek karga teknologiko handia dute, eta urruneko lana ez da berria, ohiko praktika profesionala baizik. Lanbide horren aterabidea izan daiteke estudio eta agentzietan sartzea edo norbere kabuzko lana eta ekintzailetza.

Proiektukako ikasketan oinarritutako irakaskuntzak direnez, proiektuen enuntziatuak eta jarraipeneko metodologiak urruneko irakaskuntza-sistema berri honetara egokitzen dira, araudian jada azaldutako konpetentziak aldatu beharrik gabe.

Arte Plastikoetako heziketa-zikloen berezitasunak

Titulu hauen testuinguru profesionalak ezartzen du Arte Plastikoetako eta Diseinuko profesionala gai izan behar dela bere lan espezifikoa egiten duen diziplinarteko lantaldeetan sartzeko, enkarguak jasotzeko edo/eta bere kabuz lan egiteko. Horrek guztiak, lan profesional horrek bereak dituen ezagutza teknikoez gain, eskatzen ditu kudeaketa-gaitasuna eta laneko antolakuntza, autonomia eta ekimena izatea.

Ikasketa horiek karga teknologiko handia dute, eta urruneko lana edo/eta lan autonomoa ez da berria, ohiko praktika profesionala baizik.

Proiektukako ikasketan oinarritutako irakaskuntzak direnez, proiektuen enuntziatuak eta jarraipeneko metodologiak egokitzen dira urruneko irakaskuntza-sistema berri honetara, araudian jada azaldutako konpetentziak aldatu beharrik gabe.

Ebaluazioa:

Une hauetan, ikasleak internet bidezko prestakuntza jarraitzen ari dira, eta aurreikusi da osasun-agintariek baimentzen duten unean **irakaskuntza presentzialera itzuliko garela.** Edonola ere, hala balitz eta datek uzten badute, ikasturteko egutegian aurreikusi bezala eutsiko zaie ebaluazioetarako data guztiei eta praktikei.

Goi-mailako ikasketak:

Ohiko probak ekainaren 1etik 5era.
Ezohiko probak ekainaren 15etik 19ra.
Ikasketa-amaierako lana ekainaren 22tik 26ra aurkeztuko litzateke.

Goi-mailako heziketa-zikloak:

1. maila:

Ohiko probak ekainaren 8tik 12ra.
Ezohiko probak ekainaren 15etik 19ra.

2. maila

Irakas-denbora apirilean amaitu da, eta praktikak geratzen dira egiteke. **Bost aste horiek konfinamendu-aldia amaitutakoan hasiko dira.**

Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko probak (ID ARTE)

Goi Mailako Arte Irakaskuntzetara sartzeko probak **ID arte**n egingo dira Euskal Autonomia Erkidego osorako. Proba hori **ekainaren 6an** egitea proposatu da. Irakaskuntza horietara sartzeko, batxilergoko titulua edo baliokidea izan behar da matrikula egiten den unean. Beti Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioaren ondoren egin da deialdia, baina egoera ikusita, probak Batxilergoko 2. maila amaitu gabe ere egiteko aukera aztertzen ari da.

Ohiko probak 100dik gorako hautagai kopurua izan dezake eta, beraz, hala balegokio, osasun-segurtasuneko jarraibideak hartu beharko lirateke kontuan.

Matrikula, berriz, gero egingo litzateke, uztailean.

Arte Plastikoetako goi-zikloetara sartzeko probak

Diseinuko Goi Mailako Arte Irakaskuntzetarako bezala jokatu beharko litzateke. Alegia, sarrera-proba **ekainaren 6an** egingo litzateke.

Arte Dramatiko eta Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko probak. DANTZERTI

Hurrengo 2020-2021 ikasturterako sarrera-probetarako izena emateko epea apirilaren 20tik maiatzaren 22ra zegoen aurreikusita, baina alarma-egoera dela eta, apirilaren 27tik maiatzaren 26ra egingo da. Proba hori **uztailaren 15etik 18ra** egingo da eta, horretarako, jada argitaratutako Ebazpena aldatuko da.

Goi-mailako musika-irakaskuntzaren berezitasunak. MUSIKENE

Bertan behera utzi dira maiatza eta ekaineko **kontzertu eta kanpo-jarduera** guztiak. Uztail eta abuzturako aurreikusitakoei buruz, gero egingo da balorazioa, gertaerak nola doazen ikusita.

Jarduera intentsiboen astea (maiatzaren 18tik 24ra). Bertan behera utzi dira jarduera guztiak, Konposizio Tailerra izan ezik, internetez egiteko ahalegina egingo dena. Aste hori, beraz, ikasturte-egutegiko irakas-aste normal bat izango da, eta batez ere interneteko irakaskuntzara egokitutako aldian egin ezin izan diren klaseak berreskuratzeko erabiliko da.

Ebaluazioa:

Ikasgai guztiak ebaluatzeko, etengabeko ebaluazioa baliatuko da, ikasturte-hasieratik maiatzaren 31 arte, baita ikasturte osoan egin izan diren entzunaldi, azterketa edo lanen ebaluazioa ere.

Aste intentsiboetako jarduerak eta orkestra-ikasketak. Jarduera horiek egin ezin direnez, ebaluaziorako, etengabeko ebaluazioa eta martxoaren 14an egindako kontzertuak baliatuko dira (egun horretan eman zen Alarma Egoerako dekretua).

Ikasturteko honetarako, erabaki da ikasketa-amaierako azterketak bertan behera uztea. Era horretan, segurtatu egingo da ikasleak **dagokion espezialitateko irakasleek ebaluatzea etengabeko ebaluazioaren, otsaileko azterketen, entzunaldien eta ikasturteko beste jarduera batzuen bitartez.**

Ikasketa Amaierako Lana: luzatu egin da lan hori emateko epea, hala zirriborroarena nola behin betiko lanarena, eta telematikaz ebaluatuko da.
Zirriborro osoa emateko: apirilaren 27tik maiatzaren 7ra.
Behin betiko Ikasketa Amaierako Lana emateko: maiatzaren 25etik ekainaren 8ra.
Defentsa: ekainaren 24tik 30era, grabatutako bideo baten bitartez.

Master Amaierako Lana: luzatu egin da lan hori emateko epea, hala zirriborroarena nola behin betiko lanarena.
Zirriborro osoa: maiatzaren 29tik ekainaren 8ra.
Behin betiko Master Amaierako Lana emateko: maiatzaren 10etik ekainaren 22ra.
Defentsa: Orkestra Ikasketen Masterraren kasuan, grabatutako bideo bidez, uztailaren 3an; Jazz Masterrean, berriz, kontzertuaren zatia, ekainaren amaierako egunetan, eta idatzitako lana, uztailaren 3an.

Masterreko ikasleentzako proiektuak eta kanpoko praktikak.

Horiek egin daitezkeen data bat arte atzeratuko dira. Master bakoitza banaka aztertuko da, eta dagokien ikasleei jakinaraziko zaie. Jokabide hori Interpretazio eta Sormena Masterretako ensembleei ere eragingo die.

Sarrera-probak

Izena emateko epeak martxoaren 16tik maiatzaren 27ra bitartekoak ziren. Izena emateko epea lehenbailehen ireki nahi da, on-line egin badaiteke, eta dagokion denbora luzatu alarma-egoeraren ondoren, **ekainaren 8ra arte**.

Probak egiteari dagokionez, **ekainaren 15etik uztailaren 3ra** bitartean egitea aurreikusi du Musikenek. Gainera, sailetan sarbide-proba espezifikoen egitura sinplifikatua landuko da.

Eutsi egingo zaio irakaskuntza profesionaletako nota-kalifikazioa emateari, 631/2010 Errege Dekretuan eta 2020ko otsailaren 3ko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren Ebazpenean arautu bezala.

Klasiko eta Jazz Interpretazioko Sailetan eta Pedagogiakoan **ez da bideragarritzat jotzen** sarrera-proben A zatia internetez edo aurrez aurre egitea. Sail horietako gainerako probetarako eta Konposiziorako zein Zuzendaritzarako **bestelako formula**

batzuk aztertuko dira. Formula horiek sail bakoitzean aztertuko dira, horietako bakoitzaren berezitasunei erreparatuz, eta albait lasterren plazaratuko dira jendaurrean ezagutzera emateko.

Bukatzeko, jarduera presentzial bat egiteko aukera kontuan hartuko da, baldin eta ikasketa-jarduerara pixkanaka itzultzeko plangintzaren testuinguruan egiterik badago.

Hizkuntzen irakaskuntzaren berezitasunak. HIZKUNTZA-ESKOLAK

Hizkuntza Eskola Ofizialek urteak daramate material didaktikoak eta metodologia berritzaileak garatzen eskaintza erdi-presentziala ezartzeko, orain arteko presentzial hutsaren osagarria. Eskaintza hori eskola gutxi batzuetan eman da, eta gutxi horiek probatu dituzte, hain zuzen, askotariko materialak. Hala ere, irakasle guztiek eskuratu ahal izan dute material horiek erabili eta sortzeko eta irakaskuntza birtualeko plataformetan ezartzeko prestakuntza. Esperientzia hori baliagarria izan da agindutako alarma-egoera ikasleen ikasketa-prozesuan eragozpen konponezina bihur ez dadin; izan ere, Moodle plataforma sortua zen ordurako, eta hura zabaldu eta edukiz aberastu beste ezer ez da egin behar izan.

Bestetik, ebaluazioei dagokienez, gogora ekarri behar da hizkuntza-eskolan maiatz erdialdera bukatzen dela ikasturtea (ikasturte/hizkuntza bakoitzak 120 klase-ordu ditu) eta, beraz, ikasturtearen bi heren eman zituztela. Hala, 15 egunetik aurrera, ahozko eta idatzizko probei ekingo zaie, betiere gogoan hartuz, jakina, osasun-agintariek gune itxietan pertsonak biltzeari buruz ezarriko dituzten murrizketa guztiak.

Konfinamendua maiatzaren 14a baino lehen amaitzen bada, ez da aldaketarik izango aurreikusitako epeetan. Klaseak maiatzaren 14an amaituko lirateke, eta 15ean izango lirateke hastekoak azterketak.

Lehen deialdi ofiziala maiatzaren 15etik ekainaren 30era egingo da; izan ere, hizkuntza eta maila desberdinetarako egiten dira deialdiak, eta askotariko probak horietako bakoitzerako.

Gogora ekarri behar da ikasle ugarirentzat dela probetarako deia eta, beraz, egiaztatu behar izango dela beste urte batzuetan bezala egin ote daitekeen edo gune gehiago eta talde txikiagoak aurreikusi behar ote diren; ondorioz, aldaketak gerta daitezke probak zuzentzeko epeetan.

Hala ere, osasun-egoera dela eta, hori ezinezkoa bada, ahozko azterketekin has liteke, eta idatzizko azterketak **ekain hasierara atzeratu ofizialentzat eta libreentzat**. Zuzenketak uztaileko lehen hamabostaldi arte luzatuko lirateke.

Ekainean, konfinamendu-aldia artean indarrean balego, idatzizko azterketak, ofizialak zein libreak, irailera pasako lirateke, eta bertan behera utziko litzateke ezohiko proba.

Libreen ahozko probak irailean egingo lirateke, idatzizko proben ondoren.

Ikusita emaitzen argitalpena atzeratu daitekeela eta, ondorioz, matrikulazio-prozesuari eragin diezaiokeela, 2020/21 ikasturtea astebete edo bi berandu has daiteke eta, beraz, 2020/21 ikasturtea ere neurri berean luzatuko litzateke, 120 ordu eman ahal izateko.

Goi-mailako irakaskuntza profesionalen berezitasunak. MUSIKA-KONTSERBATORIOAK

Irakaskuntza hauetan matrikulatutako ikasleek araubide orokorreko irakaskuntzak ere egiten dituzte eta, ondorioz, beste ikasketa horien arabera diseinatu ohi da kontserbatorioetako egutegia.

Kasu honetan, osasun-agintariek irakaskuntza presentziala baimenduko balute, ebaluaziorako datak egokituko lirateke, eta oinarrizko mailetako ebaluazioak profesionalen 4. maila arte egin ahal izango lirateke, ekainaren 5ean dauden bezala, eta profesionalen 5 eta 6. mailak, berriz, ekainaren 17an beranduenera. Betiere, hori guztia irakaskuntza presentzialera itzuliko garela zehazten denean berretsi beharko da, hala gertatzen bada.

Musikako irakaskuntza profesionaletarako sarrera-probak. Kontserbatorioak

Sarrera-probak ekainaren 10etik 30era egin ohi dira, eta datengatik eta ikasle kopuruagatik pentsatzen da ez dela arazorik izango. Izena maiatzaren 1etik 15era eman behar da internetez.

Kirol-irakaskuntzen berezitasunak. KIROLENE

Kirol Irakaskuntzetan, ez dago helburuak, emandako edukiak edo ebaluazio-irizpideak egokitu beharrik (alegia, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan agertzen diren helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak), eta modalitate/espezialitate guztien araubideetan, normaltasunez betetzen ari zira zentro honetan.

Irakaskuntza hauek emateko araubidea erdi-presentziala da eta, alarma-egoera dela eta, sistema osoa irakaskuntza ez-presentzialera eraman da, alegia, teknologian egin da egokitzapen bakarra, aurrez aurreko klaseak eta ebaluazio-prozedurak modalitate telematikora bideratuz, guztia ere Moodle plataforma erabiliz.

Prestakuntza praktikoko moduluari dagokionez, prestakuntza praktikoko moduluaren berezko sorkuntza-inguruneetako egonaldiaren ordez, kirol-laneko edo -ariketako benetako egoerei lotutako jardueren proposamen bat egin ahal izango da.

Ebaluazioari dagokionez, atal ez-presentziala Moodle bitartez egingo da, ohi bezala (banakako ebaluazioa). Azterketen datak eta orduak modalitate/espezialitate bakoitzeko ikasleen gidan agertzen dira.

Atal presentzialeko beharrezko proiektua ebaluatzeko, **defentsak** telematikaz egingo dira, Meet aplikazioa erabiliz. Epaimahaiak aurrez daude osatuta, eta aplikazio berbera erabiliko dute ikasleak eta irakasleak konektatzeko eta proiektua ebaluatzeko.

Kirol Irakaskuntzetarako sarrera-probak

Sarrera-proba espezifikoetan, izena emateko epea eta matrikulatzeko epea luzatzea aurreikusi da, gutxienez ekain erdialde arte; osasun-baldintzek uzten badute, probak ekain amaieran edo uztail hasieran egingo lirateke.

Irakas-denbora apirilean amaitu da, eta praktikak geratzen dira egiteke. Bost aste horiek konfinamendu-aldia amaitutakoan hasiko dira.

10.- IKASLEEN EBALUAZIOA IKASTURTE AMAIERAN

Covid-19 osasun-larrialdiak ikastetxeetan eragindako egoerak baldintzatu egin du ikasleen irakatsi eta ikasteko prozesuen garapena, eta irakasle taldeak behartu ditu irakaskuntza-jarduera planifikatzeko, jarduera didaktikoak garatzeko eta ikasleen jarraipena egiteko neurriak bultzatzera, ikastetxeetan irakaskuntza-jarduera presentziala eten zen unera arte erabiltzen ari zirenez oso bestelakoak.

Irakasle-taldeek ebaluazio-prozesuari eta ikasleen amaierako kalifikazioari aurre egitea planteatzen duten unean, **beharrezkoa da 2019-20 ikasturterako planifikatutako curriculumaren funtsezko alderdiak zehatz-mehatz berrikusi eta identifikatzea**, horietan **arreta jartzeko eta sakontzeko** eta, horrela, hurrengo ikasturterako ikaskuntza-prozesuaren jarraitutasunean arrakasta bermatzeko. Funtsezko alderdi horiek erreferentzia izango dira ebaluatu eta kalifikatzeko prozesuan.

Ikasturte honetan eman diren inguruabar bereziek baldintzatu egingo dituzte lortu ez diren helburuak ebaluatzeko, kalifikatzeko, mailaz igotzeko eta berreskuratzeko prozesuetan erabiltzen diren prozedurak eta erreferentziak.

1.- Ikasleen ebaluazioa

Ebaluatzea prozesu sistematikoa, jarraitua eta konplexua da, eta informazioa biltzea, aztertzea eta baloratzea eskatzen du, hobekuntza lortzeko. Ikasleen lorpenak eta ikaskuntzak aztertzea eta baloratzea da helburua. Gaitasunen garapenaren balorazioa barne hartzen du (ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzea, trebetasunak, gaitasunak, abileziak, jarrerak) ikaskuntza-prozesu osoan.

1.1.- Ezaugarriak:

Gure hezkuntza-sistemako irakaskuntzen ebaluazioan, ezaugarri komunak dira **indibidualizatua, jarraitua, globala eta prestatzailea izatea**, hezkuntza-etapetako curriculumak ezartzen dituzten dekretuetan zehazten denez.

Haur Hezkuntzan, ikasleen gaitasunen ebaluazioa globala, jarraitua eta prestatzailea izango da, eta kontuan hartuko du ikasleak curriculumaren esparru guztietan egin duen aurrerapena, oinarrizko gaitasunei dagokienez.

Hala, ebaluazio-prozesuetan kontuan hartuko da ikasleak curriculumeko esparru/arlo edo ikasgai guztietan **egindako aurrerapena**, curriculum-dekretuetan jasotako oinarrizko gaitasunei dagokienez, baita ikasturte honetan irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatu den egoera berezien ondorioz helburuak, lorpen-adierazleak eta edukiak egokitzeari dagokionez ere.

Ebaluazioa prestatzailea izango da, eta bai irakasteko prozesuak, bai ikasteko prozesuak hobetzeko tresna izango da.

1.2.- Ebaluazio-erreferentziak

Ezaugarri horiek betetzen dituen ebaluazioak erreferentzia argiak behar ditu, abiapuntua oinarri hartuta, jarraitu beharreko bidea eta lortu beharreko helmuga ezartzeko.

Helburu horiek gure erkidegoko curriculum-dekretuetan jasota daude, baina ikastetxe bakoitzean egokitu egin behar dira bere testuinguru zehatzera, eraginkorrak izateaz gain, bidezkoak, ekitatiboak eta inklusiboak ere izan daitezen.

Euskal Eskola Publikoaren Legean ezarritako ikastetxeen autonomia pedagogikoarekin bat etorriz, ikastetxe bakoitzari dagokio prestakuntza-helburu horiek zehaztea bere curriculum-proiektuetan eta ikasgelako programazioetan.

Curriculumaren zehaztapen hori ikasleen eta testuinguruaren ezaugarrietara egokitu behar da, eta, baita ere, une bakoitzeko inguruabar zehatzetara. Esparru horretan, ikasturte honetan kontuan hartu behar dira curriculumaren hezkuntza-garapenaren izan diren inguruabar bereziak, eta, zehazki, **argi finkatu behar dira ikasturte bakoitzean gainditzea espero den gutxieneko alderdiak**.

Hala, ikastetxe bakoitzean, dagokion irakasle taldeak edo sail didaktikoak lehentasuna emango die ikaskuntzaren helburuei eta/edo horiek egokituko ditu curriculuma emateko egungo inguruabarretara.

Etapako helburuen erreferentzia kontuan hartu beharko da maila bakoitzari dagozkion gaitasunetan aurrera egiteko funtsezkoa edo ezinbestekoa den ikaskuntza mota zehazteko. Ikaskuntza horiek irizpide eta adierazleen bitartez egiaztatu beharko dira, baita ikastetxeak egokitzat jotzen dituen ebaluatzeko prozedura eta tresnen bidez ere.

Maila bakoitzean zehatz **finkatu** behar da zein diren gaitasun-mailak, edukiak eta funtsezko prozedurak, hau da, **horiek eskuratu dituen ikaslea hurrengo mailara sartzeko** moduan dagoela ziurtatzeko ezinbestekoak direnak.

Aurrekoari dagokionez, EAEko ikastetxeak egoera hauetakoren batean egon daitezke:

- Beren autonomia pedagogikoa baliatuz, beren jarduerak birprogramatzeko aukera izan duten ikastetxeak: ikasgelako programazioak eguneratu dituztenak eta unitate didaktikoak, proiektuak edo ikaskuntza-egoerak berrikusi dituztenak, ikastetxearen Curriculum Proiektuan dagokion mailarako eta arlo edo irakasgairako finkatuta dauden ezinbesteko gutxieneko helburuak lortzeko irizpideari jarraituz.
- Beren konplexutasun-egoera dela-eta, aurreko paragrafoan adierazitako zentzuan birprogramatzeko aukerarik izan ez duten ikastetxeak.

Nabarmendu behar da ikastetxeek prozedurak ezarri beharko dituztela hezkuntza-etapa guztietako ikasleek eta haien familiek egokitzapen eta/edo aldaketa horiek ezagutuko dituztela bermatzeko, eta argi eta garbi **jakinarazi** beharko dutela zein diren **lorpen-adierazle berriak**, **ikasturte honen azken ebaluazioan** kontuan hartuko direnak.

Ikastetxeetako irakaskuntza-jarduera presentziala 2020ko martxoaren 12an eten zen. Data horretan, ikastetxe gehienek bigarren ebaluazioan ebaluatu beharreko irakatsi eta ikasteko prozesuaren berezko jarduerak egin zituzten. Aipatutako datan eskola-egutegiaren 2/3 inguru garatu zela kontuan hartuta, jarduera presentziala bertan behera utzi zen unean, irakasleek informazioa zuten ikasleek ikasturte edo maila bakoitzerako planifikatutako oinarrizko helburuetarantz zer mailatan egin zuten aurrera zehazteko.

Bigarren hiruhilekoari dagokion ebaluazioan islatu zen hori.

Adierazi behar da **ebaluazio partzialen** helburua dela ebaluazio hori egiten den datan lortutako oinarrizko gaitasunen garapen-maila deskribatzea, **azken ebaluazioan ikasleak** gaitasunen lorpen-mailari dagokionez **ikasturte amaieran zein egoeratan** dauden deskribatzen den bezala.

Beraz, bigarren hiruhilekoa amaitu zenean, irakasleek beren ikasleek lortutako ikaskuntzen garapen-mailak ezagutzen zituzten. Horiek bi egoera hauetan jaso zitezkeen:

- Aurreikusitako helburuak eta gaitasun-maila lortu zituzten ikasleak.
- Aurreikusitako helburuak eta gaitasun-maila lortu ez zituzten ikasleak.

Ikasturte honen ezaugarri bereziak direla eta, jarduera presentziala eten aurretik ikasleek lortutako mailari buruzko informazioa funtsezko oinarri gisa erabili beharko da behin betiko ebaluazioaren eta horrek ikasturtearen amaieran duen kalifikazioaren inguruko erabakiak hartzeko.

Hala, urteko plangintza didaktikoa aldatuko da, eta **ikasturte hasieran 2. hiruhilekoan**

lortzeko planifikatutako helburuak oinarrizkotzat hartuko dira 2019-20 ikasturteko ebaluazio-prozesuan.

Ildo horretatik, ikastetxeek honako hauek bereiz jorratu behar dituzte:

- **Hezkuntza-jarduera presentzialean, aurreikusitako helburuak eta gaitasunak lortu ez zituzten ikasleen ebaluazioa:**

Kasu honetan, hirugarren hiruhilekoan, helburu hauetarako jarduerak planteatu beharko dira (urrutikoak edo presentzialak, osasun-agintariek emandako jarraibideen arabera):

- Ahal dela, 1. eta 2. hiruhilekoei dagozkien helburuak lortzea, orain maila-gutxienekotzat jotzen baitira.
- Hirugarren hiruhilekoari dagozkion helburuen lorpenean aurrera egitea.

Ezinbestekotzat jotzen diren helburuak lortuz gero, nahikoa kalifikazioa (5) emango da dagokion arloaren edo irakasgaiaren azken ebaluazioan.

- **Aurreikusitako helburuak eta gaitasunak modu presentzialean lortu zituzten ikasleen ebaluazioa:**

Hirugarren hiruhilekoan planteatu beharreko jarduerak zuzenduko dira dagoeneko eskuratutako helburuak eta gaitasunak (ikasturte honetarako birprogramatutako gutxienekotzat hartu dira) sakontzera eta hirugarren hiruhilekorako (edo ikasturtearen amaierarako) planteatutako helburuak lortzeko bidean aurrera egitera. Jarduera horiek urrutikoak edo presentzialak izan daitezke, osasun-agintariek emandako jarraibideen arabera.

Lehen bi hiruhilekoetarako planteatutako helburuak eta gaitasunen garapena lortu eta, gainera, ikasturte hasieran 3. hiruhilekorako programatutako gutxienekoak lortzen dituzten ikasleek Ongi edo Oso ongi kalifikazioa lortuko dute.

Gainera, Oso ongi edo Bikain kalifikazioa lortuko lukete ikasturte hasieran hirugarren hiruhilekorako aurreikusitako helburuak lortu dituzten ikasleek, helburu horiek lortu badituzte lan autonomoa eginda (irakasleek lagunduta eta zuzenduta bada ere), sakontze-maila handiarekin eta helburuak zabalduz eta gaitasunak garatuz.

1.3.- Hirugarren ebaluazioa eta azken ebaluazioa

Ikastetxeek hirugarren ebaluazio espezifiko bat egin ahal izango dute, hirugarren hiruhilekoan helburuak eta gaitasunak nola lortu diren soilik baloratzeko, edo, bestela, prestakuntza-ebaluazio jarraitu baten esparruan, azken ebaluazio integratu sumatibo bat egin ahal izango dute. Ebaluazio horretan, lehenengo bi ebaluazioetan eskuratutako lorpenak hartuko dira kontuan, eta horiei modu gehigarrian soilik

erantsiko zaizkie hirugarren hiruhilekoan eskuratutako lorpenak, azken kalifikaziorako

erabakigarriak izango direnak.

a) Azken ebaluaziotik bereizitako hirugarren ebaluazioa egitea aukeratzen bada:

Hirugarren ebaluazio horren emaitzak (ikasleek konfinamenduan zehar eta, berriro ekin bazaie, eskola presentzialetan landutako ikaskuntzei eta gaitasunei buruzkoak soilik) erregistratuta geratuko dira ikastetxeak erabili ohi dituen barne-dokumentuetan: ebaluazio partzialeko akta, irakaslearen koadernoa, kudeaketa akademikorako ohiko aplikazioak, familiei zuzendutako informazio-buletinak, etab.

Kasu horretan, hirugarren azken ebaluazio bat egingo da, bereiz, irakasle taldeak ezinbestekotzat jo dituen helburuen eta gaitasunen eskuratze-maila neurtzeko, ikasleak probetxuz mailaz igotzeko aukerari begira.

b) Hirugarren ebaluazioa barne hartuko duen azken ebaluazioa egitea aukeratzen bada:

Azken ebaluazio integratzaile horrek lehenengo bi ebaluazioetan eskuratutako lorpenak hartu beharko ditu kontuan, eta horiei hirugarren hiruhilekoan eskuratutako lorpenak soilik gehituko zaizkie, modu positiboan soilik. Hain zuzen, azken lorpen horiek emango dute azken kalifikaziorako bidea.

Kasu horretan, ebaluazio partzialen emaitza islatzea helburu duten ikastetxearen barne-ebaluazioko dokumentuetan, errepikatu egingo da, hirugarren ebaluazioari dagozkion ataletan, azken ebaluazioa erregistratzen den dokumentuetan ondoren errepikatuko den kalifikazio bera. Horiek dokumentu honen bigarren zatian zehazten dira.

Nolanahi ere, azken ebaluazioa ezin da ulertu hiruhilekoei dagozkien neurketetan emandako puntuazioen batezbesteko gisa.

1.4.- Ebaluatzeko tresnak eta prozedurak

Ikasturteko azken ebaluazioa egin eta horren ondoriozko kalifikazioa eman ahal izateko, ebaluazioa jarraitua dela kontuan hartuta, irakasleek sistematikoki bildu behar dituzte, irakatsi eta ikasteko prozesuan zehar, ikasleen aurrerapenaren ebidentziak.

Horretarako, ezinbestekoa da ikaskuntza-ebidentzia horiek jaso eta erregistratzea, eta, gainera, erreferentzia gisa izan beharko dituzte, nahitaez, lorpen-adierazleak eta ikasleen gaitasunen garapenean lortu beharreko gutxieneko mailak, Curriculum Proiektuan eta ikastetxe bakoitzaren urteko programazioetan ezarritakoak.

Lorpen-adierazle horiek eta gutxieneko mailen zehaztapena ikastetxe bakoitzeko irakasle-taldeak lehenetsi eta/edo egokitu behar ditu egungo egoeretara, lehen ikaskuntza-helburuen eta funtsezko edukien inguruan adierazi denez.

Gauden testuinguruan, kontuan hartu behar da ikaskuntza-ebidentzia horiek biltzeko

ohiko tresnak agian ez direla nahikoak izango, eta aztertu beharko dela komeni ote den beste informazio batzuk erabiltzea.

Era berean, ebaluazio-prozesua egiteko garaian, kontuan hartu behar dira ikasleek izan ditzaketen mugak, bereziki zenbait kasutan, ikasteko zailtasunei, gizarte-egoera ahulei eta abarri lotuta.

Ikaskuntzak ebaluatzean, kontuan hartu behar da ikasleen estilo kognitiboen aniztasuna, "ikasten eta pentsatzen ikastea" gaitasunaren garrantzia edo norberaren ikaskuntza-prozesuen erregulazioa, eskuratutako ikaskuntzen heldutasuna erakusten duten elementu gisa.

Lorpenen ebidentziak jasotzeko baliabidetzat erabil daitezke ikaskuntza-egunkarien, portfolioen edo autoebaluazio-estrategien edukia, erabili izan balira, baita ikasleek eskola presentzialik gabeko aldian egiten dituzten atazak ere.

Agindutako zereginetan ikasleak izan duen bilakaerari buruzko erregistroak datu garrantzitsuak izango dira.

Irakasleen koordinazioa funtsezkoa da ikasle bakoitzaren ikasteko prozesuaren jarraipen eraginkorra egiteko eta esparru eta arlo guztietan komunak diren alderdi ugariak batera ebaluatzeko.

Ebaluazio sistemaren beste osagai bat bezala ere kontuan har daiteke, bereziki Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen mailetan, familiek emandako informazioa.

Jarraian, ikastetxeek beren testuingurura egokituta erabili ahal izango dituzten ebaluazio-tresna batzuk proposatzen dira:

- **Irakaslearen koadernoa**. Horretan, sistematikoki jasotzen dira ikasleak zehaztutako **ikaskuntza-adierazleekiko** aurrerapenak nola egiten dituen jakiteko bidea ematen duten **behatutako/bildutako datuak**.
- Ikasleek egindako **lanak berrikustea eta aztertzea**.

Ikasleari esleitutako ataza bakoitzaren atzean helburu zehatz batzuk daude. Atazak arretaz berrikusteak aukera ematen du ikasleek proposatu diren kontzeptuak ulertu dituzten eta horiek aplikatzeko gai diren identifikatzeko. Ikasleei atazak mailakako zailtasun-hurrenkeran planteatzeak aukera emango dio irakasleari ikaslea zein mailatan erantzuteko gai ikusteko. Horrek baldintzatuko du kalifikazioa (ataza-proposamen berrirako abiapuntuaz gainera).

- **Banakako tutoretzak** ikasleekin.

Tutoretzak telefonoz edo Skipe bidez egingo dira. Horietan, ikasleei azalduko zaie haien lanean ikusten diren arrakastak eta zailtasunak, eta galdetuko zaie haiek nola hautematen dituzten horiek. Jakin behar da ikasleak horiez jabetuta dauden, eta beraiek azaldu behar dute zer gertatzen den, zer ulertzen ez duten eta beren ustez

arazoa non dagoen (horrek, ikasleei laguntzeaz gainera, informazio ugari ematen dio irakasleari).

- Landutakoari eta ikasitakoari buruzko **metaanalisiko eta autoebaluazioko** prozesuak bultzatzea:

Honelako galderak planteatuz: *Zer ikasi duzu gaur? Ulertu arren, zer da aplikatzea oraindik kosta egiten zaizuna? Zer errepasatu beharko genuke bihar? Hori lagun bati azaltzeko gai izango zinateke? Egin proba!*
Galderaren bat egin ikaskideak hori ulertu duela edo egiteko gai dela ikusteko. Gaiari buruz landu ez dugun, interesatzen zaizun... galderaren bat bururatzen zaizu?...
Irakasleek planteatutako ariketekin edo landutako gaian ikasleek ikas dezaten proposatutakora egokituko dira galdera horiek. Gai horiekin, lortutako ikaskuntza-mailari buruzko datu oso fidagarriak lortzen dira.

- **Eskema eta mapa kontzeptualak** egin ditzaten proposatzea.

Horietan antzeman ahal izan behar da ikasleek landu den edukia edo kontzeptua ulertu duten? Maila baxuagoetako ikasleen kasuan, dagoeneko landutako mapa kontzeptualak izan daitezke, hitzak falta dituztenak edo pistak ematen dituzten marrazkiak dituztenak. Halaber, sailkapenak eta sekuentziak egin daitezke irizpide jakin batzuen arabera...

Zaharrenekin, oso tresna baliotsua da kontzeptuak eta horien arteko erlazioak ulertzeko. Gainera, oso ondo ikusten dira ikasleen heldutasun-aldeak, ulermen- eta ikaskuntza-mailari dagokionez.

Halaber, helburu berarekin proposa dakieke landutako gai bat edo edukiren bat laburtu eta **powerpointak** egin dezaten. (Egin dituzten laburpenak, gaiari eman dioten egiturak oso ondo islatzen du eskuratutako ikaskuntza-maila). Aurkezpen grafikoak?

- **Ahozko aurkezpenak bideokonferentzia bidez** gela osoaren aurrean.

Halaber, galderak presta ditzakete ikaskideei planteatzeko (saio horietatik informazio asko lor daiteke ikaskuntza-adierazleen eta gaitasunen garapenaren inguruan, bai zeharkako gaitasunei dagokienez —adierazpena, laburtzeko gaitasuna, prestatu duten jardueraren antolaketa eta kudeaketa—, bai diziplina-gaitasunei dagokienez —azaltzeko gai bada, benetan ikasi duen seinale da—).

- **Proba objektiboak**

Posta elektronikoz, ohiko postaz, classroom bidez... bidaliak. Proba objektiboetan, 5 edo nahikoa oinarrizko alderdiekin lortzen dela zaindu behar da. Hortik aurrera, zailtasun handiagoko gaiak plantea daitezke, landutako kontzeptuen ezagutza sakonagoa eskatzen dutenak (orduan, ongi, oso ongi edo nahikoa kalifikazioa lortuko da).

Zuzenketa-prozesuan, ez da ahaztu behar informazioa biltzen ari garela eta aldez aurretik egokitu diren ikaskuntza-adierazleen lorpen-maila neurtzen ari garela (hau da, ea badakien eta zein sakontasun-mailaz dakien), eta proba objektiboa informazioa lortzeko tresna dela, berez helburu bat baino gehiago.

- **Irakasle taldearen bilerak**

Bildutako informazioa partekatzeko eta ikasle bakoitzak adierazle-mailan lortutako bilakaeraren eta lorpen-mailaren berri emateko. Irakasle guztiek neurtuko dituzten alderdiak identifikatzea (testuak ulertzen ditu, ideia nagusia identifikatzen du, kausa-efektu erlazio logikoak ezartzen ditu, landutako oinarrizko alderdiak ezagutzen/identifikatzen ditu, labur azaltzeko gai da, besteekin erlazionatzeko gai da...) eta arlo/ikasgai… bakoitzetik jasotako oharrak eta ebidentziak partekatzea...

Adibide gisa:

1. ikaslea	MATE	HIZ	EU	GZ	ZN	…	**Ondorioak**	Oharrak
Erabiltzen ditugun testuak ulertzen ditu								
Oinarrizko kontzeptuak identifikatzen ditu								
Azaltzen ditu								
……								
Atazak egiten ditu								

- **Hainbat ariketa eta estrategia mota** erabiliko dira zehaztutako **ikaskuntza-adierazle bakoitzaren** informazioa biltzeko. Kontuan hartu behar da estilo kognitiboen aniztasuna. Denek izan behar dute ikasi dutena eta egiteko gai direna erakusteko aukera. Azken nota zehazteko balio gutxi-asko handia izan dezaketen adierazleak ere identifikatu behar dituzte.
- Informazio interesgarria eman dezake **familiekin** hitz egiteak (ariketak nola egin dituzten, zenbat denbora behar izan duten, haiek egiten ari ziren bitartean egiten zituzten iruzkinak...).

1.5.- Mailaz igotzea

Ikasturte amaierako ebaluazioko bilkuraren aktan jasoko dira ebaluazioari lotutako erabaki nagusiak, mailaz igotzearekin lotutakoak barne, eta adostutako akordioak.

Mailaz igotzeko irizpide orokorrak 236/2015 Dekretuan eta 237/2015 Dekretuan ezartzen dira. Dekretu horietan, ikasturtea errepikatzea salbuespenezko neurritzat jasotzen da. Haur Hezkuntzan, hezkuntza-premia bereziak dituztenek bakarrik iraun

ahal izango dute beste urtebetez Haur Hezkuntzako zikloren batean. Erabaki hori familien baimenarekin hartu beharko da.

2019-2020 ikasturtearen zati bat zein egoeratan egin den kontuan hartuta, irakasle taldeek bermatu beharko dute ikasle bakar bat ere ez dela errepikatzera behartuta egongo hezkuntza ez-presentzialean sartzeko izan duen zailtasunari lotutako arrazoiengatik.

Gerta litezkeen desberdintasun-egoerei hezkuntza indartzeko banakako programen bidez heldu beharko zaie. Programa horiek 2020-2021 ikasturtean egin beharko dira, bereziki 2020ko irailean.

Irakasle taldeak uste badu gutxieneko helburuak lortu ez dituen ikasle batentzako edo eskolatuta egon den ikasturterako edo mailarako birprogramatu diren eta ezinbestekoak diren oinarrizko gaitasunak garatu ez dituen ikasle batentzako hezkuntza-neurririk egokiena ikasturtea errepikatzea dela, banakako txosten bat egin beharko du neurri hori hartzea justifikatzen duten arrazoiak adierazteko. Txosten hori Hezkuntza Ikuskaritzaren esku egongo da.

Ikasle batentzat ikasturtea errepikatzea planteatu bada eta horri buruzko zalantzak sortzen badira, Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatuko du errepikatzearen arrazoiek ez dutela zerikusirik dagokion ikaslearen konfinamendu-denboran agerian jarritako desberdintasun-egoerekin, eta neurri argudiatua dela, ikaslearentzako onura agerian uzten duena.

Titulazioa

Ikasleen titulazioari dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 53. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Batxilergoari dagokionez, Batxilergoko curriculuma ezartzen duen irailaren 6ko 127/2016 Dekretuaren 38. artikuluan ezartzen dira ikasleen titulaziorako baldintzak.

Hala ere, bi dekretuetako artikuluetan aipatzen den banakako ebaluazioari dagokionez, ikastetxeek erabakiko dute zein izango diren ebaluazio hori egiteko prozedurak gaur egun gauden inguruabar berezietan (online proba objektiboak, lanak, ariketa espezifikoak, etab.), kontuan hartuta, era berean, ikasgaien curriculumetan egindako egokitzapenak.

Banakako txostena

Egungo inguruabarretan, garrantzitsua da txosten horretan adieraztea ikasleak eskuratu ez dituen ezinbesteko ikaskuntzak, eta horiek berreskuratzeko plan bat sartzea 2020-2021 ikasturtean garatzeko. Txosten hori informaziokoa eta orientatzailea izango da, eta garrantzi berezia izango du Lehen Hezkuntzako seigarren

maila egin duten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapara sartuko diren ikasleen kasuan. Oinarrizko Hezkuntzari dagokionez, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 36. eta 46. artikuluetan, hurrenez hurren, honako hau ezartzen da: ikasturte bakoitzean aurreikusitako ebaluazio-saio bakoitzaren ondoren, tutoreari dagokio, gelako irakasle taldearen aholkularitzarekin, arlo bakoitzean lortutako kalifikazioak eta eskola-errendimenduari buruzko informazioa jasoko dituen **txostena** egitea. Txosten horretan bilduko dira, halaber, gizarte- eta hezkuntza-arloko informazioa eta, hala badagokio, aurreikusitako laguntza- eta indartze-neurri orokorrak.

Gainera, dekretu horretan ezartzen denez, Lehen Hezkuntza amaitzean (6. mailako ikasleak) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitzaren amaieran, **azken ebaluazioaren ondorengo txostenak**, aurreko paragrafoan adierazitakoaz gainera, oinarrizko **gaitasunen eskuratze-maila** eta hurrengo ikasturte, ziklo edo etapara igarotzeko erabakia jasoko ditu (banakako eskola-orientazioaren txostena).

Batxilergoari dagokionez, irailaren 6ko 127/2016 Dekretuak, Batxilergoko curriculuma ezartzen duenak, finkatzen du ikasturte bakoitzean aurreikusitako ebaluazio-saio bakoitzaren ondoren, edo inguruabarrek hala gomendatzen dutenean, **tutoreak txosten bat egingo duela** ikasle bakoitzaren ikasteko prozesuaren emaitzarekin. Txosten horretan, ikasgai bakoitzean lortutako kalifikazioak eta eskola-errendimenduari buruzko informazioa jasoko dira, baita gizarte- eta hezkuntza-integrazioari buruzko txostena eta, hala badagokio, aurreikusitako laguntza- eta indartze-neurri orokorrak ere.

Era berean, adierazten du Batxilergoko ikasturte bakoitzaren amaieran, **azken ebaluazioaren ondorengo txostenak**, aurreko paragrafoan adierazitakoaz gainera, oinarrizko gaitasunen eskuratze-maila eta hurrengo ikasturtera igarotzeko erabakia jasoko dituela. Gogorarazi behar da, oinarrizko gaitasun bakoitzaren lorpen-mailari buruzko kide anitzen erabakiak hartzeko, irakasle taldeak gaitasun horietako bakoitzerako deskribatutako irizpideei jarraitu behar diela. Asmoa ez da pisu handiagokotzat jotzen den arloan/ikasgaian lortutako nota helaraztea, baizik eta arlo/ikasgai bakoitzean lortutako ikuspegietatik jarrera hartzea eskuratutako garapen-mailaren inguruan. Gaur egungo inguruabarretan, garrantzitsua da ikasturte bakoitzaren amaieran egingo den txostenean ikasleak eskuratu ez dituen ikaskuntzak zein diren adieraztea, eta horiek berreskuratzeko plan bat sartzea 2020-2021 ikasturtean garatzeko. Txosten hori informaziokoa eta orientatzailea izango da, eta garrantzi berezia izango du Lehen Hezkuntzako seigarren maila eta DBHko 4. maila egin duten ikasleen kasuan, horiek hurrengo hezkuntza-etapan sartuko baitira.

Hezkuntza Ikuskaritzak ikasturte amaierako *dokumentazio akademikoari* buruz urtero egiten duen dokumentuan (eranskinean dago), aipatutako txostenei buruzko informazioa ematen da. Hortaz, biziki gomendatzen da dokumentu hori irakurtzea.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

DOKUMENTAZIO AKADEMIKOA	**DOCUMENTACIÓN ACADÉMICA**
2019-20 Ikasturtea	**Curso 2019-20**
HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA	**EDUCACIÓN INFANTIL Y EDUCACIÓN PRIMARIA**
2020ko apirila	**Abril de 2020**

IKASTURTEAREN BUKAERAKO DOKUMENTAZIO AKADEMIKOA

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko irailaren 17ko AGINDUAk, 2019-2020 ikasturteari dagokion ikastetxeei buruzko informazioa eredu bateratuaren bidez biltzeari buruzkoak. (EHAAA 2019-09-30), lehen xedapenean ondorengo puntuak zehazten ditu:

> *Lehenengoa.– Beren egoitzak Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztiek, **Hezkuntza Sailaren aplikazioak erabiliz**, Eskola Jarduera, Ordutegiak, Espediente Akademikoa, Notak eta Faltak (akta finalak) eta HPB-Hezkuntza Premia Berezia izenpean antolatu diren galdera zerrendei edo dokumentuei erantzun beharko diete, eta zehaztasunez eta egiatasunez bete.*

Agiri honek ikastetxeen gida izan nahi du, ikasturtearen bukaerako dokumentazio akademikoa antolatzeko orduan. Gida honen egitura berritu da, ikastetxeek erabili behar dituzten aplikazioak eta beroriek erabiltzeko ohiko ordena erreferentziatzat hartuta.

Eskatutako dokumentazio akademikoa bete aurretik, etapako ebaluazioari buruzko **indarreko legeria** irakurtzea komeni da:

- **HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA**
  - AGINDUA, 2008ko uztailaren 7koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Oinarrizko Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa arautzen duena. (2008-07-30 EHAA). (236/2015 Dekretua urratzen ez duen heinean)
  - Ebazpena, Hezkuntza sailburuordearena, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2018-2019 ikasturtearen antolaketari buruzkoa.
  - Agindua, 1993ko maiatzaren 5ekoa, Haur Hezkuntzan ebaluazioa arautzen duena (1993-06-01 EHAA) (237/2015 Dekretua urratzen ez duen heinean).
  - 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (2016-01-15 EHAA)
  - 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. (2016-01-15 EHAA)
  - 126/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Lehen Hezkuntzako oinarrizko curriculuma ezartzen duena (2014-03-01 EHAA)

DOCUMENTACIÓN ACADÉMICA DE FIN DE CURSO

La **ORDEN de 17 de septiembre de 2019, de la Consejera de Educación, sobre la recogida de información unificada en materia de centros docentes correspondiente al curso 2019-2020.** (BOPV 30-09-2019), recoge en su disposición primera:

> *Primero.– Todos los centros educativos no universitarios, situados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, deberán responder y cumplimentar con la mayor precisión y rigor posibles, **a través de los aplicativos del Departamento de Educación**, los documentos o formularios diseñados al efecto y agrupados con las denominaciones de Actividad Escolar, Cuadros Horarios, Expedientes Académicos, Notas y Faltas (actas finales) y NEE-Necesidades Educativas Especiales.*

El presente documento pretende servir de guía a los centros educativos a la hora de organizar la documentación académica de fin de curso. La estructura de esta guía se ha renovado, tomando como referencia las aplicaciones que los centros deben utilizar, así como el orden habitual de uso de las mismas.

Antes de cumplimentar la documentación académica requerida, es conveniente leer la **normativa vigente** sobre evaluación en la etapa correspondiente:

- **EDUCACIÓN INFANTIL y PRIMARIA**
  - ORDEN de 7 de julio de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula la evaluación del alumnado en Educación Básica. (BOPV de 30-julio-2008). (En lo que no contravenga el Decreto 236/2015).
  - Resolución de la Viceconsejera de Educación sobre la organización del curso 2018-2019 en los centros Públicos de Educación Infantil y Primaria.
  - Orden de 5 de mayo de 1993, sobre evaluación en la Educación infantil (BOPV 1-6-1993) (En lo que no contravenga el Decreto 237/2015).
  - DECRETO 236/2015 de 22 de diciembre, por el que se establece el currículo de Educación básica y se implanta en La Comunidad Autónoma del País Vasco. (BOPV 15- 01-2016)
  - DECRETO 237/2015, de 22 de diciembre, por el que se establece el currículo de Educación Infantil y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco. BOPV 15-01-2016
  - Real Decreto 126/2014, de 28 de febrero por el que se establece el currículo básico de la educación primaria (BOE 1-3-2014)

- Norbanakako curriculum egokitzapenei buruzko Hezkuntza Sailburuordearen argibideak (2018ko irailaren 5). Ikuskaritzaren web orrian daude.

Laburpena: Ikastetxeak bete beharreko ikasketa-agiriak

HAUR HEZKUNTZA:

- **Ikasketa-espedientea,** honakoa bilduz:
  - Ikaslearen fitxa pertsonala
  - Eskolatzearen laburpena.
  - Ikasturte bakoitzaren amaierako ebaluazio-txosten indibiduala.
  - Etapako azken ikasturtearen amaierako azken ebaluazio-txostena.

LEHEN HEZKUNTZA

- Ikasle bakoitzaren **Ikasketa-Espedientea**, dagokion aplikazio informatikoan aurki daitekeena.
- **Ikasketen Historia / Ziurtagiri Elektronikoa**
- **Ikasketen Aktak.**
- **Ikasturte bakoitzeko ebaluazio-txostena.** Ikastetxe bakoitzak erabakiko du zein txosten-eredu erabili eta ikastetxeak lehenago eginiko ziklo amaierako txostenak egokitu ahal izango dira. (236/2015 dekretuaren 46. Artikulua urratzen ez duen heinean)
- **Bakoitzaren eskola-orientabideari buruzko txostena**
- **Lekualdatze-txosten pertsonala** (ziurtagiria). Ikaslea matrikulatuta dagoeneko ikastetxeak egin beharko du.

- Instrucciones de La Viceconsejera de Educación sobre las adaptaciones curriculares individuales (5 de septiembre de 2018). Están en la página web de Inspección.

Resumen: Documentación académica a cumplimentar por el centro

EDUCACIÓN INFANTIL:

- **Expediente Académico**, que contendrá:
  - Ficha personal del/la alumno/a.
  - Resumen de escolaridad.
  - Informe de evaluación individualizado al final de cada año académico.
  - Informe Final de evaluación, al finalizar el último curso de la Etapa.

EDUCACIÓN PRIMARIA.

- **Expediente Académico** de cada alumno/a, que se encuentra en la aplicación informática correspondiente.
- **Historial Académico / Certificado Digital**
- **Actas Académicas.**
- **Informe de evaluación de cada curso escolar**. Cada centro determinará el modelo de dicho informe y podrán adaptarse los informes de final de ciclo que el centro elaboraba anteriormente (En lo que no contravenga el Decreto 236/2015, art. 46)
- **Informe de orientación escolar individual**

- **Informe personal por traslado** (certificación). Lo elaborará el centro en el que se encuentre matriculado el alumno.

Saileko Aplikazioen kudeaketa

Dokumentazio akademikoa kudeatzeko erabiltzen diren Sailaren aplikazioak ondoren adierazten direnak dira:

① Kudeaketa akademikoa: Aurre matrikula / Matrikula.

- Ikasle bat maila bateko ikasgai edo esparru batean kalifikatzeko, aldez aurretik kurtso horretan egon behar du matrikulatuta

② Ordutegi-taulak (EED)

- Ikastetxean matrikulatutako ikasle guztiek **beren mailako talde ofizial batean** egon behar dute sartuta, eta bertatik lortzen dira talde horretan matrikulatuta dauden mailako **akta ofizialak**.

- Ikasle guztiek talde batean (ofiziala edo emateko taldea) sartuta egon behar dute, matrikulatu diren arlo bakoitzean. Talde hori irakasle bati esleituko zaio eta irakasle horrek izango du kalifikatzeko ahalmena.
- Ordutegi Koadroak (DAE) izeneko aplikazioak **talde ofizial osagarriak** sortzen ditu, zeinetatik **arlo pendienteen akta osagarriak** eskura daitezke, non aurreko ikasturtean edo ikasturteetan gainditu gabeko arloetako notak agertzen diren.
- Arlo batean matrikulatutako ikasle guztiak arlo horretako talde batean sartuta daudela egiaztatzeko, "Matrikula" aplikaziotik eta "matrikula / zerrendak / matrikulak eta EEDk bat egitearen zerrenda" ibilbidea eginez lortzen den artxiboaren "moduluak-matrikula-ikaslea" erlaitzean inolako inkoherentziarik ("EZ") ez dagoela egiaztatu behar da.

③ Notak eta hutsegiteak

- Irakasle bakoitzak berari dagozkion taldeetako (ofizialak edo inpartiziozkoak) ikasleak kalifikatuko ditu.
  - "Euskara eta Literatura" arloan salbuespena tramitatu eta onartu diren ikasleei "Salbu" jariko zaie.

- Taldeko tutoreak hurrengo kurtsora pasatzen diren ikasleak nortzuk diren adieraziko du.

Gestión de Aplicaciones del Departamento

Las aplicaciones del Departamento que se utilizan para gestionar la documentación académica son las que se señalan a continuación:

① Gestión académica: Prematrícula / Matricula

- Para calificar a un alumno o alumna en una materia o ámbito de un nivel es necesario que previamente esté matriculado en el mismo.

② Cuadros horarios (DAE)

- Todos los alumnos y alumnas matriculados en el centro deben estar incluidos en un **grupo oficial de su nivel**, del que se obtienen las **actas oficiales** correspondientes al nivel en el que están matriculados.
- Todos los alumnos y alumnas deben estar incluidos en un grupo (oficial o de impartición) de cada área en la que se han matriculado. Este grupo estará asignado a un profesor o profesora que será quien lo pueda calificar.
- La aplicación Cuadros Horarios (DAE) genera los **grupos oficiales complementarios** de los que se obtienen las **actas complementarias de áreas pendientes,** en las que se reflejan las calificaciones de las áreas suspendidas de curso o cursos anteriores.
- Para asegurar que todos los alumnos y alumnas matriculados de una materia se encuentran incluidos en un grupo de dicha materia, hay que comprobar que no existe ninguna incoherencia ("NO") en la pestaña "Módulos-matrícula-alumno" del archivo que se obtiene de la aplicación "Matrícula" siguiendo la ruta "Matrícula / Listados / Listado concordancia Matrícula-DAE".

③ Notas y Faltas

- Cada profesor o profesora calificará a los alumnos y alumnas que tiene asignados en sus grupos (oficiales o de impartición).
  - Se señalará como "Exento" a los alumnos y alumnas a los que se les haya tramitado y concedido la exención de "Lengua Vasca y Literatura"
- El tutor o tutora del grupo señalará los alumnos y alumnas que promocionan.

NORBANAKO CURRICULUM EGOKITZAPENAK LEHEN HEZKUNTZAN:

- Norbanako Curriculum Egokitzapenak (NCE) "Hezkuntza Premia Bereziak" aplikaziotik kudeatzen dira. Aplikatibo horretan Lurralde Hezkuntza Ordezkaritak onartutako NCEak **automatikoki** "Kalifikazioak eta Hutsegiteak" aplikaziora isladatuko dira, atal hori ez da editagarria izango, eta dagokion aktan asterisko batez (*) agertuko dira.

  - Kalifikazio edo nota ikasleak garatutako lan-planari eta lortutako aurrerapenari buruzkoa izango da.
  - NCE globala baimendu zaien ikasleen kasuan, irakasle-taldeak erabakiko du mailaz igo ala ez, kontuan izanik dagoeneko erabili den ikasturtea errepikatzeko neurria, bai eta neurri hori ikaslearen beharretara egokitzen den ala ez.

  - Arloko NCE bat edo batzuk baimenduta izan eta haiek gainditu dituen ikasleen kasuan, NCEren bitartez gainditutako arloak gainditutzat emango dira.

  - NCE onartuta duten arloetan, aurreko ikasturteetako gainditu gabeko arloak ez dira gainditu gabeen akta osagarrietan agertuko.

  - NCE gainditzeak berarekin badarama ikasturte edo etapa bateko helburuak gainditzea, Eginbide baten bidez xehetasun hori ikaslearen espedientean jasoko da Ikasketa Espedienteen aplikazioan ikasleak aipatutako helburuak gainditu dituneko data eta dagozkion gaitasunen maila izapidetuz. Honako **Eginbide** hauek egingo dira:

    - NCE gainditzean, dagokion mailako gutxieneko helburu guztiak lortzen badira:

      ".....(e)ko ..... ren .....(e)an, Lehen Hezkuntzako … ikasturteari dagokion NCE gainditzeak maila horretako gutxieneko helburuak gainditu direla esan nahi du."
      Kasu horretan ez da onartuko maila bereko curriculumari loturiko beste NCE proposamenik.
    - NCE gainditzean, ez badira dagokion mailako gutxieneko helburuak lortzen eta, ondorioz, NCEren beste helburu batzuk lantzen jarraitu behar bada:

      ".....(e)ko ..... aren ..... (e)an, Lehen Hezkuntzako ..... ikasturteari dagokion NCE

ADAPTACIONES CURRICULAREN INDIVIDUALIZADAS EN EDUCACIÓN PRIMARIA:

- La gestión de las Adaptaciones Curriculares Individualizadas (ACI) se hace desde la aplicación de "Necesidades Educativas Especiales". Las ACIs autorizadas por la Delegación Territorial de Educación en dicho aplicativo serán trasladadas **automáticamente** a la aplicación "Notas y Faltas", por lo que este apartado ya no será editable, y quedarán reflejadas en el acta correspondiente con un asterisco (*)
  - La calificación estará referida al plan de trabajo desarrollado y al progreso alcanzado por el alumno o alumna.
  - En los casos en que un alumno o alumna tenga autorizada una ACI global, el equipo docente decidirá sobre su promoción o no teniendo en cuenta si ya se ha utilizado la medida de repetición de curso, así como si esta medida es adecuada a las necesidades del alumno o alumna.
  - En los casos en que un alumno o alumna tenga autorizada una o varias ACIs de área y esta o estas se hubieran superado, las áreas superadas mediante ACI se entenderán como superadas.
  - En aquellas áreas con ACI autorizada, las áreas no superadas de cursos anteriores no se incluirán en las actas complementarias de pendientes.
  - Cuando la superación de una ACI conlleve la superación de los objetivos de un curso o etapa, esta circunstancia se hará constar en el expediente del alumno o alumna, mediante Diligencia en la aplicación Expedientes académicos, indicando la fecha en que el alumno o alumna ha superado dichos objetivos y el correspondiente nivel de competencias. Se utilizarán las siguientes D**iligencias**:
    - Cuando la superación de la ACI supone que ha logrado la totalidad de los objetivos mínimos del nivel de referencia del mismo:
      "La superación a fecha ..... de ..... de ....., de la ACI con referencia a ..... curso de Educación Primaria supone el logro de los objetivos mínimos de este nivel."
      En este caso no se admitirá una nueva propuesta de ACI con referencia curricular a este nivel.
    - Cuando la superación de la ACI no supone que haya logrado la totalidad de los objetivos mínimos del nivel de referencia del mismo y por tanto deben seguir trabajándose otros objetivos del mismo:
      "La superación a fecha ..... de ..... de ....., de la ACI con referencia al ..... curso de

gainditzeak ez du esan nahi mailako gutxieneko helburu guztiak lortu direnik." Kasu horretan maila berari loturiko beste NCE proposamen bat egin ahal izango da.

- NCE bat gaindituta izateagatik neurri horren beharrik ez duen ikasle baten kasuan, berari dagozkion Aktak eta Espediente Akademikoa betetzeko irizpideak ohiko egoera duten ikasleenak izango dira; hau da, dagozkion arlo/irakasgaiak kalifikatuko dira, ikaslearen eskolaratzeari dagokion curriculum-mailaren arabera.

AKTAK

- Talde desberdinen akta akademikoak betetzeko, "notak eta hutsegiteak "aplikazioa erabili beharko da. Aplikazio horretan, gaituak izan diren irakasleek izango dute ikastetxean ematen diren ikasketen arloen notak jartzeko aukera.

- "Notak eta hutsegiteak" aplikazioan ikastetxeek eskuragarria dute "egoera orria". Horren bidez, aktak itxi baino lehen, talde eta ebaluazio bakoitzeko, ikasleen emaitzak eta ikasgaien emaitzak haien artean kolore eta grafikoen bidez konparatu daitezke.

  Tutoreek beraien taldeko "egoera orria" lortu dezakete ibilbide honetan: "Notak eta hutsegiteak – Lan-taldeak – Tutorizatuak – Ebaluazioa – Egoera-orria"
  Zuzendariek ikastetxeko talde guztien "egoera orria" lortu dezakete "Notak eta hutsegiteak – Kudeaketa zentralizatua – Egoera-orria" ibilbidearen bidez.
- Ikasle bakoitzaren informaziora sartzeko, **"Historial akademikoa - Zerrendak- Lehen Hezkuntza - Historialak egiaztatzea"** ibilbidea erabiltzea gomendatzen da.
  Horiek horrela, Excel formatuko artxibo bat sortzen da, erlaitz batekin ikasle bakoitzarentzat. Erlaitz horretan ikaslearen NANa agertzen da eta berorren Historial Akademikoaren zirriborroa azaltzen du, <u>gaur arte jasota agertzen den informazioarekin.</u>

- Historialak egiaztatzea gomendatzen da:

  - <u>Ikasturte honen kalifikazioak sartu aurretik,</u> aurreko ikasturteen akatsak atzemateko.

    Akatsak aurkituz gero, horiek Eginbide baten

Educación Primaria NO supone el logro de la totalidad de los objetivos mínimos del nivel."
En este caso podrá solicitarse una nueva propuesta de ACI con referencia curricular a este mismo nivel.

- En el caso de un alumno o alumna que teniendo una ACI aprobada, ya no necesitara de dicha medida, los criterios para la cumplimentación de Actas y Expediente Académico serán los mismos que para el alumnado de situación ordinaria, es decir, se calificarán las correspondientes áreas o materias de acuerdo con el nivel curricular en que el alumno o alumna estuviera escolarizado.

ACTAS

- Para la cumplimentación de las Actas Académicas de los diferentes grupos deberá utilizar la aplicación "Notas y faltas". En ella el profesorado habilitado al respecto tendrá la posibilidad de plasmar las notas de las áreas correspondientes a los estudios que se impartan en el centro.
- En la aplicación "Notas y Faltas" los centros tienen a su disposición el "informe estadillo". De esta forma, antes de cerrar las actas, se pueden comparar entre sí mediante colores y gráficos, para cada grupo y evaluación, tanto los resultados de los alumnos y alumnas, como los resultados de las materias.
  Los tutores y las tutoras pueden obtener el "informe estadillo" de su grupo desde la ruta "Notas y Faltas – Grupos de trabajo – Tutorizados – Evaluación - Estadillo".
  Los directores y directoras pueden obtener el "informe estadillo" de todos los grupos desde la ruta "Notas y Faltas – Gestión centralizada – Estadillo".
- Es recomendable acceder a la información de cada alumno/a, mediante la ruta **"Historial académico – Listados – Educación Primaria – Verificación de Historiales".**
  De esta manera se genera un archivo en formato Excel, con una pestaña para cada alumno/a referenciada con su DNI, que contiene el borrador del Historial Académico del/a alumno/a con la <u>información que consta hasta el día de la fecha.</u>

- Se recomienda hacer la **verificación de Historiales:**
  - <u>Antes de introducir calificaciones del presente curso,</u> para detectar errores de cursos anteriores.
    En caso de encontrar errores, se deberán

bidez dagokion aktan zuzendu behar izango dira.
Eginbidea aktan egitea ezinezkoa izatekotan, ikaslearen Espedientean Eginbidea eginez zuzendu ahal izango dira.

- Ikasturte honetako kalifikazioak sartu ondoren, eta aktak behin-behingoz (tutoreak) edota behin-betikoz (zuzendariak) itxi aurretik, ikasturte honetako akatsak atzemateko.
  Akats horiek zuzenean zuzendu ahal izango dira "Notak eta hutsegiteak" aplikazioan, aktak oraindik itxi ez direnez, berriro ireki beharrik izan gabe.
- Aktak behin-betikoz itxi ondoren: behin-betiko datuak azaltzen dituen "balio akademikorik gabeko agiri" bat sortzen da.
  Fase horretan kalifikazioetan akatsik atzemanez gero, "Notak eta hutsegiteak" aplikazioan eginbide bat eginez zuzenduko da. Eginbide hori automatikoki Espedientera eramango da eta espediente horretan ikusi ahal izango da. Egiaztatze- txostena berriz lortzea gomendatzen da, Eginbidea behar bezala kargatu dela egiaztatzeko.

- **Akta guztiak aurreko eta atzeko aldean,** bi aletan, inprimatu behar dira eta tutoreak eta irakasleek izenpetu beharko dituzte. Ikastetxeko zuzendariak ere zigilatu eta izenpetu behar ditu.
- **Aktak Hezkuntza Ikuskaritzan, bi aletan eta behar bezala izenpetuak eta zigilatuak**, aurkeztu behar dira (ale bat ikastetxearentzat eta beste bat Ikuskaritzarentzat).
- Ikasturte bakoitzaren Akten jatorrizko ale bat, behar bezala izenpetua eta zigilatua, kontserbatu beharko dute, mugarik gabe, ikastetxe guztiek. Ikastetxeko idazkariak du Akta horiek zaintzearen ardura.
- Ondoko Akta hauek aurkeztu behar dira:
  - Haur Hezkuntzan ez dago Akta ofizialik:
  - Lehen Hezkuntzan:
    - 1., 2., 3. 4., 5. eta 6. mailako ikastalde bakoitzaren Akta ofizialak.
    - Maila bakoitzeko ikasgai pendienteen Akta Osagarriak (1., 2., 3., 4. eta 5. mailako pendienteak), zeinetan maila horretako ikasgaien bat, gainditu gabe duten ikasleak agertuko diren, NCE baten bidez kurtsatutako arloak izan ezik.

ESKOLA EMAITZAK:

- "Notak eta hutsegiteak" aplikaziotik lortuko ditu automatikoki Hezkuntza Sailak.

corregir mediante diligencia en el acta correspondiente.
Si no fuera posible hacer la diligencia en el acta, se podrán corregir mediante diligencia en el Expediente del alumno o alumna.

- Después de introducir las calificaciones del curso actual, y antes del cierre, provisional (por el tutor o tutora) y/o definitivo (por el director o directora), de las Actas, para detectar errores del presente curso.
  Estos errores se podrán corregir directamente en "Notas y Faltas" sin reabrir actas, porque todavía no se han cerrado.

- Después del cierre definitivo de Actas: Se genera un "documento sin validez académica" que contiene los datos definitivos.
  Si se detecta un error en las calificaciones en este estadio, se corregirá mediante diligencia en la aplicación "Notas y Faltas", que se arrastrará automáticamente al Expediente y se podrá ver en éste. Se recomienda obtener de nuevo el informe de verificación para comprobar que la Diligencia se ha cargado correctamente.

- **Todas las Actas deben imprimirse por anverso y reverso**, por duplicado, y deben estar firmadas por el profesorado y selladas y firmadas por el director o directora del centro.
- **Las Actas deben presentarse en Inspección de Educación, debidamente firmadas y selladas, por duplicado** (un ejemplar para el centro y otro ejemplar para la Inspección).
- Todos los centros deben conservar por tiempo indefinido un original debidamente firmado y sellado de las Actas de cada uno de los cursos académicos. Su custodia es responsabilidad del secretario o secretaria del centro.
- Deben presentarse las siguientes actas:
  - En Educación Infantil no hay Actas oficiales
  - En Educación Primaria:
    - Actas oficiales de cada grupo de 1º, 2º, 3º, 4º, 5º y 6º.
    - Actas Complementarias de las áreas pendientes de cada nivel (pendientes de 1º, de 2º, de 3º, de 4º y de 5º) en las que aparecerán todos los alumnos y alumnas que, tengan alguna materia pendiente de ese nivel, excepto las materias que haya cursado mediante una ACI.

RESULTADOS ESCOLARES:

- El Departamento de Educación los obtendrá automáticamente de la aplicación "Notas y faltas".

- Ikastetxeek hauek lor ditzakete bide honi jarrraituz: **Kalifikazioak eta Hutsegiteak / Lan-Taldeak / Zerrendak** / Aukeratu **Etapa** / Adierazi **Ikasturtea** (ikasturtearen iraila-abendua tarteari dagokion urteko 4 zifrak).

LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTURTE BAKOITZAREN EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA

- ikastetxe bakoitzak txosten horren eredua zehaztuko du.
  - Ikastetxeek lehen erabiltzen zituzten ziklo amaierarako txostenak egokitu ahal izango dira, 236/2015 Dekretuaren 46. artikulua urratzen ez duten heinean.

ESKOLA-ORIENTAZIOAREN BANAKAKO TXOSTENA

- 236/2015 Dekretuko 36. artikuluak ezartzen duenaren harira, tutoreak, taldeko irakasleen laguntzaz, Lehen Hezkuntza amaieran, eskola-orientazioaren banakako txostena egingo du, eta bertan adieraziko da konpetentzien eskuratze-maila. Txosten hori NeF aplikazioan egiten da:



④ Espediente Akademikoak

- Aplikazio informatikoaren bidez eskuratzen ez den **Haur Hezkuntzako** Ikasketa-Espedienteak honakoa jasoko du:
  - Ikaslearen fitxa pertsonala.
  - Eskolaratzearen laburpena.
  - Ikasturte bakoitzaren amaierako banakako ebaluazio-txostena
  - Azken ebaluazio-txostena, etapako azken ikasturtea amaitzean.
- **Lehen Hezkuntzako** Ikasketa-Espedientea dagokion aplikazio informatikoaren bidez eskuratzen dena da.
- ”Notak eta hutsegiteak” aplikazioan sartutako informazioa “Espediente Akademikoa” aplikaziora eramaten da. Aplikazio horretatik ikaslearen ziurtagiri digitala (Historial Akademikoa) lortuko da.
- Ematen dituen Historial Akademikoetan jasota agertzen den informazio guztia zuzena izatearen ardura ikastetxeko zuzendariak du.

- Los centros pueden acceder a ellos siguiendo la ruta: **Notas y Faltas / Grupos de Trabajo / Listados** / Seleccionar **Etapa** / Señalar **Curso** (las 4 cifras del año correspondiente al periodo septiembre-diciembre del curso escolar).

INFORME DE EVALUACIÓN DE CADA CURSO ESCOLAR DE EDUCACIÓN PRIMARIA

- Cada centro determinará el modelo de dicho informe
  - En lo que no contravenga el Decreto 236/2015, art. 46, podrán adaptarse los informes de final de ciclo que los centros elaboraban anteriormente.

INFORME DE ORIENTACIÓN ESCOLAR INDIVIDUAL

- Tal como se establece en el artículo 36 del Decreto 236/2015, el tutor o tutora, con el asesoramiento del equipo docente del grupo, al finalizar la Educación Primaria, emitirá un informe de orientación escolar individual, indicando el grado de adquisición de las competencias. Dicho informe se elabora en la aplicación NyF:

④ Expedientes Académicos

- El Expediente Académico de **Educación Infantil**, que no se obtiene de la aplicación informática, contendrá:
  - Ficha personal del/a alumno/a.
  - Resumen de escolaridad.
  - Informe de evaluación individualizado al final de cada año académico.
  - Informe Final de evaluación, al finalizar el último curso de la Etapa.
- El Expediente Académico de la **Educación Primaria** es el que se obtiene de la aplicación informática correspondiente.
- La información incluida en la aplicación “Notas y faltas” se traslada a la aplicación “Expediente Académico” de la que se obtendrá el “Historial Académico” del alumnado.
- El director o directora del centro es la persona responsable de que toda la información que consta en los Historiales Académicos que emite sea correcta:

- Espedientean jasota agertzen den aurtengo ikasturteko informazioa ("Notak eta hutsegiteak" aplikazioan sartuta dauden kalifikazioak).
- Espedientean jasota agertzen den aurreko ikasturteetako informazioa.

  - Aurreko ikasturteetakoa egiaztatzean behar bezala zuzendu ez izanagatik informazioa zuzena ez bada, ziurtagiri digitala eman aurretik zuzendu beharko da, zehaztu den legez.
  - Salbuespenezko arrazoiengatik aurreko ikasturteetako akatsak zuzendu ezin badira, ikastetxeak ezin izango du dagokion Ziurtagiri Digitala eman. Kasu horietan, erreferentziazko ikuskariari kontsulta egin ondoren, ikastetxeak, eskura duen informazioan oinarrituta (akta akademikoak), dokumentu bat egingo du egoera eta antzemandako akatsak jasotzeko, bai eta, hala badagokio, akatsak zuzendu direla adierazteko ere.

    Dokumentu hori, eskaneatu ostean, ikaslearen Espedientean sartuko da

- Gogoan hartu EAE barruko ikastetxe-aldaketak ematen direnean, ikasleak ez duela Espediente Akademikoa derrigorrean inprimatua eraman beharrik; ikastetxe berrian matrikulatzean, aurreko ikastetxeak ikaslearen espedientean azaldutako datu guztietara sartzeko aukera izango dute.

⑤ Ziurtagiri digitalak

- 2015-16 ikasturtetik aurrera, Ziurtagiri Digitalak dagokion aplikaziotik lortzen dira, eta Eusko Jaurlaritzak, eta ez ikastetxe konkretu batek, oniritzia ematen dion agiri baten "kopia kautoa" da. Horregatik, 2015-16ko ikasturtetik aurrera, EAEko edozein ikastetxek eskatzen duen edozein ikaslereari agiri hori emateko aukera du, ikastetxean bertan matrikulatuta egon ez bada ere:

  - Behar denean, inprimatuko da, bai etapako ikasketek bukatu dutelako, bai ikaslea beste autonomia erkidego batera joan delako.

  - Eskaera aplikazioan egin zen egunaren hurrengo goizera arte ez dira eskura egongo.

  - Bi motatako ziurtagiri digitalak daude: azkenak eta partzialak.

  - La información del curso actual que consta en el Expediente (calificaciones incluidas en la aplicación "Notas y Faltas").

  - La información de cursos anteriores que consta en el Expediente.

    - Si la información no fuera correcta, porque no se hubiera corregido debidamente en la verificación de cursos anteriores, deberá corregirse previamente a la expedición del Certificado Digital, según se ha detallado.
    - Si por causas excepcionales no pudieran corregirse errores de cursos anteriores, el centro no podrá emitir el correspondiente Certificado Digital. En esos casos, previa consulta al/la inspector/a de referencia, el centro, basándose en la información con la que cuenta (actas académicas) emitirá un documento que recoja la situación y los errores detectados, así como, cuando proceda, reflejar en el mismo la subsanación de los mismos.

      Se procederá a anexar dicho documento escaneado en el Expediente del/la alumno/a

- Se recuerda que en los cambios de centro dentro de la CAPV no es necesario que el alumno o alumna lleve impreso el Expediente Académico ya que, al matricularse en el nuevo centro, podrán tener acceso a todos los datos reflejados por el centro anterior en el expediente del alumno o alumna.

⑤ Certificados digitales

- Desde el curso 2015-16, los Certificados Digitales se obtienen por medio de la aplicación correspondiente y son una "copia auténtica" de un documento que valida el Gobierno Vasco y no un centro concreto. Por ello, a partir del curso 2015-16, cualquier centro de la CAPV puede expedir este documento para cualquier alumno o alumna que lo solicite, aunque no haya estado matriculado en ese centro.

  - Se imprimirá cuando sea necesario, bien por finalización de los estudios de la etapa o por traslado del alumno o alumna a otra comunidad autónoma.
  - No son accesibles hasta la mañana siguiente al día en que se "lanzó" la petición en la aplicación.
  - Hay dos tipos de certificados digitales: finales y parciales.

- Oro har, Lehen Hezkuntza bukatzen duten ikasle guztien **azken ziurtagiria** emango da:
  - Dialogo-taula bat irekitzen da aplikazioan eta taula horretan "mota" agertuko da; "azkena" zabaldu eta aukeratu behar da. Ziurtagiriek ematen diren data adieraziko dute, hots, ikastetxeak ziurtagiria egiteko prozesua martxan jartzen duen data.
  - Behar adina aldiz eska daitezke azken ziurtagiriak eta, horregatik, lehenago sortu ez diren ikasleen Ziurtagiri Digitalak eman ahal izango dira, baita eginbideen bidez aldaketak gertatu diren ikasleenak ere.

- Ikasle bat Lehen Hezkuntza bukatu gabe Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko ikastetxe batera aldatzen bada, ziurtagiri partzial bat emango zaio, eskatzen badu.
  - "Mota" agertuko duen dialogo-taula bat irekitzen da aplikazioan; "partziala" zabaldu eta aukeratu behar da. NANaren edo "ikaslearen identifikatzaile pertsonalaren" (EAEko espediente- zenbakia) bidez eskatzen da,- matrikula-aplikaziotik edo bat etortzeen zerrendatik lor daiteke identifikatzaile hori,-. Ziurtagiriek ematen diren data azalduko dute, hots, ikastetxeak ziurtagiria egiteko prozesua martxan jartzen duen data.

- Ziurtagiri digital batean, azkena edo partziala, akats bat ikusten bada, "notak eta hutsegiteak" edo "Espediente Akademikoa" aplikazioetan eginbidea eginez zuzendu beharko da. Horretarako, horrela jokatuko da:
  - Espedientea gaizki duten ikasle guztientzat sortutako Ziurtagiri Digitala ezabatuko da.
  - Eginbideak behar den tokian sartuko dira.
  - Haien datuak aldatu diren ikasleentzat, azken ziurtagiriak edo ziurtagiri partzialak sortzeko prozesua martxan jarri beharko du berriz ere ikastetxeak.

- 2015-16 ikatsurte baino lehenagoko ikaslegoarentzat (2014-15ekora arte, barne), horrela jokatuko da:
  - "Notak eta hutsegiteak " aplikazioa martxan jarri aurretik ikasketak bukatu zituzten ikasleak:

- Con carácter general, se emitirá el **certificado final** de todos los alumnos y alumnas que terminan la Educación Primaria:
  - En la aplicación se abre un cuadro de diálogo en el que aparecerá "Tipo"; se debe desplegar y seleccionar "Final". Los certificados incorporarán la fecha de emisión, que es la fecha en la que el centro lanza la generación del certificado.
  - Se puede pedir certificados finales todas las veces que sea necesario, por lo que se podrán emitir los Certificados Digitales de los alumnos y alumnas que no se hayan generado anteriormente, y de los alumnos y alumnas en los que se hayan efectuado modificaciones mediante diligencia.

- Se emitirá un **certificado parcial** para aquel alumno o alumna que lo solicite porque se traslada a un centro fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco sin haber terminado la Educación Primaria.
  - En la aplicación se abre un cuadro de diálogo en el que aparecerá "Tipo"; se debe desplegar y seleccionar "Parcial". Se solicita a través del DNI o del "Identificador Personal del alumno" (número de expediente de la CAPV), que puede obtenerse de la aplicación de matrícula o del listado de concordancias. Los certificados incorporarán la fecha de emisión, que es la fecha en la que el centro lanza la generación del certificado.

- Si se detecta un error en un certificado digital, final o parcial, deberá corregirse mediante diligencia en "Notas y Faltas" o en "Expediente Académico", según corresponda, y posteriormente emitir un nuevo certificado digital. Para ello se actuará de la forma siguiente:
  - Se procederá a borrar el Certificado Digital generado para todo el alumnado con expedientes erróneos.
  - Se procederá a la introducción de las correspondientes Diligencias donde corresponda.
  - El centro deberá lanzar de nuevo el proceso de generación de certificados finales o parciales, según el caso, para los alumnos y alumnas cuyos datos se han modificado.

- Para alumnado de cursos anteriores al 2015-16 (hasta 2014-15 incluido), se procederá de la siguiente manera:
  - Alumnado que finalizó sus estudios antes de que se pusiera en marcha la aplicación "Notas y Faltas":

- Ikaslearen eskariz, historial akademikoa paperez egingo du ikastetxeak, paperezko formatuan zainduta dauden aktak edota ikaslearen espedientea oinarritzat hartuta. Ez da Espediente aplikazioa erabiliko.

- ”Notak eta hutsegiteak “aplikazioa martxan jarri ondoren ikasketak bukatu zituzten ikasleak.

  - Ikaslearen eskariz, Historial Akademiko baliagarria emango du ikastetxeak, Espedientea aplikazioan eta “inprimatzea kontsultatzea “erlaitzaren bidez.

⑥ Lekuz aldatzeagatik txosten pertsonala

- Lortutako kalifikazio partzialak, helburuak zein mailatan lortu diren, gaitasunen maila… agertuko dituen txosten pertsonala egin beharko du ikastetxeak, ikasturteak bukatu aurretik ikastetxez aldatzen den ikaslearentzat.

- A petición del alumno o alumna, el centro expedirá en papel el historial académico tomando como base las actas y/o el expediente del alumno o alumna custodiados en formato papel. No se utilizará la aplicación de Expediente.

- Alumnado que finalizó sus estudios con posterioridad a la puesta en marcha de la aplicación “Notas y Faltas”

  - A petición del alumno o alumna, el centro expedirá el Historial Académico válido mediante la aplicación de Expediente, a través de la pestaña “Consulta de Impresión”.

⑥ Informe personal por traslado

- El centro escolar deberá elaborar un informe personal en el que consten las calificaciones parciales obtenidas, grado de consecución de los objetivos, nivel de competencias,… para aquel alumno o alumna que cambie de centro antes de finalizar el curso.

OHARRA
Hau gogorarazten dugu i informazio-atal bat dago agiri honetan aipatzen diren Saileko aplikazio informatiko bakoitzean, eta atal horretan aplikazio bakoitzari buruzko adierazpen espezifikoak aurki daitezke.

NOTA
Se recuerda que en cada una de las aplicaciones informáticas del Departamento mencionadas en el presente documento hay un apartado de información i en el que se pueden encontrar indicaciones específicas de cada una de las mismas.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA MINIMOAK

LEHEN HEZKUNTZAKO SEIGARREN MAILA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ZIENTZIARAKO KONPENTENTZIA
LEHEN HEZKUNTZAKO SEIGARREN MAILA

DIMENTSIOAK

1. DIMENTSIOA. EZAGUTZA ZIENTIFIKOAREN ULERMENA

Zientzien oinarrizko kontzeptuak mundu naturaleko sistemekin eta prozesuekin lotzea, legeetan, ereduetan eta teorietan gauzatuz, eta interpretazio zientifikoa zientifikoak ez diren beste errealitate batzuetatik bereiztea, zientziak enpirikoki egiaztagarriak diren iragarpenak egiten dituela aitortuz, produktuak eta zientziaren izaera ulertzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

1.1. Zientziaren oinarrizko kontzeptuak (izaki bizidunak. giza gorputza, materia eta energia) mundu naturaleko sistemekin eta prozesuekin erlazionatzea, ereduetan gauzatuz, hor hartzen baitute zentzua.

a) Ingurune naturaleko elementu nagusiak identifikatzen ditu, ezaugarri garrantzitsuenak, antolaketa eta elkarreraginak aztertuz.
b) Kontzeptu orokorren interpretatzen ditu adibide zehatzak erabiliz.
c) Kontzeptu zientifikoak sistema materialen propietateekin eta jokabideekin erlazionatzen ditu.
d) Kontzeptuen arteko antzekotasunak eta aldeak identifikatzen eta deskribatzen ditu.
e) Materiaren aniztasuna eta aldaketak sailkatu eta ordenatzen ditu, bereizgarrietatik eta propietateetatik abiatuta.

3. MULTZOA IZAKI BIZIDUNAK + 2. MULTZOA GIZAKIA (Gizakiaren multzoa izaki bizidunen ezaugarriekin batera landu daiteke, konparaketak egin eta

- Fenomenoak eta arazoak bereizten ditu (*fenomenoak*: haizea, euria, ugalketa; *arazoak*: lurrikarak, lubiziak, uholdeak, pandemia).
- Izaki bizidunaren modeloa/eredua ulertu egiten du: izaki bizidun guztiek egitura bat dute, aldaketak jasotzen dituzte, kanpoko eragileekin erlazionatzean erantzun bat sortzen dute; ugaldu egiten dira).
- Izaki bizidunak eta ez-bizidunak bereiztu eta sailkatu egiten ditu irizpide zientifikoei jarraituz.
- Izaki bizidunak eta ez-bizidunak deskribatzea irizpide zientifikoei jarraituz.

- Grafiko, eredu eskema edo egoera hurbil eta ezagun batean gizakiaren bizi-funtzioak egiten parte hartzen duten organo nagusiak bereizi eta kokatzen ditu.
- Izaki bizidunek oinarrizko funtzioak betetzeko beharrezkoak diren sistemak, aparatuak, organoak eta zelulak) identifikatzen ditu (irudietan, testuan).
- Landareen nutrizioan fotosintesia eta arnasketa prozesuak ulertzen eta bereizten ditu.
- Izaki bizidunen (giza gorputzena baita) antolaketa-mailak ulertzen du (zelula, ehunak, organoak, aparatuak eta sistemak) eta gai da eskala batean ondo adierazteko.
- Animalia ornodunak eta ornogabeak talde nagusienak bereziten ditu, eta dagokien ezaugarria orokorrak identifikatu ahal ditu (ornoa bai/ez, hanka-kopuruak/ hegoak bai/ez; …).
- Gidak erabiliz animaliak eta landareak sailkatu egiten du. (intsektuak, armiarmak…).
- Izaki bizidunen habitatak begiratzen eta identifikatzen ditu.
- Katea trofikoetan erlazio trofikoak identifikatzen ditu.

2. MULTZOA GIZAKIA ETA OSASUNA

- Elikadura osasuntsua/ez osasuntsua, elikadura orekatua/ez orekatua bereizten ditu.
- Elikadura osasuntsua eta orekatua identifikatu, aukeratu egiten du egoera hurbil batean.

4. MULTZOA MATERIA ETA ENERGIA

- Materiaren izaera ezagutzen du: materia mugitzen dauden partikulez osatua dago (begirada mikro).
- Energia eta materia bereizten ditu, eta batak bestean duen eragina egoera arruntetan identifikatzen ditu (materiaren egoera fisikoan -uraren kasua, janariak prestatzean adibidez-).
- Materiaren propietateak (masa eta bolumena) eta baita masa eta pisua bereizten ditu.
- Energia iturri berriztagarriak eta ez-berriztagarriak identifikatzen ditu, horretarako adibideak aipatzen ditu.

- Energia motak batzuk (3 gutxienez) identifikatzen edo bereizten ditu (energia mekanikoa, argi-energia, soinu-energia, energia elektrikoa, energia termikoa eta energia kimikoa) egoera hurbil eta ezagun batean.
- Elektrizitatea zer den ulertzen du eta korronte elektrikoa deskribatu dezake. Zirkuitu elektrikoaren sistema ezagutzen du.
- Makina ezagunen funtzioak deskribatzen ditu. .
- Deskribatzen du zer propietate dituzten erabilera arrunteko material batzuek eta zer portaera duten argiaren, elektrizitatearen beroaren aurrean.
- Badaki materiaren izaera ez dela aldatzen aldaketa fisikoetan, ez ostera kimikoetan (*aldaketa fisikoak*: uraren egoera fisikoak, gaileta bat apurtzean; *aldaketa kimikoak*: oxidazioa).

1.2. Zientzien datu, gertaera eta prozedura garrantzitsuak ezagutu eta deskribatzea, azalpen zientifikoetan eta problemen ebazpenean aplikatuz.

a) Prozesu baten faseak kronologikoki ordenatzen ditu; esate baterako izaki bizidun baten hezte prozesuak (intsektua landare -loreduna gizakia); energia sortzen denetik etxera ailegatu arte.

b) Gertaera, datu eta prozedura zientifiko adierazgarrienak identifikatu eta deskribatzen ditu (1.1.ean aipatutako edukien inguruan).

c) Termino zientifikoak (materia, energia, elektrizitatea, korronte elektrikoa, zirkuito elektrikoa, masa, bolumena, pisua, nutrizioa, erlazioa,…) sinboloak (T, p, %), magnitudeen unitateak (kg; ºC; …), eskalak ezagutu eta erabiltzen ditu.

2. DIMENTSIOA: ERREALITATE NATURALAREN AZALPENA (1. Dimentsioan aipatutako ezagupenekin erlazioa dutenak).

Sistema eta fenomeno naturalak deskribatu, azaldu eta aurreikustea, eta aplikazio zientifiko-teknologiko garrantzitsuenak aztertzea ezagutza zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiliz testuinguru pertsonal eta sozial garrantzitsuetan errealitatea ebidentzia zientifikotik ulertzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

2.1. Iturri desberdinetan zientziarekin erlazionatutako gaiei buruz informazio garrantzitsua kokatzea eta aukeratzea, kritikoki baloratuz.

a) Proposatutako lanera egokitutako informazio-iturriak identifikatzen ditu.
b) Informazioa biltzeko tresnen erabilgarritasuna, aplikazioak eta teknikak ezagutzen ditu.
c) Iturri desberdinetako informazioa (analogikoak edo digitalak) identifikatu eta kokatzen du, ikerketa zientifikoko jarduera edo lan batean proposatutako helburuarekin bat etorriz.
d) Datuak modu ordenatuan aukeratzen ditu, baita modu esperimentalean lotutakoak eta planteatzen diren egoeren inguruko hainbat informazio ere.
e) Aukeratutako informazioa alderatu, kontrastatu, ordenatu, sailkatu, biltegiratu eta berreskuratzen du.

2.2. Sistema eta fenomeno naturalak deskribatu, azaldu eta aurreikustea, ezagutza zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiliz testuinguru pertsonal eta sozial garrantzitsuetan.

a) Zenbait objektu material eta fenomeno natural deskribatzen ditu (ohiko makinak, ekosistemak, bizi-funtzioak, elektrizitatea, epidemia, biodibertsitatearen galera)
b) Prozesuak azaltzen ditu (uraren zikloa, landareen nutrizioa -fotosintesia eta arnasketa e.a), dagoeneko ezagutzen diren edo erraz ezagut daitezkeen gertaerak interpretatuz, testuinguru orokorrean kokatuz.
c) Sistema baten jokabidea iragartzen du, eredu batetik abiatuta, eta gerta daitezkeen aldaketak aztertzen ditu (e.a. ekosistema batean espezie inbaditzailea sartuz gero -plumeroak, erreketako karramarroa-; tenperaturaren aldaketak materian izan dezakeen eragina; …).
d) Fenomeno natural baten arrazoiak eta ondorioak zerrendatu eta azaltzen ditu, eta modu arrazoituan lortzen ditu ondorioak, eredu edo teoria batetik abiatuta.
e) Kontzeptuak eta adierazpen grafiko eta sinbolikoak erlazionatzen ditu (beti ere kontuan oinarrizko mailan).

2.3. Modu aktiboan eta kritikoan interpretatzea mezu, produktu, gertaera eta fenomeno zientifikoak, hizkuntza eta inguru desberdinak erabiliz, bai digitalak, bai analogikoak.

a) Zientzien inguruko testu jarraituak (deskribapenezkoak eta azalpenezkoak) interpretatzen ditu.

b) Testu etenen datuak irakurtzen ditu (taulak, diagramak, grafikoak, argazkiak, marrazkiak, eskemak, organigramak…) eta edukia interpretatu du.

2.4. Informazio-, azalpen- eta argudio-mezuak eta testuak egitea, ikusitako objektuak eta fenomenoak deskribatuz, ezagutza zientifikoak gertaeren interpretaziora aplikatuz edo hipotesi, eredu edo teoria jakin bat justifikatuz.

a) Ekoizpenak planifikatzen ditu, egitura zehaztuz eta euskarri motara egokituz, eta egiteko beharrezkoak diren pausoak aplikatzen ditu (e.a. gizakiok burututako bizi funtzioak eta gorputzeko organoa, aparatuen eta sistemen arteko lotura; ohitura ez-osagungarriak eta ondorioak; energia ez-berriztagarrien erabilera eta ingurumen arazoak,…)
b) Esperientzia jakin batean jarraitu dituen pausoak deskribatu ditu.
c) Azalpen-testu jarraituak egiten ditu, ezagutza zientifikoak ekintzen interpretaziora aplikatuz.
d) Informazioa tauletan, fitxetan, grafikoetan, eskemetan, mapa kontzeptualetan egiten du, modu argi eta ordenatuan, eta kasu bakoitzean prozedura edo teknika egokia aplikatuz.
e) Hizkuntza zientifikoaren forma egokiak erabiltzen ditu ekoizpenetan (beti ere minimoak oinarritzat harturik).

3. DIMENTSIOA: PROBLEMEN IKERKETA (Seguraski hauxe da dimentsiorik zailena aurrera eramateko) Astirik egonez gero, egun batzuetako ikerketa txikiak plantea daitezke (haziaren hazkundea baldintza ezberdinetan adibidez (https://es.slideshare.net/mines.gb/presentacin-experimento-plantas) :egoera normalean, ilunetan, ur barik, ur askorekin). Helburua aldagaien kontrola eta prozesuaren faseak begiratzea eta identifikatzea izango litzateke.

Izaera zientifikoko problemak identifikatzea eta dokumentazio-ikerketa txikiak eta ikerketa esperimentalak egitea egoera problematikoen tratamenduan, jarduera zientifikoaren berezko gaitasunak eta jokabideak modu egokian baloratuz, erabiliz eta erakutsiz, aipatutako egoera problematiko horiek ebazteko eta erabaki arduratsuak hartzeko aurretiazko pauso gisa ebidentziak lortzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

3.2. Ikerketa dokumental eta esperimental txikiak egitea egoera problematikoen ebazpenean, jarduera zientifikoaren gaitasunak modu egokian erabiliz.

a) Teknologia berriak erabiltzen ditu informazio-iturrien (anitzak eta fidagarriak) bilaketan eta datu esperimentalen bilketan (adibidez, oso aproposa izan daiteke egungo egoera aprobetxatzea).
b) Segurtasun-arauak identifikatzen ditu behaketa-tresnak eta laneko materialak erabiltzean arriskuak saihesteko.
c) Beharrezko baliabideak behar bezala aukeratzen ditu (aukeratutako ikerketari zuzenduta).
d) Hipotesi errazak jartzen ditu mahai gainean, behaketetatik eta informazio-bilketatik abiatuta.
e) Diseinu esperimentala edo ekintza-plana egiten du.
f) Ikerketaren plangintzan ezarritako probak eta zereginak gauzatzen ditu.
g) Datuak hartu eta ondorioak ateratzen ditu.
h) Bere lanaren emaitza hasierako helburuarekin edo hasierako hipotesiarekin kontrastatzen du.
i) Ikerketaren emaitzak jakinarazten ditu eta txostenak egiten ditu, zenbait bitarteko eta euskarri analogiko eta/edo digital idatziak edo ahozkoak erabiliz.

3.3. Zenbait esperientzia eta laborategiko praktika burutu metodo zientifikora hurbilketarako.

- Banakako lanean ahalegina egiten du eta autonomiaz jarduten du, lanean arduraz eta modu aktiboan jardunez.
- Esperimentuetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz (euskarri digital zein analogikoak): taulak, grafikoak, kontzeptuzko mapak eta abar.
- Laborategiko oinarrizko materialaren zerrenda egiten du eta zertarako erabil daitezkeen adierazten.
- Zenbait prozedura erabiltzen ditu gorputz baten masa eta bolumena neurtzeko.
- Nahaste baten osagaiak banatzeko iragazketa, lurrunketa prozedurak erabiltzen ditu:.
- Esperimentuan emaitzak jakinarazten ditu.

- Elektrizitateak inguruneko zenbait objektutan eta aparatutan dituen eragin batzuk aztertu, ikusi eta azaltzen ditu.

4. DIMENTSIOA: ERABAKIAK HARTZEA, EZAGUTZA ZIENTIFIKOAK ERABILIZ

Mundu naturalari eta giza jarduerak bertan sortzen dituen aldaketei buruzko erabakiak modu arduratsuan, autonomoan eta kritikoan hartzea, ezagutza zientifikoak bizitzako arlo eta egoera guztietan behar bezala erabiliz, bizitza pertsonala eta soziala hobetzeko eta ingurua mantentzeko eta hobetzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

4.1. Garapen iraunkorra sustatzen duten proposamenak modu autonomoan eta kritikoan egitea giza jarduerak ingurune naturalean sortzen dituen aldaketen aurrean, ezagutza zientifikoak modu egokian erabiliz, kausak aztertuz eta ondorioak balioetsiz.

a) Modu kritikoan balioesten ditu giza jarduerek ingurumenean eragiten dituzten ondorioak eta horrek ingurumenean eragiten dituen aldaketen gaineko gogoeta egiten du.

b) Gizakiek baliabide naturalei emandako erabilera adibideekin adierazten du, baliabideek eta horien eskasiak pertsonen bizitzarako duten garrantziaz jabetzen da. Hori zaintzen laguntzen du, beharrezkoa ez den kontsumoa saihestuz.

c) Ingurumenaren degradazio-arazoa ulertzen du eta mantentzen eta berreskuratzen lagunduko duten ekintzak proposatzen ditu.

d) Oreka ekologikoa eta ondare naturala mantentzea defendatzearen eta berreskuratzearen aldeko proiektuak eta jarrerak identifikatzen ditu.

e) Energia berriztagarrien iturrien abantailak ezaugarritzen ditu berriztagarriak ez direnen aurrean.

4.2. Jokabideak erakutsi eta osasun-ohiturak, zaintza pertsonala eta bizitza-estilo osasungarriak garatzea, banaka eta taldeka arriskuak saihestuz eta alde indibidualak onartuz eta errespetatuz.

a) Elikadura osasungarriko ohiturak eta ohitura sozialak ezagutu eta balioesten ditu.

b) Higienearekin, gorputzaren zaintzarekin, osasunaren zaintzarekin (drogak arbuiatu), eta gaixotasunen (txertoak) eta istripuen prebentzioarekin zerikusia duten ohiturak identifikatzen ditu (egungo egoera erabiltzea gomendatzen da).

c) Hazkundearen eta sexu-bereizketaren eraginez gorputzean gertatzen diren eraldaketak ezagutzen ditu eta garapenari dagokionez pertsonengan gertatzen diren aldeak onartzen ditu, pertsona guztien berdintasuna balioetsiz.

MATEMATIKARAKO KONPENTENTZIA
LEHEN HEZKUNTZAKO SEIGARREN MAILA

DIMENTSIOAK

1. DIMENTSIOA: KANTITATEA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

1. Eguneroko bizitzako zenbakizko testuak (zenbaki arruntenak, zenbaki osoenak, zatikienak eta hamartarrenak) interpretatzea, arrazoiketa egokiak erabiliz.

1. Zenbaki arruntak, osoak, zatiki errazak eta hamartarrak irakurtzen eta idazten ditu.
2. Zenbaki osoak, hamartarrak eta oinarrizko zatikiak konparazioz ordenatzen ditu, zenbakizko zuzenean adierazten ditu eta mota bateko zenbakiak beste mota batzuetako zenbaki gisa adierazten ditu.
3. Konposatzen, deskonposatzen eta biribiltzen ditu zenbaki arruntak.
4. Zenbait zenbaki mota erabiltzen ditu (arruntak, osoak, hamartarrak, zatikiak, ordinalak) benetako testuinguruetan.

2. Eragiketak eta kalkuluak egitea zenbaki arruntekin eta hamartarrekin, zenbaki horien eta zenbakien eta ehunekoen artean baliokidetasunak ezartzea eta zuzeneko proportzionaltasunean hastea eguneroko bizitzako problemen testuinguruetan.

1. Oinarrizko lau eragiketen buruzko kalkuluko taulak menderatzen ditu.
2. Oinarrizko eragiketekin, eta zenbaki arruntekin eta hamartarrekin lotutako buruzko kalkuluko zenbait estrategia erabiltzen ditu: 10ez, 100ez, 1000z, 0,1ez, biderkatzea; 10ez, 100ez, 1000z zatitzea.
3. Zenbaki arruntak eta hamartarrekin batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak egiten ditu algoritmo akademikoekin eta kontuan hartzen ditu eragiketen hierarkia eta parentesien erabilera kalkuluak egitean.
4. Irizpidez aplikatzen ditu emandako zenbaki baten multiploen eta zatitzaileen kontzeptuak.

5. 2z, 3z, 5ez eta 10ez zatigarritasun-irizpideak aplikatzen ditu.

6. Berbidurak, kuboak eta 10 berrekizuneko berreketak kalkulatzen ditu.

7. Zenbaki baten ehunekoa kalkulatzen du.

8. Ondorengo zatikien, hamartarren eta ehunekoen arteko zenbakizko baliokidetasunak aplikatzen ditu: (1/2; 0,5; % 50 eta 1/4; 0,25; % 25), mezuak ulertzeko eta problema errazak ebazteko.

9. Hiruko erregela erabiltzen du proportzionaltasun zuzeneko egoeretan.

3. Neurriarekin lotutako eguneroko bizitzako zenbakizko testuak interpretatzea, neurri unitate erabilienekin eragiketak egitea, eta luzera-, azalera-, pisu- edo masa-, edukiera-, denbora- eta angelu-neurriak zehaztasunez adieraztea eguneroko testuinguruetan.

1. Neurriekin eta haien magnitudeekin lotutako eguneroko bizitzako zenbakizko testuak interpretatzen ditu.

2. Sistema Metriko Hamartarreko unitateak eta magnitudeak identifikatzen ditu, alderatzen, ordenatzen eta elkarren artean bihurketak egiten ditu problemak ebazteko.

3. Angelu-neurriekin kalkuluak egiten ditu problemak ebazteko testuinguru batean.

4. Problemak ebazten ditu neurri-unitate ohikoenak erabiliz, unitate batean adierazitako neurri bat beste unitate batean adieraziz, eta emaitzak unitate egokienean adierazten ditu.

2. DIMENTSIOA: ESPAZIOA ETA FORMA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

1. Irudi lauen (triangeluak, laukiak eta zirkuluak) oinarrizko elementuak eta propietateak identifikatzea, erreproduzitzea eta deskribatzea, eta zenbait irizpideen arabera sailkatzea (aldeak eta angeluak), propietateak erabiliz perimetroak eta azalerak kalkulatzeko eguneroko bizitzako problemen ebazpenean.

1. Poligonoen oinarrizko elementuak (aldeak, angeluak, erpinak eta diagonalak) antzematen eta identifikatzen ditu.
2. Zirkunferentziaren oinarrizko elementuak identifikatzen eta bereizten ditu: zentroa, erradioa eta diametroa.
3. Poligonoak identifikatzen eta izendatzen ditu, alde kopuruaren arabera.
4. Triangeluak eta laukiak sailkatzen ditu, aldeen, angeluen eta aldeen paralelotasunaren arabera.
5. Laukizuzenaren, karratuaren eta triangeluaren perimetroa eta azalera kalkulatzen ditu.
6. Zirkunferentziaren perimetroa eta zirkuluaren azalera kalkulatzen ditu.

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO ETA LITERATURARAKO KONPENTENTZIA
LEHEN HEZKUNTZAKO SEIGARREN MAILA
EUSKARA, GAZTELANIA, INGELESA

EUSKARA ETA LITERATURA, ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA

DIMENTSIOAK

1. DIMENTSIOA: ENTZUMENA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK. LORPEN ADIERAZLEAK

Hurrengo irizpideak ikasleen esperientziatik hurbil dauden gaiei buruzko pertsonen arteko harremanen erabilera eremuetako, komunikabideetako, haur-literaturako, literatura klasiko eta egungo literaturako eta ikaskuntzako erabilera arloetako ohiko ahozko testu laburrak ulertzeko aplikatuko dira.

Ahozko ebaluazioan, testuak funtsezkoak dira. Testu horiek antolatzen dira erabilera-eremuen, testu-moten eta generoen arabera.

Aukeratzen ditugun testu motak:

1. Deskribapena (ordutegiak, deskribapenak…)
2. Narrazioa (kontakizunak, albisteak …)
3. Azalpena (esplikazioak, oharrak, aurkezpenak…)
4. Argumentazioa (iragarkiak, debateak, zinema-kritikak …)
5. Instrukzioa (arauak, errezetak, jarraibideak …)
6. Transakzioa (mezuak, parte hartzeko programak, iritziak…)

Erabilera-eremua	Generoak (testuak)
Pertsonen arteko harremanak	Elkarrizketak, jarraibideak, esperientzien kontakizunak, mezu laburrak, arauak...
Komunikabideak	Berriak, elkarrizketak, oharpenak, iragarkiak...
Ikasketak	Deskribapenak (pertsonak, objektuak, animaliak...), jarraibideak (tresna batek nola funtzionatzen duen), dokumentalak, aurkezpenak, definizioak, azalpenak...
Literatura	Kantak, olerkiak, kontakizunak, antzezpenak, ipuinak...

1.1. ZENTZU OROKORRA ULERTZEA

Ohiko ahozko testuen zentzu orokorra eta ideia nagusiak ulertzea hainbat erabilera arloetakoak (pertsonen arteko harremanak, komunikabideak, haur-literatura, literatura klasiko eta egungo literatura eta ikaskuntza), euskarri eta genero ugaritan.

1. Testuaren gaia ulertzen du nabaria denean.
2. Zentzu orokorra ulertzen du ohiko testuetan.
3. Testuaren ideia nagusiak identifikatzen ditu era nabarian agertzen direnean.

1.2. INFORMAZIO ZEHATZA AUKERATZEA

Pertsonen arteko harremanen erabilera arloetako, komunikabideetako, haur-literaturako, literatura klasiko eta egungo literaturako eta ikaskuntzako erabilera arloetako ohiko ahozko testuetan informazio zehatza aukeratzea.

1. Eskatutako informazio zehatz gehiena topatzen du.
2. Jasotako informazio gehiena erabiltzen du proposatutako helburua betetzeko.

1.3. XEDEA ETA KOMUNIKAZIO-EGOERAREN ELEMENTUAK ANTZEMATEA

Pertsonen arteko harremanen erabilera arloetako, komunikabideetako, haur-literaturako, literatura klasiko eta egungo literaturako eta ikaskuntzako erabilera arloetako ohiko ahozko testuen komunikazio egoeraren elementuak eta asmoa antzematea.

1. Ohiko testu gehienetan, igorlea antzematen du.
2. Ohiko testu gehienetan, hartzailea antzematen du.
3. Ohiko testuen genero bat edo beste identifikatzen du.
4. Erabilitako erregistroa antzematen du oso hurbilak diren testuetan.
5. Ohiko testuen xedea identifikatzen du, esplizituki adierazten denean.

1.4. EDUKIA INTERPRETATZEA

Pertsonen arteko harremanen erabilera arloetako, komunikabideetako, haur-literaturako, literatura klasiko eta egungo literaturako eta ikaskuntzako erabilera arloetako ohiko ahozko testuen edukia interpretatzea.

1. Informazioak eta iritziak bereizten ditu oso nabariak direnean.
2. Testuinguruaren laguntzaz, ohiko testuen edukiaz zuzeneko inferentziak egiten ditu.

3. Zenbait diskriminazio-adierazpenak eta zenbait aurreiritzi antzematen ditu.
4. Linguistikoak ez diren testuaren elementu batzuen esanahia antzematen du.
5. Informazio bat edo beste interpretatzen du ohiko testuetan, norbere ideietatik abiatuta.

1.5. HIZKUNTZAREN ERABILERA-EZAGUPENAK ERABILTZEA

Ahozko testuen ulermen-arazoak konpontzeko hizkuntzaren erabilera-ezagupenak erabiltzea.

1. Hizkuntza-ezagutzak erabiltzen ditu ahozko testu gehienen ulermenean.
2. Testuan erabilitako oinarrizko hiztegia ulertzen du.
3.

2. DIMENTSIOA: IRAKURMENA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK. LORPEN ADIERAZLEAK

Hurrengo irizpideak ikasleen esperientziatik hurbil dauden gaiei buruzko pertsonen arteko harremanen erabilera eremuetako, komunikabideetako, haur-literaturako, literatura klasiko eta egungo literaturako eta ikaskuntzako euskarri ugaritako eta zenbait generotako idatzizko testu laburrak ulertzeko aplikatuko dira.

Idatzizko ebaluazioan, testuak funtsezkoak dira. Testu horiek antolatzen dira erabilera-eremuen, testu-moten eta generoen arabera.
Hautatzen ditugun testu motak honako hauek dira:

1. Deskribapena (liburuxkak, mapak, ordutegiak, deskribapenak …)
2. Narrazioa (eleberri zatiak, kontakizunak, albisteak …)
3. Azalpena (entsegu akademikoak, grafikoak, azalpen-testuak …)
4. Argudioak (zuzendariari gutunak, iragarkiak, zinema-kritikak …)
5. Instrukzioa (erregelamenduak, errezetak, jarraibideak …)
6. Transakzioa (mezu elektronikoak, gutunak, foroak …)

Erabilera-eremua	Generoak (testuak)
Pertsona arteko harremanak	Gutunak, jarraibideak, gonbidapenak, oharpenak, oharrak, ordutegiak, errezetak, menuak, elkarrizketak...
Komunikabideak	Liburuxkak, publizitatea, berriak, elkarrizketak, web guneak, eguraldiari buruzko informazioa, horma-irudiak, tiketak, ekintza programak, katalogoak, aipamenak, informazio artikuluak...
Akademikoa	Deskribapenak (pertsonak, objektuak, animaliak...), jarraibideak (tresna batek nola funtzionatzen duen), informazio-liburuxkak (lehen laguntzak, turismo-gidak...), dibulgaziozko testuak, azalpenak, definizioak, azalpenak, laburpenak, grafikoak, eskemak, testuliburuak, biografiak, entziklopediak, hiztegiak, glosarioak, web guneak.....
Literatura	Kantak, olerkiak, kontakizun laburrak, antzezpenak, ipuinak, alegiak, komikiak...

2.1. ZENTZU OROKORRA ULERTZEA

Ohiko idatzizko testuen zentzu orokorra eta ideia nagusiak ulertzea hainbat erabilera arloetakoak (pertsonen arteko harremanak, komunikabideak, haur-literatura, literatura klasiko eta egungo literatura eta ikaskuntza), euskarri eta genero ugaritan.

1. Testuaren gaia ulertzen du nabaria denean.
2. Zentzu orokorra ulertzen du ohiko testuetan.
3. Testuaren zenbait ideia antzematen ditu, ideia nagusiak identifikatu gabe.
4. Testuaren egiturako atal batzuk ezagutzen ditu.
5. Elementu grafikoen, ikonikoen eta multimodalen esanahia erabiltzen du idatzizko testuak eta testu digitalak ulertzeko.

2.2. INFORMAZIO ZEHATZA AUKERATZEA

Pertsonen arteko harremanen erabilera eremuetako, komunikabideetako, haur-literaturako, literatura klasiko eta egungo literaturako eta ikaskuntzako euskarri ugaritako eta zenbait generotako ohiko idatzizko testuetan informazioa aukeratzea.

1. Eskatutako informazio zehatz gehiena topatzen du.
2. Jasotako informazio gehiena erabiltzen du proposatutako helburua betetzeko.

2.3. XEDEA ETA KOMUNIKAZIO-EGOERAREN ELEMENTUAK ANTZEMATEA

Idatzizko testuen xedea eta komunikazio egoeraren elementuak antzematea osagai linguistiko (hiztegia, esapideak…) eta ez-linguistikoak (irudiak, ikonoak…) kontuan hartuz.

1. Ohiko testu gehienetan, igorlea antzematen du.
2. Ohiko testu gehienetan, hartzailea antzematen du.
3. Ohiko testuen genero bat edo beste identifikatzen du.
4. Erabilitako erregistroa antzematen du oso hurbilak diren testuetan.
5. Ohiko testuen xedea identifikatzen du, esplizituki adierazten denean.

2.4. EDUKIA ETA FORMA INTERPRETATZEA

Pertsonen arteko harremanen erabilera eremuetako, komunikabideetako, haur-literaturako, literatura klasiko eta egungo literaturako eta ikaskuntzako euskarri ugaritako eta zenbait generotako ohiko idatzizko testuetan edukia eta forma interpretatzea.

1. Informazioak eta iritziak bereizten ditu oso nabariak direnean.
2. Testuinguruaren laguntzaz, ohiko testuen edukiaz zuzeneko inferentziak egiten ditu.
3. Zenbait diskriminazio-adierazpenak eta zenbait aurreiritzi antzematen ditu.
4. Linguistikoak diren eta ez diren testuaren elementuen esanahia lotzen du.
5. Informazio bat edo beste interpretatzen du ohiko testuetan, norbere ideietatik abiatuta.

2.5. HIZKUNTZAREN ERABILERAREN EZAGUPENAK ERABILTZEA

Hizkuntzaren erabilerari buruzko ezagutzak erabiltzea idatzizko testuetan ulermen-arazoak konpontzeko.

1. Hizkuntza-ezagutzak aplikatzen ditu idatzizko testu gehienen ulermenean.
2. Testuan erabilitako oinarrizko hiztegia ulertzen du.

3. DIMENTSIOA: IDAZMENA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK. LORPEN ADIERAZLEAK

Hurrengo irizpideak aplikatuko dira ikasleen esperientziatik hurbil dauden gaiei buruzko testu laburrak idazteko. Erabilera arrunteko eta egitura errazeko testuak izango dira.

Erabilera-eremua	Generoak (testuak)
Pertsona arteko harremanak	Gutunak, egunerokoa, jarraibideak, gonbidapenak, oharpenak, oharrak, ordutegiak, errezetak, menuak, elkarrizketak...
Komunikabideak	Publizitatea, berriak, elkarrizketak, web guneak, eguraldiari buruzko informazioa, horma-irudiak, tiketak, ekintza programak, katalogoak, aipamenak, informazio artikuluak...
Akademikoa	Deskribapenak (pertsonak, objektuak, animaliak...), jarraibideak (tresna batek nola funtzionatzen duen), informazio-liburuxkak (lehen laguntzak, turismo-gidak...), azalpenak, laburpenak, grafikoak, eskemak, biografiak...
Literatura	Olerkiak, kontakizun laburrak, esketxak, ipuinak, komikiak...

3.1. KOMUNIKAZIO EGOERAREN EZAUGARRIAK KONTUAN IZATEA

Testu idatzien ekoizpen gidatuan, komunikazio egoeraren ezaugarriak kontuan izatea, agertzen diren osagai linguistiko (hiztegia, esapideak…) eta ez-linguistikoak (irudiak, ikonoak,…) erabiliz.

1. Testuaren xedea adierazten du zenbait osagai linguistiko erabiliz.
2. Testua hartzaileari egokitzen dio, hori esplizitu egiten den egoeretan.
3. Eskatutako testu generoa errespetatzen du.

3.2. TESTU IDATZIAK SORTZEA

Idatzizko testu laburrak ekoiztea era gidatuan komunikazio egoeran agertzen diren osagai linguistiko (hiztegia, esapideak,…) eta ez-linguistikoak (irudiak, ikonoak…) erabiliz.

1. Gaia garatzen du eta garrantzizko zenbait informazio ematen du.
2. Informazioa ulergarri eta modu koherentean egituratzen du.
3. Lokailuak noizbehinka erabiltzen ditu.
4. Hiztegi ugaria eta gaiari egokitua erabiltzen du.
5. Ideia gehienak era logikoan egituratu eta ordenatzen ditu.
6. Oinarrizko arau gramatikal, lexiko eta ortografikoak errespetatzen ditu.
7. Testua argi eta ordenatuta aurkezten du.

LEHENENGO ATZERRIKO HIZKUNTZA

Konpetentziaren ebaluazioan testuak funtsezkoak dira. Ahozko eta idatzizko testu horiek erabilera-esparruen, testu-moten eta testu-generoen inguruan antolatzen dira.

Erabilera-eremuak

-Pertsonen arteko harremanak.

-Komunikabideak.

-Akademikoa.

-Literatura.

Testu-motak

1. Deskribapena (ordutegiak, liburuxkak, mapak, deskribapenak…)
2. Narrazioa (kontakizunak, albisteak, eleberri zatiak…)
3. Azalpena (esplikazioak, oharrak, aurkezpenak, azalpen-testuak…)
4. Argumentazioa (iragarkiak, debateak, zinema-kritikak…)
5. Instrukzioa (arauak, errezetak, jarraibideak…)
6. Transakzioa (mezuak, parte hartzeko programak, iritziak, gutunak, foroak…)

Generoak: dimentsio bakoitzean zehaztuko dira.

1. DIMENTSIOA. ENTZUMENA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK. LORPEN ADIERAZLEAK

Hurrengo irizpideak aplikatuko dira ikasleen esperientziatik hurbil dauden gaiei buruzko ahozko testu laburrak ulertzeko. Erabilera arrunteko eta egitura errazeko testuak izango dira, argi eta astiro ahoskatuak eta artikulatuak.

Esparrua	Testuak
Pertsonen arteko harremanak	Elkarrizketak, jarraibideak, esperientzien kontakizunak, mezu laburrak, arauak,...
Komunikabideak	Berriak, elkarrizketak, oharpenak, iragarkiak,...
Akademikoa	Deskribapenak (pertsonak, objektuak, animaliak...), jarraibideak (tresna batek nola funtzionatzen duen), dokumentalak, aurkezpenak, definizioak, azalpenak,...
Literatura	Kantak, olerkiak, kontakizunak, antzezpenak, ipuinak,...

1.1. ZENTZU OROKORRA ULERTZEA

Ahozko testuetan zentzu orokorra ulertzea, komunikazio egoeran agertzen diren elementu linguistiko (hiztegia, esapideak…) eta ez-linguistikoak (irudiak, soinuak, keinuak…) kontuan hartuz.

1. Testuaren gaia ulertzen du nabaria denean.
2. Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du nabaria denean.
3. Testuaren ideia nagusiaren bat identifikatzen du.
4. Testuaren barruko sekuentzia partzialki antzematen du.

1.2. BERARIAZKO INFORMAZIOA ULERTZEA

Ahozko testuetan berariazko informazioa ulertzea, komunikazio egoeran agertzen diren elementu linguistiko (hiztegia, esapideak…) eta ez-linguistikoak (irudiak, soinuak, keinuak…) kontuan hartuz.

1. Testuko berariazko informazio gehiena antzematen du.
2. Informazioa erregistratzen edo osatzen du datuen bilketarako sistema errazak erabiliz.
3. Ohiko komunikazio-egoerei lotutako hiztegi gehiena eta esamolde batzuk antzematen ditu.

1.3 XEDEA ETA KOMUNIKAZIO-EGOERAREN ELEMENTUAK ANTZEMATEA

Ahozko testuen xedea eta komunikazio egoeraren elementuak antzematea osagai linguistiko (hiztegia, esapideak…) eta ez-linguistikoak (irudiak, soinuak, keinuak…) kontuan hartuz.

1. Ohiko testuen genero gehienak identifikatzen ditu.
2. Ohiko testuen euskarri gehienak antzematen ditu.
3. Ohiko testu gehienetan, igorlea antzematen du.
4. Ohiko testu gehienetan, hartzailea antzematen du.

1.4. EDUKIA INTERPRETATZEA

Ahozko testuen edukia aurretiazko ezagupenetan oinarriturik interpretatzea, komunikazio egoeran agertzen diren elementu linguistiko (hiztegia, esapideak…) eta ez-linguistikoak (irudiak, soinuak, keinuak…) kontuan hartuz.

1. Testuaren edukiaz inferentzia errazak egiten ditu.
2. Testuaren osagai linguistiko batzuen eta ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du.

1.5. ATZERRIKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN EZAGUPENAK ERABILTZEA

Behaketa eta hausnarketaren bidez, atzerriko hizkuntzaren erabileraren inguruan ikasitako oinarrizko ezagupenak erabiltzen ditu, ulermen arazoei irtenbidea emateko.

1. Osagai gramatikal errazak erabiltzen ditu.
2. Oso oinarrizko hiztegiari dagozkion hitzak ahoskeragatik antzematen ditu.

2. DIMENTSIOA. IRAKURMENA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK. LORPEN ADIERAZLEAK

Hurrengo irizpideak aplikatuko dira ikasleen esperientziatik hurbil dauden gaiei buruzko idatzizko testu laburrak ulertzeko. Erabilera arrunteko eta egitura errazeko testuak izango dira.

Esparrua	Testuak
Pertsonen arteko harremanak	Gutunak, jarraibideak, gonbidapenak, oharpenak, oharrak, ordutegiak, errezetak, menuak, elkarrizketak...
Komunikabideak	Liburuxkak (lehen laguntzak, turismo-gidak...), publizitatea, berriak, elkarrizketak, web guneak, eguraldiari buruzko informazioa, horma-irudiak, tiketak, ekintza programak, katalogoak, aipamenak, informazio artikuluak...
Akademikoa	Deskribapenak (pertsonak, objektuak, animaliak...), jarraibideak (tresna batek nola funtzionatzen duen), dibulgaziozko testuak, azalpenak, definizioak, laburpenak, grafikoak, eskemak, testuliburuak, biografiak, entziklopediak, hiztegiak, glosarioak, web guneak.....
Literatura	Kantak, olerkiak, kontakizun laburrak, antzezpenak, ipuinak, alegiak, komikiak...

2.1. ZENTZU OROKORRA ULERTZEA

Idatzizko testuetan zentzu orokorra ulertzea, komunikazio egoeran agertzen diren osagai linguistiko (hiztegia, esapideak…) eta ez-linguistikoak (irudiak, ikonoak…) kontuan hartuz.

1. Testuaren gaia ulertzen du nabaria denean.
2. Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du nabaria denean.

3. Testuaren ideia nagusiaren bat identifikatzen du.
4. Testuaren barruko sekuentzia antzematen du argia denean.
5. Testuaren laburpena identifikatzen du motza denean.

2.2. BERARIAZKO INFORMAZIOA ULERTZEA

Idatzizko testuetan berariazko informazioa ulertzea, komunikazio egoeran agertzen diren osagai linguistiko (hiztegia, esapideak…) eta ez-linguistikoak (irudiak, ikonoak…) kontuan hartuz.

1. Testuko berariazko informazio gehiena antzematen du.
2. Informazioa erregistratzen edo osatzen du datuen bilketarako sistema ezberdinak erabiliz.
3. Ohiko komunikazio-egoerei lotutako hiztegi gehiena eta esamolde batzuk antzematen ditu.

2.3 XEDEA ETA KOMUNIKAZIO-EGOERAREN ELEMENTUAK ANTZEMATEA

Idatzizko testuen xedea eta komunikazio egoeraren elementuak antzematea osagai linguistiko (hiztegia, esapideak…) eta ez-linguistikoak (irudiak, ikonoak…) kontuan hartuz.

1. Ohiko testuen genero gehienak identifikatzen ditu.
2. Ohiko testuen euskarri gehienak antzematen ditu.
3. Ohiko testu gehienetan, igorlea antzematen du.
4. Ohiko testu gehienetan, hartzailea antzematen du.

2.4. EDUKIA INTERPRETATZEA

Idatzizko testuetan edukia aurretiazko ezagupenetan oinarriturik interpretatzea, komunikazio egoeran agertzen diren osagai linguistiko (hiztegia, esapideak…) eta ez-linguistikoak (irudiak, ikonoak…) kontuan hartuz.

1. Testuaren edukiaz inferentzia errazak egiten ditu.
2. Testuaren osagai linguistiko batzuen eta ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du.

2.5. ATZERRIKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN EZAGUPENAK ERABILTZEA

Behaketa eta hausnarketaren bidez, atzerriko hizkuntzaren erabileraren inguruan ikasitako oinarrizko ezagupenak erabiltzea ulermen arazoei irtenbidea emateko.

1. Osagai gramatikal errazak erabiltzen ditu.

2. Oinarrizko hiztegi gehiena ortografiagatik bereizten du.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA MINIMOAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO LAUGARREN MAILA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA. BIOLOGIA ETA GEOLOGIA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO LAUGARREN MAILA

DIMENTSIOAK

1. DIMENTSIOA. EZAGUTZA ZIENTIFIKOAREN ULERMENA

Zientzien oinarrizko kontzeptuak mundu naturaleko sistemekin eta prozesuekin lotzea, legeetan, ereduetan eta teorietan gauzatuz, eta interpretazio zientifikoa zientifikoak ez diren beste errealitate batzuetatik bereiztea, zientziak enpirikoki egiaztagarriak diren iragarpenak egiten dituela aitortuz, produktuak eta zientziaren izaera ulertzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

1.1. Zientziaren oinarrizko kontzeptuak mundu naturaleko sistemekin eta prozesuekin erlazionatzea, legeetan, ereduetan eta teorietan gauzatuz, hor hartzen baitute zentzua.

a) Ingurune naturaleko sistema eta elementu nagusiak, haien ezaugarri garrantzitsuenak, antolaketa eta elkarreraginak identifikatzen ditu.
b) Kontzeptu eta sistema orokorrak bereizten eta interpretatzen ditu eta lege, eredu edo teoria egokiarekin lotzen ditu.
c) Kontzeptu zientifikoak sistema materialen propietateekin eta jokabideekin erlazionatzen ditu.
d) Kontzeptu, sistema, eredu eta teoria ugariren arteko antzekotasunak eta aldeak identifikatzen eta deskribatzen ditu.
e) Materiaren aniztasuna eta aldaketak sailkatu eta ordenatzen ditu, bereizgarrietatik eta propietateetatik abiatuta, eta lege, eredu edo teoria egokiarekin lotzen ditu.

2. MULTZOA. BIZIAREN EBOLUZIOA:

- Izaki bizidunen antolaketa mailak (eskala kontuan hartuta) ondo bereizten ditu: ikuspegi mikroa (atomikoa, molekularra, zelula) ikuspegi makroa (ehuna, organoa, aparatua, sistema, izaki biziduna, populazioa, ekosistema).

- Izaki bizidunaren modeloaren konponenteak argi ditu (egitura -atalak eta hauen arteko erlazioak-; aldaketak eta funtzioak: -nutrizioa, erlazioa eta ugalketa-; kontrola eta erregulazioa). Guzti honetan denboraren garrantzia kontuan izango da. Ikuspegi honetatik landuko dira ezagupenak.
- Zelularen modeloa badu: zelularen egitura nagusienak ezagutzen ditu (mintza, horma-pareta, nukleoa, mitokondrioak, kloroplastoak, erribosomak, lisosomak, nukleoa eta identifikatzeko gai da (irudi, krokis…), eta organo hauen funtzio nagusia ezagutzen du zein den.
- Zelula-mota nagusienak badakizki: prokariotoa/eukariotoa eta landare-zelula/animalia/zelula, eta euren artean alderatzen ditu.
- Zelula prokariotiko eta eukariotikoen arteko erlazio ebolutiboa ezagutzen du.
- Ezagutzen du zelula prokariotikotik zelula eukariotirako prozesu ebolutiboan teoriarik onartuena zein den: teoria endosinbiotikoa.
- Landare-zeluletako nutrizio prozesuak arnasketa eta fotosintesia- bereizten ditu, eta bakoitza zein organulutan bideratzen den.

HERENDENTZIA ETA KARAKTERREN TRANSMISIOA

- Izaki bizidunen ugalketa ikuspegi makrotik zelularrera begiratu beharreko funtzioa dela ikusten du.
- Zelularen ugalketa motak mitosia eta meiosia ulertzen ditu, bi prozesuak bereizten ditu eta bata bestearen esanahi biologikoa adierazten du.
- Badaki mitosia zelula-zatiketa asexuala dela, beharrezkoa dela organismo zelulabakarren ugalketarako, bai eta organismo zelulanitzetan gorputza hazteko eta konpontzeko ere.
- Badaki meiosiak eta gametoak ugalketa sexualak duten eginkizuna.
- Ugalketan kontzeptu hauek baditu: azido nukleikoak (DNA eta RNA), gen, kode genetikoa, mutazioa, kromosoma, kromatina, kariotipo eta genotipoa.
- DNAren erreplikazioa informazio genetikoaren kontserbazioarekin lotzen du.
- Badaki DNAren eginkizuna informazio genetikoa eramatea dela, gene kontzeptuarekin lotzen du eta kromosoman kokatzen du.
- Ulertzen du nola adierazten den informazio genetikoa, eta haren adierazpen-mekanismoak kode genetikoaren bidez argitzen ditu.
- Mutazioak zer diren azaltzen du eta izaki bizidunen aniztasun genetikoan duen eginkizuna balioesten du.

- Badaki zein diren Mendelen genetikaren printzipio nagusiak, eta karaktere bateko edo bi karaktereko gurutzaketan.

BIOLOGIA ETA GIZARTEA

- Kontzeptu huek ezagutzen ditu: ingenieritza genetikoa, elikagai transgenikoa, klonazioa.

Bioteknologiaren oinarriak ezagutzen ditu maila orokorrean.

IZAKI BIZIDUN JATORRIA ETA EBOLUZIOA

- Izaki bizidunen eboluzioa ulertzen du.
- Mutazioak eta hautaketak ebaluzioaren prozesuarekin lotzen ditu.
- Izai bizidunen jatorria eta ebaluzioaren teoria nagusienak (lamarckismoa, darwinismoa eta neodarwinismoa) alderatzen ditu.
- Aldakortasun genetikoaren, egokitzapenaren eta hautespen naturalaren arteko lotura ezartzen du.

3. MULTZOA. LURRA ETENGABE ALDATZEN ARI DEN PLANETA

LURRAREN HISTORIA

- Lurraren historiaren ideia orokorrak baditu eta denbora geologikoan kokatzen ditu aldaketa garrantzitsuenak.
- Fosilen kontzeptua badu eta lurraren eboluzioaren interpretatzeko fosil gidariak erabiltzen ditu.
- Lurraren historia
- Lurraren egitura eta osaera deskribatzeko eredua geokimikoa eta geodiamikoa alderatzen ditu.

4. MULTZOA. EKOLOGIA ETA INGURUMENA

EKOSISTEMEN EGITURA

- Badaki zer ingurune-faktorek baldintzatzen duten izaki bizidunen garapena ingurune jakin batean, eta ekosistemen orekarekin eta erregulazioarekin lotzen ditu.
- Badaki zein garrantzitsua den biodibertsitatea ekosistemak orekatuta egoteko eta badaki ekosisteman zer ondorio dituen hartako elementuak aldatzeak.

EKOSISTEMAREN DINAMIKA ETA INPAKTUAK EKOSISTEMETAN

- Maila trofikoak eta ekosistemetan dituzten erlazioak bereizten ditu, eta ekosistemak kontserbatzeak bizirako oro har duen garrantzia balioesten du,

1.2. Zientzien datu, gertaera eta prozedura garrantzitsuak ezagutu eta deskribatzea, azalpen zientifikoetan eta problemen ebazpenean aplikatuz.

a) Prozesu baten faseak kronologikoki ordenatzen ditu eta justifikatu egiten ditu.

-Hominizazio-prozesua deskribatzen du, bai eta hura gertatzeko aukera eman zuten baldintzak ere.

b) Gertaera, datu eta prozedura zientifiko adierazgarrienak identifikatu eta deskribatzen ditu.

c) Termino zientifikoak, sinboloak, magnitudeen unitateak, eskalak ezagutu eta erabiltzen ditu.

1.3. Interpretazio zientifikoak eta zientifikoak ez diren beste errealitate batzuk bereiztea, zientziak enpirikoki egiaztagarriak diren iragarpenak egiten dituela aitortuz.

a) Ezagutza zientifikoan oinarrituta, baieztapen zuzenak eta okerrak bereizten ditu.

b) Iritzi hutsa eta probetan oinarritutako ebidentzi zientifikoak bereizten ditu.

c) Ezagutza zientifikoaren behin-behinekotasuna ezagutzen du.

2. DIMENTSIOA.ERREALITATE NATURALAREN AZALPENA

Sistema eta fenomeno naturalak deskribatu, azaldu eta aurreikustea, eta aplikazio zientifiko-teknologiko garrantzitsuenak aztertzea ezagutza zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiliz testuinguru pertsonal eta sozial garrantzitsuetan errealitatea ebidentzia zientifikotik ulertzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK. ETA LORPEN ADIERAZLEAK

2.1. Iturri desberdinetan zientziarekin erlazionatutako gaiei buruz informazio garrantzitsua kokatzea eta aukeratzea, kritikoki baloratuz.

a) Proposatutako lanera egokitutako informazio-iturriak identifikatzen ditu eta modu kritikoan aukeratzen ditu.
b) Informazioa biltzeko tresnak, aplikazioak eta teknikak erabiltzen ditu.
c) Iturri desberdinetako informazioa identifikatu eta biltzen du, ikerketa zientifikoko jarduera edo lan batean proposatutako helburuarekin bat etorriz.
d) Proposatutako ikerketa-lanari edo jarduerari dagozkion datu esperimentalak modu ordenatuan aukeratzen ditu.

*Gaur egungo egoeraren inguruko informazio bilera informazio iturri desberdinetan (gure ohiturak aldatzeak zelan eragin duen ekosisteman, ingurumenean…)

2.2. Sistema eta fenomeno naturalak deskribatu, azaldu eta aurreikustea, eta haien jokabidea aurrez ikustea, ezagutza zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiliz testuinguru pertsonal eta sozial garrantzitsuetan.

a) Objektu materialak eta fenomeno naturalak deskribatzen ditu.
   - Gizakiaren eboluzioa deskribatzen du.
   - Biotopoa, populazioa, komunitatea, ekotonoa, kate eta sare trofikoak, habitat ekologikoa eta nitxo ekologikoa zer diren deskribatzen du.
   - Materia eta energia kate edo sare trofikoan nola lekualdatzen den deskribatzen du, eta haien eta energia-eraginkortasunaren artean zer lotura dagoen azaltzen du
b) Kontzeptuak eta adierazpen grafiko eta sinbolikoak erlazionatzen ditu.
c) Sistema baten jokabidea iragartzen du, eredu batetik abiatuta, eta gerta daitezkeen aldaketak aztertzen ditu.
d) Fenomeno natural baten arrazoiak eta ondorioak zerrendatu eta azaltzen ditu, eta modu arrazoituan lortzen ditu ondorioak, eredu edo teoria batetik abiatuta.

- Ingurumenean eragin kaltegarri globala zein tokikoa duten giza jardueran haien kausekin eta ondorioekin lotzen ditu (kutsadura, basamortutzea, baliabideak agortzea, biodibertsitatea galtzea eta abar).

e) Prozesuak azaltzen ditu eta testuinguru orokorrean jartzen ditu, ezagutzen diren edo erraz ezagut daitezkeen gertakariak oinarri hartuta.

- -Lurraren historian izan diren aldaketa geologiko, klimatiko eta biologiko garrantzitsuak adierazten ditu eskalako denbora-ereduetan, eta historia geologikoko denbora- unitateak bereizten ditu; horretarako irakasleak emandako datuak eta fosilak

2.3. Modu aktiboan eta kritikoan interpretatzea mezu, produktu, gertaera eta fenomeno zientifikoak, hizkuntza eta inguru desberdinak erabiliz.

a) Zientzien inguruko testu jarraituak (deskribapenezkoak eta azalpenezkoak) kritikoki interpretatzen ditu.
b) Testu etenak (taulak, diagramak, grafikoak, formulak, argazkiak, marrazkiak, planoak, mapak, eskemak, organigramak, zuhaitz filogenetikoak...) kritikoki interpretatzen ditu.
c) Maketa, audio, bideo… formatuetan dauden errepresentazioen edukia kritikoki interpretatzen du.

- Mapa topografiko bat eta profil topografiko errazak interpretatzen ditu.

2.4. Informazio-, azalpen- eta argudio-mezuak eta testuak egitea, ikusitako objektuak eta fenomenoak deskribatuz, ezagutza zientifikoak gertaeren interpretaziora aplikatuz edo hipotesi, eredu edo teoria jakin bat justifikatuz.

a) Ekoizpenak planifikatzen ditu, egitura zehazten du eta egiteko beharrezkoak diren pausoak aplikatzen ditu.
b) Esperientzia jakin batean jarraitu dituen pausoak deskribatu ditu.
c) Izaera zientifikoko azalpen-testuak egiten ditu, gertakariak interpretatzen ditu eta dimentsio soziala kontuan hartzen du.
d) Taulak, grafikoak, eskemak, mapa kontzeptualak egiten ditu, modu argi eta ordenatuan, eta kasu bakoitzean prozedura edo teknika egokia aplikatuz. Marrazki eskematikoak, zelula-zikloen ereduak eta kariotipoen argazkiak erabili eta interpretatzen ditu.
e) Hizkuntza zientifikoaren forma egokiak erabiltzen ditu ekoizpenetan.

3. DIMENTSIOA. PROBLEMEN IKERKETA 3. DIMENTSIOA: PROBLEMEN IKERKETA (Seguraski hauxe da dimentsiorik zailena aurrera eramateko) Astirik egonez gero, egun batzuetako ikerketa txikiak plantea daitezke. Helburua aldagaien kontrola eta prozesuaren faseak begiratzea eta identifikatzea izango litzateke.

Izaera zientifikoko problemak identifikatzea eta dokumentazio-ikerketa txikiak eta ikerketa esperimentalak egitea egoera problematikoen tratamenduan, jarduera zientifikoaren berezko gaitasunak eta jokabideak modu egokian baloratuz, erabiliz eta erakutsiz, aipatutako egoera problematiko horiek ebazteko eta erabaki arduratsuak hartzeko aurretiazko pauso gisa ebidentziak lortzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

3.1. Arlo zientifikoko problemak identifikatu eta ebaztea, testuinguruan, bai modu kualitatiboan, bai kuantitatiboan, arrazonamendu zientifikoaren berezko gaitasunak erabiliz.

a) Egoera problematikoaren testuingurua aintzat hartzen du eta modu egokian ulertzen du.
   - -Giza herentziako problema jakin batzuk aztertzen ditu: Rh faktorea, begien eta ilearen kolorea eta abar.
   - -Sexuaren herentzia eta sexuari lotutako herentzia bereizten ditu, eta haien arteko lotura ezartzen du.
   - -Sexuaren herentziari eta sexuari lotutako herentziari buruzko problema praktikoak ebazten ditu: hemofilia, daltonismoa eta abar.
   - -Ingenieritza genetikoaren (Klonazioa, elikagai transgenikoak, informazio genetikoa gaixotasunei aurre egiteko) ondorio etikoak, gizarte-ondorioak eta ingurumen-ondorioak aztertzen ditu.

b) Zientifikoki iker daitezkeen galderak egiten ditu.
c) Problema identifikatzen eta zehazten du.
d) Problemaren aldagaiak eta elkarren arteko loturak identifikatzen ditu.
e) Ekintza-plana diseinatzen du.
f) Ekintza-plana egiten du eta lortutako emaitza baloratzen du.
g) Problema berriak ebazteko topatutako irtenbideak aplikatzen ditu.

3.2. Ikerketa dokumental eta esperimental txikiak egitea egoera problematikoen ebazpenean, jarduera zientifikoaren gaitasunak modu egokian erabiliz, exekuzioa baloratuz eta emaitzak interpretatuz.

a) Informazio-iturriak erabiltzen ditu; askotarikoak eta fidagarriak.
b) Ikerketa-problema zehazten du.
c) Hipotesiak egiten ditu, behaketa batetik edo teoria batetik abiatuta.
d) Diseinu esperimentala egiten du.
e) Datuak lortzeko beharrezko lagina eta baliabideak aukeratzen ditu.
f) Aurrez ezarritako probak eta zereginak egiten ditu.
g) Datuak hartu eta modu egokienean adierazten ditu.
h) Ondorioak ateratzen ditu eta bere lanaren emaitza hasierako hipotesiarekin kontrastatzen du.
i) Segurtasun-arauak identifikatzen ditu behaketa-tresnak eta laneko materialak erabiltzean arriskuak saihesteko.

*COVID-19 froga egiteko eman beharreko pausuak, diseinu esperimentala, erabil beharreko segurtasun arauak eta horiek betetzearen garrantzia gaur eguneko egoera kontuan hartuta…

3.3. Jarduera zientifikoarekin zerikusia duten jokabideak ezagutu, balioetsi eta erakustea, problemen ebazpenean eta ikerketetan aplikatuz.

a) Modu ordenatuan eta jarduera zientifikoetan proposatutako helburuen arabera jarduten du.
b) Ezagutza zientifikoen eraikuntzan metodo zientifikoen garrantzia balioesten du.
c) Jokabide hauek erakusten ditu: jakin-mina, epai kritikoa, zintzotasuna datuen bilketan eta ziurgabetasuna jasateko eta ezagutza zientifikoaren behin-behineko izaera onartzeko prestutasuna, malgutasuna, iraunkortasuna, disponibilitatea.
d) Tresnak erabiltzean, neurketetan izan ditzakeen akatsak kontuan hartzen ditu.
e) Taldeko lanean elkarreragiten du eta erantzukizunak hartzen ditu.

4. DIMENTSIOA. ERABAKIAK HARTZEA, EZAGUTZA ZIENTIFIKOAK ERABILIZ

Mundu naturalari eta giza jarduerak bertan sortzen dituen aldaketei buruzko erabakiak modu arduratsuan, autonomoan eta kritikoan hartzea, ezagutza zientifikoak bizitzako arlo eta egoera guztietan behar bezala erabiliz, bizitza pertsonala eta soziala hobetzeko eta ingurua mantentzeko eta hobetzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

4.1. Garapen iraunkorra sustatzen duten proposamenak modu autonomoan eta kritikoan egitea giza jarduerak ingurune naturalean sortzen dituen aldaketen aurrean, ezagutza zientifikoak modu egokian erabiliz, kausak aztertuz eta ondorioak balioetsiz.

a) Modu kritikoan balioesten ditu giza jarduerek ingurumenean eragiten dituzten ondorioak eta horrek ingurumenean eragiten dituen aldaketen gaineko gogoeta egiten du, eta zaintzeko eta berreskuratzeko ekintzak proposatzen ditu.

-Energia berriztagarriak erabiltzea garapen iraunkorrerako zein garrantzitsua den ulertzen du.

b) Gizakiek baliabide naturalei emandako erabilera adibideekin adierazten du, baliabideek eta horien eskasiak pertsonen bizitzarako duten garrantziaz jabetzen da. Hori zaintzen laguntzen du, beharrezkoa ez den kontsumoa saihestuz.

-Baliabide materialak birziklatzearen eta berrerabiltzearen alde onak eta txarrak adierazten ditu argudioak emanez.

c) Oreka ekologikoa eta ondare naturala mantentzea defendatzearen eta berreskuratzearen aldeko proiektuak eta jarrerak identifikatzen ditu.

-Iraunkortasunari begirako garapena ingurumen-arazoak konpontzeko ezinbestekoa dela arrazoitzen du, eta badaki ingurumena zaintzeko eta hobetzeko zer neurri eta estrategia dauden, etorkizun iraunkorra lortzeko.

4.2. Jokabideak erakutsi eta osasun-ohiturak eta bizitza-estilo osasungarriak garatzea, banaka eta taldeka arriskuak saihestuz eta alde indibidualak onartuz eta errespetatuz.

a) Higienearekin, osasunaren zaintzarekin, eta gaixotasunen eta istripuen prebentzioarekin zerikusia duten ohiturak identifikatzen ditu eta bizimodu osasungarriak sustatzen dituzten ekintzak proposatzen ditu.

-Zenbait gaixotasun hereditario, haien prebentzioa eta gizarte-eragina deskribatzen ditu.

4.3. Ikerketa zientifikoaren beharra eta gizartearen ongizatean dituen aplikazioak justifikatzea, gizarte berriaren garapenean izan duten zereginaren ezagutzatik abiatuta.

a) Bere buruarentzako, erabakiak hartze aldera, ezagutza zientifikoak duen garrantzia frogatzen du, hainbat egoera problematikotan oinarrituta.
b) Zientziak eta teknologiak (bioteknologiak) pertsonen eta gizartearen aurrerapenari eta ongizateari egindako ekarpenak balioesten ditu, eta arriskuak alderatzen ditu.
c) Zientziaren eta teknologiaren garapenak dituen eragin etikoak, sozialak eta ingurumen-eraginak aztertzen ditu. Kritikoki balioesten ditu (bioetikaren oinarriak erabiliz) DNA errekonbinantearen eta bioteknologiako beste aurrerapen batzuen aplikazioak nekazaritzan, abeltzaintzan, ingurumenean eta osasunean. (*Gaur egun PCR aipatzen da egunero telebistan, ikusten ari gara zein garrantzitsua den ikerketa zientifikoa mundu mailako arazo bat konpontzeko, etab.)

ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA. FISIKA ETA KIMIKA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO LAUGARREN MAILA

DIMENTSIOAK

1. DIMENTSIOA. EZAGUTZA ZIENTIFIKOAREN ULERMENA

Zientzien oinarrizko kontzeptuak mundu naturaleko sistemekin eta prozesuekin lotzea, legeetan, ereduetan eta teorietan gauzatuz, eta interpretazio zientifikoa zientifikoak ez diren beste errealitate batzuetatik bereiztea, zientziak enpirikoki egiaztagarriak diren iragarpenak egiten dituela aitortuz, produktuak eta zientziaren izaera ulertzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

1.1. Zientziaren oinarrizko kontzeptuak mundu naturaleko sistemekin eta prozesuekin erlazionatzea, legeetan, ereduetan eta teorietan gauzatuz, hor hartzen baitute zentzua.

a) Ingurune naturaleko sistema eta elementu nagusiak, haien ezaugarri garrantzitsuenak, antolaketa eta elkarreraginak identifikatzen ditu.
b) Kontzeptu eta sistema orokorrak bereizten eta interpretatzen ditu eta lege, eredu edo teoria egokiarekin lotzen ditu.
c) Kontzeptu zientifikoak sistema materialen propietateekin eta jokabideekin erlazionatzen ditu.
d) Kontzeptu, sistema, eredu eta teoria ugariren arteko antzekotasunak eta aldeak identifikatzen eta deskribatzen ditu.
e) Materiaren aniztasuna eta aldaketak sailkatu eta ordenatzen ditu, bereizgarrietatik eta propietateetatik abiatuta, eta lege, eredu edo teoria egokiarekin lotzen ditu.

2. MULTZOA. HIGIDURAK ETA HORREN KAUSAK

- Higidura deskribatzeko erabiltzen diren magnitudeak eta haien unitate bereizgarriak zein diren adierazten ditu.
- Magnitude bat eskalarra edo bektoriala den bereizten du eta magnitude bektorialaren ezaugarriak deskribatzen ditu.
- Higiduraren kontzeptua badaki.

- Higiduraren azterketa egiteko erreferentzia sistemaren garrantziaz baliatzen da.
- Higidura motak deskribatzen ditu eta alderatzen ditu.
- Batez besteko abiadura eta aldiuneko abiadura bereizten ditu.
- Higidura azeleratuetan, azelerazioa zer den azaltzen du.
- Indarra magnitudea gorputzen elkarrekintza dela eta gorputzen azelerazioaren eragile dela adierazten du.
- Eguneroko bizitzan jarduten duten indarrak identifikatzen ditu, bai eta grabitate-indarra, indar elektrikoa, indar elastikoa, marruskadura-indarra eta fluidoek eragindako indarra.
- Gorputzen higidura azaltzeko Newtonen legeak erabiltzen ditu.
- Gorputzen arteko elkarrekintza gertatzen den egoeretan, akzio-indarrak eta erreakzio-indarrak adierazi eta interpretatzen ditu.
- Masa eta pisua kontzeptuak alderatzen ditu.
- Grabitazio Unibertsalaren legea ezagutzen du, eta bere eragina objektuen arteko erakarpenean, pisuaren erakarpen-indarrean identifikatzen du.

3. MULTZOA. ALDAKETEN AZTERKETA SAKONTZEA. ENERGIA-TRANSFERENTZIA: LANA, BEROA

- Energiaren kontserbazio legea deskribatzen du.
- Energia motak erlazionatzen ditu (eta, bereziki, zinetikoa eta energia potentzial grabitatorioa).
- Lana, energia eta potentzia kontzeptuak badakizki, eta haien arteko loturak azaltzen ditu.
- Beroa energia-transferentzia moduan interpretatzen du, haren eraginak adierazten ditu eta badaki sistema batek zer baldintzatan trukatzen duen energia bero moduan edo lan moduan.
- Lana eta potentzia erlazionatzen ditu era kualitatiboan.

4. MULTZOA. ERREAKZIO KIMIKOAK ETA HAIEN GARRANTZIA

ATOMOEN EGITURA ETA LOTURA KIMIKOAK

- Energia kimikoa eta atomoen arteko erlazioa ulertzen du.
- Ereduak materiaren egitura interpretatzeko beharrezko direla ulertzen du.
- Historian zehar materiaren barne-barneko izaera interpretatzeko proposatutako eredu atomikoak alderatzen ditu.

- Konfigurazio elektronikoa, zenbaki atomikoa, masa molekularra eta lotura kimikoaren kontzeptuak baditu.
- Jabetu da taula periodikoan elementu guztiak zenbaki atomikoaren arabera ordenatzen diren – protoi kopurua –, aldizkako joerak erakusten dituen eta zutabe edo talde berean antzeko portaera dutenak biltzen direla.
- Elementu batek taula periodikoan duen kokapena arrazoitzen du, haren konfigurazio elektronikotik abiatuta.
- Badaki substantzia kantitatea funtsezko magnitudea dela eta mola dela haren unitatea nazioarteko unitate-sisteman.

ERREAKZIO KIMIKOAK

- Erreakzio kimikoen mekanismoa ulertzen du eta masaren kontserbazioaren legea ondorioztatzen du, erreakzioan sortzen den berrantolaketa atomikoaren kontzeptutik abiatuta (talken teoria).
- Erreakzio kimikoetan energiaren barneraketa eta kanporaketa (erreakzio endotermikoak eta exotermikoak). Azidoak eta baseak identifikatzen ditu.
- Errekuntza-erreakzioetan karbono dioxidoa sortzen dela badaki.

1.2. Zientzien datu, gertaera eta prozedura garrantzitsuak ezagutu eta deskribatzea, azalpen zientifikoetan eta problemen ebazpenean aplikatuz.

a) Prozesu baten faseak kronologikoki ordenatzen ditu eta justifikatu egiten ditu.
b) Gertaera, datu eta prozedura zientifiko adierazgarrienak identifikatu eta deskribatzen ditu.

- Arrazoiak emanez, adierazten du higidura erlatiboa dela, eta erreferentzia-sistema bat eta bektoreak behar direla egoki deskribatzeko.
- Termino zientifikoak, sinboloak, magnitudeen unitateak, eskalak ezagutu eta erabiltzen ditu.
- Eguneroko bizitzan higidura deskribatzeko erabiltzen diren magnitudeak eta haien unitate bereizgarriak zein diren adierazten du.
- Zenbait higidura motatan, ibilbidea eta posizio-bektoreak, desplazamendua eta
- abiadura adierazten ditu grafikoki, erreferentzia-sistema bat erabiliz.
- Konposatu baten formula baten azpiindizeek ematen duten informazioa interpretatzen du.

1.3. Interpretazio zientifikoak eta zientifikoak ez diren beste errealitate batzuk bereiztea, zientziak enpirikoki egiaztagarriak diren iragarpenak egiten dituela aitortuz.

a) Ezagutza zientifikoan oinarrituta, baieztapen zuzenak eta okerrak bereizten ditu.
b) Iritzi hutsa eta probetan oinarritutako ebidentzia zientifikoak bereizten ditu.
c) Ezagutza zientifikoaren behin-behinekotasuna ezagutzen du.

2. DIMENTSIOA. ERREALITATE NATURALAREN AZALPENA (1. Dimentsioan aipatutako ezagupenekin erlazioa dutenak).

Sistema eta fenomeno naturalak deskribatu, azaldu eta aurreikustea, eta aplikazio zientifiko-teknologiko garrantzitsuenak aztertzea ezagutza zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiliz testuinguru pertsonal eta sozial garrantzitsuetan errealitatea ebidentzia zientifikotik ulertzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETALORPEN ADIERAZLEAK

2.1. Iturri desberdinetan zientziarekin erlazionatutako gaiei buruz informazio garrantzitsua kokatzea eta aukeratzea, kritikoki baloratuz.

a) Proposatutako lanera egokitutako informazio-iturriak identifikatzen ditu eta modu kritikoan aukeratzen ditu.
b) Informazioa biltzeko tresnak, aplikazioak eta teknikak erabiltzen ditu.
c) Iturri desberdinetako informazioa identifikatu eta biltzen du, ikerketa zientifikoko jarduera edo lan batean proposatutako helburuarekin bat etorriz.
d) Proposatutako ikerketa-lanari edo jarduerari dagozkion datu esperimentalak modu ordenatuan aukeratzen ditu.
   - Grabitazio unibertsalaren legearen ezarpenari eta haren protagonistei buruzko informazio historikoa bilatu, hautatu eta antolatzen du.
   - Euskal Herrian industria kimikoak duen garrantzia aztertzen du.
   - Munduko eta Euskal herriko kutsadura kimikoaren arazoa deskribatzen du, zergatiak azaltzen ditu eta zenbait konponbide proposatzen ditu.
   - Pascalen printzipioan oinarritutako aplikazio praktikoak aztertzen ditu; esaterako prentsa hidraulikoa, jasogailua, eta direkzio eta balantza hidraulikoak.

2.2. Sistema eta fenomeno naturalak deskribatu, azaldu eta aurreikustea, eta haien jokabidea aurrez ikustea, ezagutza zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiliz testuinguru pertsonal eta sozial garrantzitsuetan.

a) Objektu materialak eta fenomeno naturalak deskribatzen ditu.
   - Eguneroko bizitzan jarduten duten indarrak identifikatzen ditu, bai eta grabitate-indarra, indar elektrikoa, indar elastikoa, marruskadura-indarra eta fluidoek eragindako indarra.
   - Beroa gorputzean sortzen dituen ondorioekin lotzen du modu kualitatiboan zein kuantitatiboan: tenperatura-aldaketa, egoera-aldaketak eta dilatazioa.
   - Gorputzen eguneroko mugimendu arruntak azaltzen ditu Newtonen legeetan oinarritua.

b) Kontzeptuak eta adierazpen grafiko eta sinbolikoak erlazionatzen ditu.
   - Eguneroko bizitzarekin lotutako egoeretan parte hartzen duten indarrei buruzko eskemak eta ariketak egiten ditu.
   - Eskema grafiko sinpleak erabiltzen ditu, zenbait eredutan atomoak irudikatzeko.
   - Elementu baten konfigurazio elektronikoa idazten du, haren zenbaki atomikotik abiatuta.

c) Sistema baten jokabidea iragartzen du, eredu batetik abiatuta, eta gerta daitezkeen aldaketak aztertzen ditu.
   - Sistema hidraulikoek izan dezaketen jokabidea Pascalen printzipiotik abiatuta azaltzeko gai da.

d) Fenomeno natural baten arrazoiak eta ondorioak zerrendatu eta azaltzen ditu, eta modu arrazoituan lortzen ditu ondorioak, eredu edo teoria batetik abiatuta.
   - Fluidoekin lotutako naturako fenomenoak (flotagarritasuna) azaltzen ditu hidrostatikaren printzipioa erabiliz (Arkimedesen printzipioa).
   - Eguneroko arazo-egoera arruntean energiaren kontserbazioaren legea erabiltzen du azalpena ematean.

e) Prozesuak azaltzen ditu eta testuinguru orokorrean jartzen ditu, ezagutzen diren edo erraz ezagut daitezkeen gertakariak oinarri hartuta.

2.3. Modu aktiboan eta kritikoan interpretatzea mezu, produktu, gertaera eta fenomeno zientifikoak, hizkuntza eta inguru desberdinak erabiliz.

1. Zientzien inguruko testu jarraituak (deskribapenezkoak eta azalpenezkoak) kritikoki interpretatzen ditu.
   - Indar baten aplikazio-azaleraren eta horren ondoriozko eraginaren arteko erlazioa agerian jartzen duten fenomenoak eta aplikazio praktikoak ikusi eta interpretatzen ditu.
2. Testu etenetan (tauletan eta grafikoetan) adierazitako higidurak deskribatzen eta interpretatzen ditu. higidurak deskribatzen dituzten grafikoak, formulak, argazkiak, marrazkiak, planoak, mapak, eskemak, organigramak, kritikoki interpretatzen ditu.
   - Kalkulu estekiometriko oso sinpleak egiteko gai da.
   - Elementu kimiko baten egitura idazten du.

2.4. Informazio-, azalpen- eta argudio-mezuak eta testuak egitea, ikusitako objektuak eta fenomenoak deskribatuz, ezagutza zientifikoak gertaeren interpretaziora aplikatuz edo hipotesi, eredu edo teoria jakin bat justifikatuz.

a) Ekoizpenak planifikatzen ditu, egitura zehazten du eta egiteko beharrezkoak diren pausoak aplikatzen ditu.
b) Esperientzia jakin batean jarraitu dituen pausoak deskribatu ditu.
c) Euskal herrian industria kimikoak duen garrantzia aztertzen du.
d) Izaera zientifikoko azalpen-testuak egiten ditu, gertakariak interpretatzen ditu eta dimentsio soziala kontuan hartzen du.
e) Taulak, grafikoak, eskemak, mapa kontzeptualak egiten ditu, modu argi eta ordenatuan, eta kasu bakoitzean prozedura edo teknika egokia aplikatuz
f) Hizkuntza zientifikoaren forma egokiak erabiltzen ditu ekoizpenetan (beti ere minimoetan kokaturik).

3. DIMENTSIOA: PROBLEMEN IKERKETA (Seguraski hauxe da dimentsiorik zailena aurrera eramateko) Astirik egonez gero, ikerketa txikiren bat burutzea gomendatzen da, metodo zientziari hurbilketa egiteko.

Izaera zientifikoko problemak identifikatzea eta dokumentazio-ikerketa txikiak eta ikerketa esperimentalak egitea egoera problematikoen tratamenduan, jarduera zientifikoaren berezko gaitasunak eta jokabideak modu egokian baloratuz, erabiliz eta erakutsiz, aipatutako egoera problematiko horiek ebazteko eta erabaki arduratsuak hartzeko aurretiazko pauso gisa ebidentziak lortzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

3.1. Arlo zientifikoko problemak identifikatu eta ebaztea, testuinguruan, bai modu kualitatiboan, bai kuantitatiboan, arrazonamendu zientifikoaren berezko gaitasunak erabiliz.

a) Egoera problematikoaren testuingurua aintzat hartzen du eta modu egokian ulertzen du.
b) Zientifikoki iker daitezkeen galderak egiten ditu.
c) Problema identifikatzen eta zehazten du.
d) Problemaren aldagaiak eta elkarren arteko loturak identifikatzen ditu.
e) Ekintza-plana diseinatzen du.
f) Ekintza-plana egiten du eta lortutako emaitza baloratzen du.
g) Problema berriak ebazteko topatutako irtenbideak aplikatzen ditu.

3.2. Ikerketa dokumental eta esperimental txikiak egitea egoera problematikoen ebazpenean, jarduera zientifikoaren gaitasunak modu egokian erabiliz, exekuzioa baloratuz eta emaitzak interpretatuz.

a) Informazio-iturriak erabiltzen ditu; askotarikoak eta fidagarriak.
b) Ikerketa-problema zehazten du.
c) Hipotesiak egiten ditu, behaketa batetik edo teoria batetik abiatuta.
d) Diseinu esperimentala egiten du.

e) Datuak lortzeko beharrezko lagina eta baliabideak aukeratzen ditu.
   - Egoki erabiltzen du laborategiko materiala.

f) Aurrez ezarritako probak eta zereginak egiten ditu.

g) Datuak hartu eta modu egokienean adierazten ditu.
   - Magnitudeak zuzen neurtzen ditu eta unitate egokian adierazten ditu.

h) Ondorioak ateratzen ditu eta bere lanaren emaitza hasierako hipotesiarekin kontrastatzen du.

i) Segurtasun-arauak identifikatzen ditu behaketa-tresnak eta laneko materialak erabiltzean arriskuak saihesteko.

3.3. Laborategiko esperimentuak egitea

- Neurketa baten errore absolutua eta errore erlatiboa kalkulatu eta interpretatzen du.
- Sintesi, errekuntza eta neutralizazio-erreakzioak gertatzen diren laborategiko esperimentuak egiten ditu, eta ikusitako fenomenoak interpretatzen ditu.
- Azido sendo eta base sendo baten neutralizazio-bolumetria bat egiteko prozedura diseinatzen eta deskribatzen du, esperimentua egiten du, eta lortutako emaitzak interpretatzen ditu.

4. DIMENTSIOA. ERABAKIAK HARTZEA, EZAGUTZA ZIENTIFIKOAK ERABILIZ

Mundu naturalari eta giza jarduerak bertan sortzen dituen aldaketei buruzko erabakiak modu arduratsuan, autonomoan eta kritikoan hartzea, ezagutza zientifikoak bizitzako arlo eta egoera guztietan behar bezala erabiliz, bizitza pertsonala eta soziala hobetzeko eta ingurua mantentzeko eta hobetzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

4.1. Garapen iraunkorra sustatzen duten proposamenak modu autonomoan eta kritikoan egitea giza jarduerak ingurune naturalean sortzen dituen aldaketen aurrean, ezagutza zientifikoak modu egokian erabiliz, kausak aztertuz eta ondorioak balioetsiz.

a) Modu kritikoan balioesten ditu giza jarduerek ingurumenean eragiten dituzten ondorioak eta horrek ingurumenean eragiten dituen aldaketen gaineko gogoeta egiten du, eta zaintzeko eta berreskuratzeko ekintzak proposatzen ditu.

- Munduko eta Euskal herriko kutsadura kimikoaren arazoa deskribatzen du, zergatiak azaltzen ditu eta zenbait konponbide proposatzen ditu.

b) Gizakiek baliabide naturalei emandako erabilera adibideekin adierazten du, baliabideek eta horien eskasiak pertsonen bizitzarako duten garrantziaz jabetzen da. Hori zaintzen laguntzen du, beharrezkoa ez den kontsumoa saihestuz.

c) Oreka ekologikoa eta ondare naturala mantentzea defendatzearen eta berreskuratzearen aldeko proiektuak eta jarrerak identifikatzen ditu.

4.3. Ikerketa zientifikoaren beharra eta gizartearen ongizatean dituen aplikazioak justifikatzea, gizarte berriaren garapenean izan duten zereginaren ezagutzatik abiatuta.

a) Bere buruarentzako, erabakiak hartze aldera, ezagutza zientifikoak duen garrantzia frogatzen du, hainbat egoera problematikotan oinarrituta.

b) Zientziak eta teknologiak (kimikak) pertsonen eta gizartearen aurrerapenari substantzia interesgarriak ekoizten -petrolioa, botikak, plastikoak, ongarriak…) eta ongizateari egindako ekarpenak balioesten ditu, eta arriskuak alderatzen ditu.

c) Zientziaren (kimikaren) garapenak dituen eragin etikoak, sozialak eta ingurumen-eraginak aztertzen ditu: uraren, airearen, lurzoruaren eta elikagaien kutsadura.

- Badaki garapen zientifiko-teknologikoak zer erantzukizun duen ingurumen-arazoan eta ezinbestean lagundu behar duela konponbideak ematen, zuhurtasun-printzipioa aintzat hartuta, betiere.

MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA
(IRAKASKUNTZA AKADEMIKORA BIDERATUTA)
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO LAUGARREN MAILA

DIMENTSIOAK

1.KANTITATEA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN MAILAK

1. **Zenbaki motak, haien eragiketak eta propietateak erabiltzea informazioa bildu, eraldatu eta trukatzeko, eta eguneroko bizitzarekin nahiz arlo zientifikoarekin lotutako problemak ebazteko.**

    1. Zenbaki motak (arruntak, osoak, arrazionalak eta irrazionalak) bereiztu, identifikatu erabili, adierazi, ordenatu eta sailkatzen ditu.
    2. Kalkuluak efikaziaz egiten ditu idazkera egokiena erabiliz, berreketak eta erroketak eginez.
    3. Erroketen eta berreketen arteko erlazioak adierazten ditu.
    4. Kalkuluak egiten ditu mota guztietako berreketekin eta erroketekin, dagozkien propietateak aplikatuz.
    5. Idazkera zientifikoa erabiltzen du dagokien testuinguruetan.

2. **Hainbat motatako ekuazioak, inekuazioak eta sistema aljebraikoak planteatu eta ebatzi beharreko eguneroko bizitzako eta zientzien beren esparruko problemak ebaztea, ebazpen-algoritmoak trebetasunez aplikatuz.**

    1. Problemen enuntziatuak hizkuntza aljebraikoan adierazten ditu.
    2. Lehen eta bigarren mailako ekuazioak eta lehen mailako inekuazioak planteatzen eta ebazten ditu.
    3. Ekuazio linealen sistemak planteatzen eta ebazten ditu, eta lortutako emaitzak interpretatzen ditu.
    4. Ekuazio linealen sistemak grafikoki ebazten ditu.

3. Hizkuntza aljebraikoa, eta haren eragiketak eta propietateak trebetasunez erabiltzea, eta horien bidez zenbakizko erlazio matematikoak, alfanumerikoak, geometrikoak, etab. Bai eta problemen ebazpenean ere.

1. Berdintza aljebraikoekin eragiketak egiten ditu, haien propietateak erabiliz.
2. Polinomioekin eta laburbidezko formulekin eragiketak egiten ditu.
3. Polinomio baten erroak kalkulatu eta metodo egokiena erabiliz faktorizatzen du. Ruffiniren metodoa aplikatzen du.
4. Adierazpen aljebraikoekin eragiketak egiten ditu, eta ahal bada sinplifikatu egiten ditu.
5. Zenbaki multzo batean egon daitezkeen erregulartasunak aurkitzen ditu, eta hautemandako erregulartasuna ahozko formula baten edo formula aljebraiko baten bidez adierazten du.

2. ESPAZIOA ETA FORMA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA LORPEN MAILAK

